

# Jakin175

azaroa-abendua  
2009



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



## ZENBAKI HONETAN

**7**

### GAI NAGUSIA Euskal kultura 2009

**11** ALBERTO BARANDIARAN  
PANTXOA ETCHEGOIN  
PATXI GAZTELUMENDI  
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU  
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
LAURA MINTEGI  
FITO RODRIGUEZ  
ALLANDE SOKARROS  
ANDRES URRUTIA  
EGUZKI URTEAGA  
IÑAKI ZABALETA URKIOLA

### GAIK

**89** Euskal Herriko lurralde gatazka:  
europar aukera zehazteko bidean  
ELENA BELOKI  
JEAN PIERRE MASSIAS

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jakingunea.com  
www.jakingunea.com

---

2009ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	50 €	—
Ale arrunta	8,30 €	10,50 €
EUROPAN		
Harpidetza	65 €	—
Ale arrunta	11 €	13,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	75 €	—
Ale arrunta	15 €	17,50 €

## S U M M A R Y




### **BASQUE CULTURE 2009**

Eleven authors —professionals from the world of Basque culture— provide us with a critical commentary of the cultural events that have taken place during 2009. Alberto Barandiaran comments, among other things, on the controversy surrounding the Iruña-Veleia excavations and the awarding of literary prizes; Pantxoia Etchegoin informs us about cultural activity in the North Basque Country; Patxi Gaztelumendi comments on different popular initiatives and news in the field of communication; Xabier Mendiguren Bereziartu analyses current affairs regarding Basque language policy from the standpoint of Kontseilua; Xabier Mendiguren Elizegi refers to different aspects of current affairs in politics, literature and culture; Laura Mintegi reflects, among other things, on the implications of the change of Government in the Basque Autonomous Community in terms of cultural and education policy; Fito Rodriguez comments on different events that have taken place in the field of literature and expresses his solidarity towards those being prosecuted in the trial against the *Euskaldunon Egunkaria* newspaper; Allande Sokarros provides us with and analyses different cultural activities in Zuberoa; Andres Urrutia highlights, among other things, the celebration of the ninetieth anniversary of Euskaltzaindia (the Royal Academy of the Basque Language); Eguzki Urteaga draws attention to the lack of commitment on the part of the French Government to look further into the recognition of rights of minority languages; and lastly, Iñaki Zabaleta Urkiola basically focuses on an analysis of the change of direction devised by the new Basque Government for the operation of the Basque public radio and TV network, EITB. **VARIOUS AUTHORS**

## **THE TERRITORIAL CONFLICT OF THE BASQUE COUNTRY: SPECIFYING THE EUROPEAN OPTION**

Elena Beloki, a graduate in Political Science, and the professor Jean Pierre Massias, continue with the theme of a previous article by Julen Zabalo and Massias himself, in which the territorial and national conflict maintained by the Basque Country with Spain and France was analysed. In this case, the authors look into the different possibilities offered within the scope of the European Union to help solve this conflict. **ELENA BELOKI / JEAN PIERRE MASSIAS**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 175. zenbakia da eta 2009. urteko azkena.

Urteroko ohiturari jarraituz, urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzearekin gatoz azken zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean. Horretarako, urteko hiruzpalau gai hautatzea eta horiei buruz gogoeta eginez artikulu arin eta freskoak egitea proposatu diegu hainbat idazleri. Hamaikaren erantzuna jaso dugu. Mila esker, beraz, guztioi.

Alberto Barandiaran kazetariak Iruña-Veleia aztarnategiko aurkikuntzen eta literatur sari banaketan gainean eraikitako polemikez dihardu, besteak beste; Pantxoia Etchegoin Euskal Kultur Erakundeko zuzendariak Ipar Euskal Herriko aurtengo hainbat kultur gertakizun aurkezten dizkigu; Patxi Gaztelumendi kazetariak euskararen sarearen eta komunikazioaren esparruko hainbat ekimen iruzkintzen ditu; Xabier Mendiguren Bereziartuk, Kontseiluko idazkari nagusiak, hizkuntz politikaren inguruko aurtengo auzi nagusiak aztertzen ditu; Xabier Mendiguren Elizegi idazle eta editoreak politika, literatura eta kultura alorreko hainbat gertakiriri buruz dihardu; Laura Mintegi idazle eta irakasleak, beste gai batzuen artean, Eusko Jaurlaritzan izan den aldaketak kultura eta hezkuntza politiketan ekar ditzakeen ondorioei buruz egiten du gogoeta; Fito Rodriguez Euskal Idazleen Elkarteko lehendakariak literatur esparruko zenbait gertaera iruzkintzen ditu, *Egunkariaren* aurkako epaiketari auzipetuta daudenekiko elkartasuna adieraztearekin batera; Allande Sokarros kazetariak Zuberoako euskalgintza eta kulturgintzan jartzen du arreta; Andres Urrutia euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren laurogeita hamargarren urteurrenaren ospakizuna azpimarratzen du, besteak beste; Eguzki Urteaga soziologoaren gogoeta Frantziako Gobernuak lurralde hizkuntza gutxituen, horien artean euskararen, ezagupenean sakontzeko erakusten ari den konpromiso urritik abiatzen da; eta, azkenik, Iñaki Zabaleta Urkiola irakasleak

adierazpen askatasunari eta zentsurari buruz hausnartzen du, EITBren baitan izaten ari diren aldaketen haritik, batik bat.


Bestalde, *Gaiak* sailean, Euskal Herriak Espainia eta Frantziako estatuekin duen nazio gatazkaren auziari heltzen diote Elena Beloki eta Jean Pierre Massiasek, hain zuzen ere Julen Zabalo eta Massiasek berak aurreko artikuluan batean irekitako ildotik («Euskal Herriko lurralde gatazka luzea. Europako aukera», *Jakin* 172). Oraingo artikulua honetan, gatazka horren konponketa bideratzeko Europar Batasunak eskaintzen dituen aukerak aztertzen dira.¶



G A I N A G U S I A

# Euskal kultura 2009

**11** ALBERTO BARANDIARAN  
PANTXOA ETCHEGOIN  
PATXI GAZTELUMENDI  
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU  
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
LAURA MINTEGI  
FITO RODRIGUEZ  
ALLANDE SOKARROS  
ANDRES URRUTIA  
EGUZKI URTEAGA  
IÑAKI ZABALETA URKIOLA

**ALBERTO BARANDIARAN**

Urrian izan zen, Iruñean. Kondestableren Jauregian, XVI. mendeko freskoak, zaharberritutako pareta soilak, eta zurzko habe lustratu berriak inguruan. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak antolatutako ziklo baten lehen hitzaldia zen. Gaia, emakumeak eta literatura. Anne Perry egile ingelesa, gonbidatu nagusia. Interes handirik gabeko idazlea, hilketaz eta detektibez betetako nobela ugariren sortzailea. Agatha Christieren bigarren mailako ordezkoko bat, errespetu guztiarekin esanda.

Hitzaldia hasi besterik ez, eta entzule bat aulkitik altxa zen laugarren aulki-lerrotik. Ingeles bikainez, Perryri zuzendu zitzaion oihuka eta keinuka. Ez zuela hor egoteko eskubiderik, lotsagarria zela, ez ote zen konturatzen. Idazlea isildu egin zen. Gero, betaurrekoak jantzi, eta irainka ari zitzaion emakumea bilatu zuen begiekin. Aurkitu zuenean ez zen, antza, gehiegi harritu. Gela betetzen zutenen artean, berriz, marmarra berehala zabaldu zen. Eta harridura nagusitu zen gero, emakumeak pankarta bat atera eta, gaztelania ederrean, Nafarroako Gobernuaren diru publikoarekin hiltzaile bat gonbidatzea lotsagarria zela esan zuenean: berak ez zezakeela hori onar. Lehen uneko harridura gaindituta, antolatzaileek gela uztea gomendatu ziotenean, pankarta bildu, eta aretoa utzi zuen. Ondoren, Anne Perryk hitzaldiarekin jarraitu zuen, beste arazorik gabe.

Hitzaldia txarra izan zen. Antolatzaileek sormen prozesuaz hitz egitea nahi zuten, baina Perryk bere azken nobela idazteko editorearekin izandako eztabaidekin bete zuen ordu eta erdiko tartea. Luzeegia egin zen. Egia da tartean mis-

teriozko nobelagintzaz eta krimenei buruzko ikerketaz ere hitz egin zuela, eta horrek entzuleen jakin-mina pixka bat argitu zuela. Fedeaz ere mintzatu zen. Eta sinesmenaz. «Zertan sinesten dugun aurkitu behar dugu, eta behin zer sinesten dugun jakinda» esan zuen, «aurkitu behar dugu zer egiteko prest gauden hori defenditzeko. Armak hartu ere bai? Jendea hil ere bai?».

Perryk bere lagunminaren amaren hilketan parte hartu zuen 1954an, 15 urte zituela. Ingalaterran jaioa, Zeelanda Berrian bizi zen bi urte lehenagotik, aita Canterburyko unibertsitatearen errektore izendatu baitzuten. Han ezagutu zuen Pauline Parker, bera bezalako familia oneko nerabe ameslaria. Elkarrekin, etorkizun fantasiatsua asmatu zuten bi lagunek, baina Paulineren gurasoek bereiztekotan zirela eta Pauline bera Hego Afrikara bidali nahi zutela jakin zutenean, gorroto latza piztu zitzaien barruan. Orduan Paulineren amaren hilketa prestatu zuten. Egun batez, ibai ondorra paseatzera eraman zuten andrea. Epaiketan onartu zutenez, plan bat zuten: Annek andrea makurtzera behartu beharko zuen, lurrean bitxiren bat erakusteko aitzakiarekin, eta, orduantxe, Paulinek buruan kolpe bat joko zion. Bertan utziko zuten gorpua, eta gero istripua salatu. Kolpe bat nahikoa izango zela uste zuten bi gazteek, baina berrogei baino gehiago behar izan zuten. Heriotza-zigorretik gutxiatik libratu ziren: horretarako gutxieneko adina 16 urte ziren orduan. Bost urte eman zuten espetxean. Atera zirenean, Perry Ingalaterrara itzuli zen. Lanean hasi eta 1979an lehen liburua argitaratu zuen: *Carter kaleko borroeroa*. Geroago, beste hamaika idatzi eta kaleratu ditu. Misteriozko liburuak dira, batez ere. Behin baino gehiagotan defenditu du bizitzak bi aukera eman behar dituela, eta berak aprobetxatu duela bigarrena.

Roman Polanskirenaren auziaren aferaren garaian izan zen hitzaldia. Asko hitz egin zen orduan mendekuaz, denboraz, sortzaileaz. Eta gogoratu nintzen Kondestableren Jauregitik oso gertu, duela ez asko, Iruñeko Udalak erakus-

keta bat zentsuratu zuela, Joseba Sarrionandiaren liburu baten azala erakusteagatik.

Justiziaz, eta bigarren aukeraz, asko hitz egin da Veleiako afera amaiezinarengatik. Iaz ere, horri buruz jardun genuen. Azaldu genuen indusketa kudeatzen zuten arduradunak beren frogak erakutsi ezinik geratu zirela Arabako Aldundiak eztabaida akademikoa bukatutzat eman, Iruña-Olako aztarnategia zigilatu eta Eliseo Gil eta bere taldeko beste bi kide auzitara eramatea erabaki zuenean. 2009 ere horrela joan da, baina epaileen garaia da oraingoa. Egia da polemikaren eta eztabaidaren sua amatatuz joan dela, nahiz eta, aurten bakarrik, hamalau txosten berri kaleratu diren usatezko idazkunen egiazkotasunaren alde. Indusketako arduradun ohien defendatzaileek azpimarratu dute eztabaida ez dela amaitu, eta frogak berriak beharko lirakeela zirt edo zart egiteko. Aldundiak, berriz, tinko darraio bere bide orriari: hartutako erabakiak baliotzat eman ditu une oro, eta indusketa hemendik aurrera kudeatuko duen talde berria osatu du. Aurkitutakoaren gainean ez direla frogak berriak egin-goa nabarmendu du; ez behintzat epaileak horrela agintzen ez baldin badu.

Nago afera ez dela ondo amaituko. Irtenbide bakarra faltsutzailea aurkitzea litzateke. Baina, dudarik ez izan, horrekin ere egongo litzateke pieza guzti-guztiak faltsuak ez direla, eta horiek salbatu behar direla defendituko lukeena. Neurri batean, zorrotasun eta zurruntasun zientifikoaren zaleen, eta zientziaren ikuspegi aske eta, horrela esatea zilegi bekit, autogestionatuaren arteko eztabaida da. Autoritate akademikoari garrantzia ematen diotenak alde batean daude; hori existitzen duenik ukatzen dutenak, bestean. Auzi hori ez da Veleian konponduko.

Eztabaida kritikoaren beste adibide bat da Kirmen Uriberen *New York-Bilbao-New York* eleberriarekin gertatu dena. Nobela ikusmin handi batez argitaratu zen, baina, behin ka-

lean, kritika oso gogorrek jaso zituen. Ohi ez bezalako kritika latzak. Baina liburuak ondo funtzionatu du liburu dendetan, eta Espainiako Kritika eta Literatura sariak jasota, literatura-eztabaida amaituko zela zirudien. Kontrakoa gertatu da ordea. Indarra hartu du. Eta, Kirmen Uriberen liburuaz harago, sarien inguruko eztabaida serioa mahai gainean jarri behar dela erakutsi du. Gaur egun, bistan da, sarien politikak arrakalak baino ez ditu sortzen euskal literaturan. Ikusmira desenfokaturik proposatzen du, eta zerumuga iluntzen du, ezkutatu arte. Beharbada, literatura sistema oraindik ahulegia delako sariak, nahi eta nahi ez, ekartzen duten kanonizazioaren aurrean. Eta horrek sortzen dituen desorekak eta bidegabekeria literarioak ez direlako erraz konpontzen. Ez dago horretarako tresnarik.

Beharbada, moratoria bat eskatu beharko litzateke. Eta gogoeta sakona egin: zertarako diren sariak, zer funtzio betetzen duten, zer garrantzi duten, zeinek osatzen dituen epaimahaiak, nola. Beharbada, garaia da onartua izan ez ezik, prestigioa ere banatuko duen benetako literatura sariaren oinarriak nola jarri pentsatzen hasteko. Gainerakoei utikan kolektibo bat aldarrikatzeko.

Beharbada arazoa ez dira sariak. Beharbada arazoa pentsamendu kritikoa da. Aurtengo Zinemaldian, aurreneko aldiz, euskal zinemari eskainitako sail oso bat antolatu dute: Zinemira. Bertan, irizpide zabalen arabera aukeraketa egin dute: euskaraz zein erdaraz egindako film luzeak, film laburrak eta dokumentalak; estreinaldiak zein aurkeztutako lanak. Hau da, euskal zinema egileek Euskal Herrian zein atzerrian egindako lanen lagina, nolabait esanda. Filmen proiektioetan egon ohi diren kazetari guztien artean desosegu berdina nabaritu nuen: film txarra irudituz gero, nola esan. Zer hitz erabili, zer tonu. Tradizio falta dago, oso begi-bistakoa da. Ez da nahikoa denbora igaro, oraindik berriegia da dena. Egurtuz gero, irudi luke lagunari, ezagunari, traizioa egiten ari zaiola. Ematen du taberna zuloko sola-

saldietan entzuten direla, benetan, kultura honen gaineko analisi benetakoena. Eta kontrajartze ezinbesteko eta osasuntsu horren balioa, horregatik, alferrik galtzen ari dela errekatik behera.

Hori guztia aldatzeko gaitasuna ba omen dutenak badatoz hala ere. Ahotsenean elkartu ziren batzuk, eta literaturaz, blogintzaz, kritikaz, performanceaz eta zaharkitutako egituraz hitz egiten hasi ziren. Antzematen zaie keinuetan: ezagutzen dute gure tradizio hurbila, hau da, gure tradizio bakarra, eta nahikoa distantzia hartzeko prest daude. Atzerri-  
tik idazten dute, edo ez behintzat zentrotik, ez behintzat autozentsura gogorra ezartzen ohi duen gertutasun kutsakorretik, eta, horregatik, haiek baino lehenago hasi zirenen aldean, askatasun handiagoa dute. Prest daude aita garbitzeko, behar baldin bada. Eta baten bat hasi da jada. ¶



## PANTXOA ETCHEGOIN

### **Atzokoak gaurkoa hazten du...**

Ez da erraza urte bateko harat-hunaten aipatzea euskal kultura mailan. Ez dezaket Iparraldean iragan gertakari guztiak zerrenda, oro har urte aberatsa izan baita, nola sorkuntzarentzat, hala hedapenarentzat. Halere, saiatuko naiz zenbait ekintzaren berri ematera.

Hautu horien artean, lehenik erakutsi nahi nuke zer nolako egitasmo ederrak eraman litezkeen Iparraldeko eta Hegoaldeko artistekin elkarlanean, *Hil harritik harri bizira* sorkuntza eredutzat hartuz. Gero, dantza, musika eta kantua-  
ren alorrak jorratuko ditut, eta azkenik, ahozko bilketa aztertu ondoan, euskal kulturaren zerbitzuko ezarri ditugun hiru tresna berri ezagutaraziko dizkizuet.

Mugaz gaindiko kultura harremanak indartzen ari ditu Euskal kultur erakundeak. 2009an, hainbat ekimen alhan ezarriak izan dira, hala nola Azpeitian, euskal antzerki topaketetan, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, Andoainen, eta nolaz ez, Durangoko liburu eta disko azokan.

Halaber, joanago eta gehiago, Hegoaldeko artistek parte hartzen dute Iparraldeko kultura egitasmoetan.

Adibidetzat, nahi nuke aipatu udaberrian iragan den egonaldi berezia, Larzabaleko herrian, Behe Nafarroan.

### ***Hil harritik harri bizira***

Euskal kultur erakundeak galdeginik, Oreka Tx taldeak sorkuntza bat apailatu du, harria hartuz oinarri gisa.

Larzabalen egitea ez da kasualitate hutsa izan, hor baita duela guti irekia, harri borobilen interpretazio zentroa, urte guzian bisitatzen ahal dena.

Biziki laster, gaiak Oreka Tx taldearengana eraman gaitu, eta hortik sortu da artista egonaldi baten antolatzekeo ideia, harria molde ezberdinez biziartzeko asmoarekin.

Ikusgarriari datxikola, proiektuaren beste atala eskola, ikastola eta kolegioko ikasleen parte hartzea izan da: orotara berrehun bat ikasle, Manex Erdozaintzi Etxart kolegiotik, Oztibarreko ikastolatik eta herriko eskolatik.

Harriaren biziartzeko, gazte eta hurrek ekarri harri baina moldatu dute, margotuz, idatziz edota gauzak itsatsiz.

Larzabaleko emanaldian agertu diren artistak mugaz bi aldeetakoak ziren, eta hori oso aberatsa izan da. Horien artean, Xumai Murua bertsolaria, Igor Otxoa eta Harkaitz Martinez txalapartariak, Piarres Erdozaintzi zizelkaria, Maialen Errotabehere kantaria, Kukai taldeko Vanesa eta Nerea dantzariak, Janire Pandelo harri-zulatzaila.

## Bi dantza sorkuntza

Ipar Euskal Herrian, dantza taldeek, orokorki, zailtasunak ezagutzen badituzte ere, urtez urte beti zerbait berria eskaintzen digute. Hemen eta orain bi sorkuntza aipatuko dizkizuet, besteak beste, Euskal kultur erakundeak sostengatu dituenak.

Lehena, *Aurrez aurre*. Aspaldiko urteetan, Claude Iruretagoiena euskal dantza munduko maisu bat dugu, hau baino lehenago Filipe Oihanburu eta Koldo Zabala izan diren bezala. Luzaz hurrekin lan egin du eta oraindik ere gogoan ditugu haren bi obra: *Ixtorio mixterio* eta *Xirula Mirula*. Aldi honetan, helduek dute dantzatzen eta azpimarratu behar dugu bi talde elkartu direla ikusgarri berriaren apailatzeko: Iparraldeko Maritzuli eta Bizkaiko Meatzalde konpainiak.

Claude Iruretagoiena koreografoari asko gustatzen zaizkio Euskal Herriko ohituretan aurkitzen diren binakako



apustuak, hala nola bi bertsolari ari direnean bakoitzak bere arrazoia defenditzen, edo bi pilotari, bakoitzak bere tre-bezia erakusten; eta dantzak ere lehiatzeko parada ematen die dantzariari.

Sorkuntza honek belaunaldi ezberdinetako dantzariak eta gure inauterietan oinarritu dantza mota franko erakusten dizkigu, ondoriotasun bizi baten lekuko. Jantziak ere, ezinago apainak dira, liluragarriak. *Aurrez aurre* ikusgarrian, orotara 45 dantzari dira eta estreinaldia Donibane Lohizunen egin zuten, 2009ko martxoan.

Zuzendari lanetan laguntzeko, Claude Iruretagoienak bere semea hartu du, Jon, gainera biziki dantzari ona dena.

Bigarrena, *Urraska*. 2009ko urtarrilean Baionako antzokian estreinatu ikusgarri honek 1910 eta 1960 urteen arteko Hego Euskal Herriko familia baten zorionak eta zorigaitzak agertzen dizkigu, bost agerralditan.

Historiaren asmatzailea Benoît Lamerain getariar gaztea da, eta testuaren idazlea Koldo Ameztoi, koreografoa aldiz Pascale Lascano-Etchave anderea.

Dantza guztiek, antolaketa eta aurkezpen berri batean oinarrituz, munduko folklore desberdinak lekuan lekukoarekin partekatzen dituzte, ahalaz euskal musikaren izpiritua errespetatuz.

Zarena zarelako taldeak apailatu duen lehen ikusgarri honetan, hoguei dantzari badira (hamar neska eta hamar mutil), baita bederatzi musikari ere, taularen gainean zuzenean ari direnak.

Bildu duten arrakasta ederrak bultzaturik, Pascale Lascano koreografoa berehala beste ikusgarri baten prestatzen hasi da eta datorren udaberrian ikusi behar genuke. Izenburuzat *Goazen* ukanen du.

Bai, goazen beti aitzina, dantza pikoak berritzen, sorkuntzari «ongi etorri» egiten!

Dantzatik pasa gaitezen orain musikara, eta hobeki erran, Baigorriko organoaren inguruan eginiko sorkuntza komuna.

## Alpbarock Euskal Herrian

2009ko irailean, Suitzako Alpbarock taldea (hau Yves Rechsteiner-ek sortu taldea dugu) Baigorriko elizan zuzeanean aritu da lau musikari euskaldunen laguntzarekin. Topaketa berezi bat, *Rémy Mahler* organoaren hamargarren urtebetetzea kari antolatua izan dena.

Badu orain hamazazpi urte Orgue en Baigorri elkarteak musikaren alde lan egiten duela Behe Nafarroan.

1999ko abenduan estreinaldi festibala ospatu zuenetik, elkarte etengabe aritu da musikaren eta bereziki organoaren maitasuna goraiatzeko.

Hamargarren urtebetetze honen karietara, Suitza aldeko talde hori gomitatua izan da, lagunarteko topaketa artistiko bereziaren antolatzeke Euskal Herriko ohiko musika jotzen duten euskal artista batzuekin.

Horrela, bi musika tradizio (ahozkoa eta idatzia), bi kultura (suitsarra eta euskalduna), musika ikusteko bi ikuspegi, gurutzatu dira, ikusgarri berria sortzerakoan. Emaitza arras joria izan da.

Alpbarock taldea osatzen zutenak ziren: Yves Rechsteiner (organoa), Nikita Pfister (Hackbrett, tinpanoia), Nicolas Sansarlat (biolina), eta Guillaume Olry (kantua).

Euskal Herritik, lau artistek parte hartu dute: Maddi Oihenart, Thierry Biscary, Karlos Subijana eta Paxkal Indo kantari eta musikariek.

Hiru kontzertu eskaini dituzte Baigorriko elizan, eta antolatzaileen xedea da hedapen handiago baten egitea, heldu den urtetik goiti, Euskal Herrian, eta Euskal Herritik kanpo.

## Jean Errecart ohoretan: *Ze bolada!*

Jean Errecart (Oragarre, 1909 - Paris, 1971), Amikuzeko politikaria zen (auzapeza, kontseilari orokorra, diputatua eta senataria). Bere garaian, gizon garrantzitsua izan zen, Ipar Euskal Herriko laborantzaren berritzen lagundu baitzuen.

Bere bizi guzian, laborarien formakuntzen eta etxaldean mekanizazioaren alde borrokatu zen, bai eta etxetiaren eskubideen alde. Bera izan da Lur Berri kooperatibaren sortzailea, bai eta ere Donapaleuko formakuntza eskolarena, gaur egun «Institut Jean Errecart» deitzen dena.

Pier-Pol Berzaitz kantariak zuzendu *Ze bolada! Jean Errecarten so begiz* ikusgarriak erakusten du Jean Errecart nola bizi izan den urte haietan, eta zer eragin ukan duen bizitza publikoan.

Bi oren baino gehiago irauten duen ikusgarri honetan, hogeita hamar bat artista eta aktore badira, horien artean, Karlos Gimenez piano-jotzailea eta haren orkestra, Aukeran konpainiako dantzariak eta Edu Muruamendiaraz koreografoa, eta Allande Boutin kazetaria, ikusgarrian ikusten ahalko den bideo-dokumentalaren egilea.

Alabaina, horrelako oroimenak gaurkotzeko, memoria kolektiboa baitezpadakoa dugu.

Ondorioz, Euskal kultur erakundeak alor berezi horretan lan egiten du aspaldian, eta berezikiago, bizpahiru urte hauetan.

## ***Eleketa* programa: ahozko ondarearen bilketa Iparraldean**

Ondarea, jendarte baten nortasuna osatzen eta jendarte hori besteetatik bereizten duten osagai material eta immaterial guziez osatua da. *Eleketa* programa ahozko ondarean oinarritzen da (bizipenen eta jakitateen kontaketak, kantuak eta elezaharrak...): horren biltzea, artxibatzea eta hedatzea du helburu. Lekukotasunak euskaraz bilduak dira.

Hastapenetik, 2007ko urtean hain zuzen, Euskal kultur erakundeak bilketa eta artxibatze metodologia zehatz bat alhan ezarri zuen. Metodologia horren lehen urratsa izan zen aholku batzorde baten sortzea, tokian tokiko lekukoen eta gai garrantzitsuen identifikatzeko.

Lekukotasunak numerizatuak, sekuentzian zatituak eta tratatuak dira Baionako Artxibategian (besteak beste) entzuteko eta ikusteko gisan.

Altxor horiek eskoletako haurrei eta publiko zabalari ezagutarazteko, hainbat ekintza eramaten ditu Euskal kultur erakundeak.

Halaber, hedapena eta balorapena garrantzitsutzat dauzka, bereziki hurbileko hedapena. Nahi dugu jendeak entzun eta ikus ditzan lekukotasun horiek, tokian berean, bizikidetasunean.

Horretarako, Amikuze aldean egin hogeita hamar bat lekukotasun sartu ditugu, *Eleketa* deitu erakusketa interaktiboan, horiek entzungarri direlarik Donapaleuko mediatekan, 2010eko urtarrilaren 16ra arte.

Lekukoek Amikuzeko gai bereziak aipatzen dituzte (etxe-tiargoa, feriak eta merkatuak, zaldi lasterketak, zuraren lana, formakuntza eta laborantzako garapena) beste gai orokorren artean (Elizaren urratsak, jakinduriak, ofizioak).

Halaber, Interneten ikusten ahalko dira, [www.eleketa.com](http://www.eleketa.com) gunean.

Teknologia berriak solasgai baititugu, urrendu nahi nuke ene ekarpena, aipatuz hain zuzen Euskal kultur erakundeak aurrean eraman duen lan handia, nola euskal artisten ezagutarazteko, hala ikusgarri gela eta sorkuntzen sarean ezartzeko.

## Hiru tresna berri Internet sarean

Informazio bilketa handi bat eraman ondoan 2009ko udaberrietik gaur arte, Ipar Euskal Herriko euskal sorkuntza artistikoaren eragileak, ekoizpenak eta tokiak hobeki ezagutzeko Internet zerbitzu berriak proposatzen ditu Euskal kultur erakundeak.

Iparraldeko euskal kultura eragileei, ekoizpenei eta sorkuntza guneei buruzko argibideak hedatzeko, Euskal kultur erakundeak erreferentziazko hiru tresna ezarri ditu sarean [www.eke.org](http://www.eke.org) atarian:

- Euskal kulturari ari diren artisten datu-base bat (kultura elkarteak, irakasleak, hedatzaileak, teknikariak...);
- Euskal kultur erakundeak lagundu sorkuntza artistikoak, 2009tik goiti hedatzeko prest direnak;
- Iparraldeko ikusgarri-gelak, hornituak direnak sorkuntza artistikoentzat, baina ere ikusgarriez bestalde, beste ekitaldi mota batzuk hartzen ahal dituztenak (dantzaldiak, bestak, mintzaldiak...).

Orain arte, 500 artista eta kultura eragile fitxa sailkatuak dira, halaber dozena bat sorkuntza eta hogeita hamar bat ikusgarri-gela.

Erran gabe doa ekimen hau hastapen bat baizik ez dela, horrelako sareak egunero eraberritu behar baitira.

Euskal kultur erakundeak jarraipen lan hori segituko du, eta aberastuko ondoko hilabeteetan, euskal kulturaren baliabide-zentro emankorra izan nahi baitu.

Ez da nahikunde bezalakorik gure hitzak obra bilakarazteko!¶



PATXI GAZTELUMENDI

## **Egunkaria libre!**

Bi hitz, mila adierazpen batera adierazteko. 90eko hamarkadarekin batera Euskal Herriak ezagutu zuen komunikazio proiektu euskaldunak zer kontatua ugari izan du. Egunkaria albiste izan zen sorreratik bertatik, albistari gero; urteak aurrera, euskaltzale, kazetari, irakurle, kulturgile, euskaldun askoren erreferentzia eta goizeroko informazio jario emaille. Goizero, egunero... gau batez moztea erabaki zuten arte. Lekutan dago otsailaren 20 hura, baina bart izan balitz bezala gogoratzen dugu oraindik. Zelan ez dugu ba gogoratuko? Zelan ahaztu hutsune hori? Eraso latza euskal munduari, erreferentzia bilakatutako egunkari bat, erabaki juridiko-politiko-polizial batek erditik kendua. Latza da sinestea, eta ezintasun horretan jarraitzen dugu oraindik. Historikoa izan zen, euskarazko prentsaren alde, orduan ere eman zen erantzuna eta egin zen indar eta asmo bilketa beste egunkari berri bat sortu eta aurrera ateratzeko. Horretan dihardugu geroztik. Baina Egunkariaren alde egotea dagokigu oraindik. Gurean, urteak hasi eta amaitu Audientzia Nazionalean egiten dira. Euskal egutegiak hori du, orriak pasa arren, beti zita bera dugula, zoritxarrez. Hamaika proiektu, antolakunde, instituzio, elkarte eta hedabidetako lagun, ehunka euskaldun epaitzen dituzte, gaur bai eta bihar ere bai. Herri asmo eta eginkizunetarako sortutako proiektuak guztiak, Euskal Herria izateko eta ardatz dituztenak. Horrelakoa da Egunkaria ere, beraiek ez ulertzen saiatu eta euskaldunak hori eta gehiago azaltzen ahalegintzearen ere.

Egunkaria, zazpi urteren buruan, Madrilen epaitzen ari dira. Sententzia ez dago idatzia. Baina euskaraz ezin idatzita egon gara urteotan. Euskarazko papera ezin irakurrita. Itxi zuten, eta itxita dirau. Ozen aldarrikatu genuenak, gero eta oihartzun handiagoa du gainera. EpaiKETARI aurre egin eta Egunkaria libre! aldarrikatzen milaka eta milaka euskaldun batu gara Bilbon ere. Euskal Herriko hamaika bazterretatik hurbildutako euskaldunak, euskaltzaleak. Madrilen bi egunez auzitan izan dituzten bost euskaldunek, Egunkariako langile, akzionista eta bultzatzaileek sekulako babes jaso dute. Bi hitz, baina zelan azaldu hori guztia, berriz Madrilerera joan, eta auskalo noiz eta zelan itzuliko den ez dakienari. Bi hitz, Egunkaria eta libre, eskubide behar duena aldarrikatzeko. Adieraztea, sentitzea, ikustea, sinestea... Egunkaria libre.

Itxi zutenean, sarean elkartasun olatu ederra sortu zen. Orduan, informatzea, salatzea, inprimatutako letra bakoitza munduari erakustea zen helburu. Orduetik, Internetek berak ere zabalkunde gehiago eta garapen itzela izan du. Sozializazioa eta teknika uztartzeko gunea da sarea, eta euskaldunok ere, lantzean behin arreta osoa jartzen diogu sareari. Ez beti, baina gero eta gehiago. Egunkariaren aferak ere, zentralitatea lortu du, dezentralizazioan oinarritzen den web sistema honetan. #Egunkaria eta #libre etiketak inoiz baino gehiago erabili ditugu. Mezu laburretan ozen aldarrikatu ditugu bi berbok. Mundu bat azaldu dugu bi hitzetan. Sare sozialetan, blogetan, eduki webgunetan mezua zabaldu, eta loturak egin izan ditugu. Azalpenak hizkuntza ezberdinetan, elkartasun mezuak jaso eta igorritz. Eta sareko aktibitatea, euskararen, prentsaren eta askatasunaren aldeko jardun bilakatu da. Modu etengabe. Horrek ere, abenduaren 19ko manifestazioaren inguruan abiadura, erritmo, bilakaera sendoagoa hartu zuen. Informazioa oinarri izango duen gizarte baten atarian, euskarazko informazioaren aldeko jarduna sareratu da batik bat. Eta horretan, adin, pentsaera, estatus eta ogibide ezberdineko jende euskaldunak bat egiten jakin du. Ez da gutxi.

Sarean zeharka jarduteko joera nagusitzen ari den honetan, Internet izan daiteke agian horrelako bilgune erraldoi bat. Eta Egunkariaren kasuan, hiru munduak ondo uztartzen eta elikatzen ari direlakoan nago. Kalea, papera eta sarea. Jendea: lehen espazioa, euskarazko produktuak bizi dituen, irakurlea, euskaltzaleak. Papera, ekoizpena, euskarazko produktu informatiboa: bigarren espazioa. Eta azkenik sarea: guztiaren bilgune, pertsonak eta euskarazko ekoizpena.

Sarean egiten den lana batzuetan ikusezina da. Kodea hartu eta aldatzean datza. Kode gehiago sortu, eta agerian jarri. Kode irekiko lanean bezala, sortu eta aldatu. Garatu eta eza-gutzera eman. Orain ere Egunkaria libre eskatzeko aldarri honetan, hamaika lagun ibili da lanean. Sarea astintzen, sareari euskarazko sorkuntzaren bisualizazioa ematen. Sortzea ez da nahikoa, ezagutarazi egin behar baita. Ikusgarri jarri, patxadaz, guztion eskura. Eta Bilboko manifestazioaren atarian *egunkarialibre.info* sortu izanak, ematen du eza-gutzera bai, Egunkariaren alde ez dagoela soilik Egunkaria sortu eta mantendu zutela... mundu bat dagoela horren atzean. Eta *egunkarialibre.info* izan da esperientzia positibo bat, ez bakarra, alde horretatik. Etxean ditugun tresnak baliatuta; ordenadoreak, mugikorrek, argazki kamerak, irrati gailuak... Ikuspegi multimedia eta librea uztartuz, edozelango euskarritan Egunkariaren aldeko informazioa eta aldarririk zabaltzea. Telebista herritar bat, Bilboko manifestazio-ko irudiak telefono mugikorrekin hartu eta zuzenean eskaintzeko. Irrati euskaldun bat, Bilbotik Euskal Herrira, mundura kaleko berri emateko. Mezu laburrak, sarean hedatzeko. Webgunea guztia batu eta sarean ikusarazteko. Multimedia kontzeptuak, sarritan, korporazio handiekin lotzen ditugu. Baina guk geuk ere landu dezakegu esparru hori, irudimen, gogo eta auzolanaren bitartez. Hori egin da Egunkariaren alde, horretan dihardu hainbat lagunek. Ekinen ireki, zabal, ikuspegi teknikitik (software librea, eduki libreak, parte hartzea) zein sozialetik. Mediaktibismoa, finen, hedabide euskaldun baten alde jorratua. Komunikazio



librearen esparruan, euskarazkoa txertatuz. Jakintza librearen sasoian, hackintza librea sustatuz. Eta gurean, gainera, euskaratik eta euskaraz.

## **Euskaratik eta euskaraz**

Maialen Lujanbioren azken hitzak ekarri gura izan ditugu hona, zelan ez. Euskal Herriak bertsolari txapeldun berriarekin amaitu duelako urtea, besteak beste. BEC ezin beteago batean, goizean hasi eta iluntzera arte euskarazko atmosfera berezi bat bizi izan zelako. Urrian hasitako txapelketak, plazaz plaza, astez aste lortu duenaren irudia izan da beste behin Barakaldokoa. Faktore asko eta interesgarriak daude kultur adierazpen moderno bezain aspaldiko den bertso-gintzan. Lehiaketa eta plaza, kantua eta sorkuntza, belau-naldi bat eta besteak, euskara eta Euskal Herria. Euskaratik eta euskaraz, herria sortzen jarraitzeko aldarria bota zuen hernaniarrak txapela jantzi osteko bertso gogoangarrian. Gogoan hartu bakarrik ez, ipar bat ere markatzen du Lujanbioren agurrak. Euskal Herrian eta kulturaren esparruan zeregin ugari dago. Baina bi klabe horiek uztartuta, euskaratik eta euskaraz, badago non eta zelan lan egin. Hemen ez da ezer berez sortu eta ernaltzen. Berezko gutxi dago. Sortu eta bultzatu, ahalegindu eta saiatu beharra dago. Eta hizkuntzaren inguruan garatzen den kulturak, sorkuntza, guztion indarra, sostengua, irudimena eta laguntza behar du. Ez modu karitatiboan, ez ikuspegi ekonomizistan... besoa luzatu beharra dago. Poltsikotik, eta pentsamendutik; lanetik edo jarraipenetik. Euskaratik eta euskaraz, badago zer sortu, mantendu, eutsi, lagundu, indartu, zabaldu eta garatu. Bertsoa aipatu, baina izan daiteke musika, literatura, moda, zinema, komikigintza, arte plastikoak, ikus-entzuzkoak, prentsa, Internet, kirola...

Bakoitzean eta guztietan daude beharrianak, hutsuneak, betebeharrak, asmoak, gogoa, ilusioa, eta debekua ere bai. Herri bezala jarduteko, asmoei borondatea jarri eta urratsak

ematen jarraitzeko inoiz ez da berandu. Eta pentsatzen jarrita, guztietan aurreratu daiteke, guztietan ari gara iparra zehazten, badagoelako nondik eta zelan ibili.

Gertutik ezagutzen dudan bat aipatuko dut nik, abiatzearen. 2009an euskarazko literatur sorkuntzari plaza bat eskaini zaiolako, euskaraz sor eta irakur daitekeen literaturak plaza bat irabazi du, urteetako lanaren podasuz gure herrian. Literaturia sortuz, euskal literaturaren uri bilakatuko dugu urteen joan etorrian gure herria, Larrabetzu. Asmo xumea den arren, helburu handi bat du hasieratik. Egileak, idazleak, editoreak, irakurleak, kritikariak... publikoa euskarazko liburuen inguruan batzea asteburu batez. Helduak eta gazteak, umeak eta gurasoak auzoan, parean liburuak direla. Erakusgai eta salgai, irakurri eta aipatzeko moduan. Ekimen xumez hasi da. Asteburu osoko dinamika kulturala, herria astindu duena euskarazko testu, antzerki, musika, agerraldi, blogari, liburu elektronikoko, hitzaldi, erakusketa eta abarrek. Euskarazko literatura ardatz hartuta. Asteburu bat, euskaraz. Literaturia. [www.larrabetzu.org/literaturia](http://www.larrabetzu.org/literaturia).

Adibide handi eta txikiak aipa genitzake.

Euskararen herriak behar dituelako adierazpideak, berriak, behar ditu guneak eta asmoak. Sorkuntza eta zabal-kundea. Beti ari gara hasten. Hazi nahi badugu, mantendu, erakutsi eta zabalduz. Euskara ere plaza bat da, azoka bat. Baina ez luke soilik merkatu legeak markatu behar. Horrek zelanbait merkatu egiten duelako gure jarduna. Ez dakit nik hizkuntza eta bere inguruko sorkuntza, excel artxiboetan soilik neur daitekeen eta.

## Excelgintza

Eta nago ni azken urteotan, excel eta kalkulu orriak gailendu ote zaizkion sorkuntzari. Euskalgintzako sektore asko, gehienak esango nuke nik, adiago daudela subentzioari eta diruaren iturriari, sorkuntza eta hedapenari baino. Euskararen inguruko mugimendua, azken hamarkadetan definitu

beharko bagenu, ziur pertsonak, ideiak eta lana izango lira-teke aipatuenak. Orain, baina, euskalgintza definitzerakoan, erakundeak, diru laguntzak eta liberatuak aipatu beharko zիրurenik. Bai, eta ahaztu aurretik, krisia, gobernu aldaketak, desmotibazioa, nekea... aipa dezake baten batek. Kalkulu orriek, kalkulatu ezin dituzten bariante asko ditu gure herriak. Jendea, aktibistak, militanteak, eragileak —deitu gura duzuen moduan— sortzeko gaitasun eta potentzialitatea. Eta horiek balantzeetan sartzea ahazten zaigu sarritan. Euskaraz bizi gura dutenen artean sortu diren egitasmoek, gero eta puntu garrantzitsuagoan dute bideragarritasun ekonomikoa, diru kontuak, subentzioak, akordioak, soldatak eta numeroetako kontuak. Eta euskara gehiago da hitza, letra, jendea, pertsonak, elkarrizketa, gaitasuna, pentsamendua, lana, antolamendua, gogoa, ilusioa. Eta horiek zenbakitara ekartzea kosta. Nahiz eta horiek jartzen dituzten gero dantzan aurrekoak. Euskara eta merkatua oraindik ez daude lehiarako. Eta bitartean euskarazko telebista bat itxi da Nafarroako eremu euskaldunetako batean, euskarazko aldizkari batek gero arte esan du non eta Gasteizen. Eta ahul sentitzen gara. Euskararen alde lan egiteko moduak aldatu diren neurrian, tentsioa ere gutxitu egin da. Normalizazio lanean ari, eta normaltzat hartzen dugu ia-ia gure patu hori. Bilbon bertan ere, bi euskarazko herri aldizkari ataka zailan heldu dira 2009ko gabonetara. Borondatez ari diren kazetari eta kolaboratzaileek, pronostiko ekonomizista galtzaileei aurre egin, etsipenari buelta eman, eta jarraitzea erabaki dute. Gogoa eta ilusioa, XXI. mendeko hiriburua euskalduntzeko gogoan. Euskara ere plaza bat delako. Merkatu eta plazetan euskara beti egon da presente, baina euskararen beraren merkatua ez dago salgarri. Egongo dira euskararen kontura negozio handiak egin dituztenak, egiten dituztenak, baina bestelako klabeetan eraiki behar dugu euskararen plaza. Salerosketatik harago, modu humanoago batean. Harremanetan, trukean, esperientzien bilaketan, kode irekiaren logikan, ondokoa lagundu eta ezagutzearen ideian

oinarrituta. Informazio eta jakintzaren gizarterantz goazen honetan, merkatuaren ikuspegi neoliberala ezin zaio gailendu kultura eta sorkuntza euskaldunaren esparruari. Zailtasunak zailtasuna, beharrizanak eta hutsuneak begi bistakoak diren arren, pausoak emateko moduan gaude, aurrera begira. Euskal Herria izango bada jakintza eta informazioaren eremu, beste norabide batean jarri beharko dugu geure jardun hau, ezingo dugulako gure egiteko guztia hipotekatu ataka ekonomikoaren pentzura. Hori baino askoz *aberatsa-goa* baita euskararen sarea.

## Euskararen sarea

*Abiadura Handiko Tresna*. Sarea eta euskara. Euskara sarean edo sarea euskaraz. Konbinazio ezberdinak ematen dituen hitz pareak. Bi hitz. Euskara eta sarea. Bernat Etxeparek euskaraz jalgi gintuenetik, plaza, kalea, mundua egin ditu euskarak. Ez da gutxi. Ez dakigu asko den. Zenbat kostatu den bai, zenbat lan egin eta egiten den ere bai. Zenbat... neurtezin bat. Eta, euskararen alde, sarea daukagu orain. Euskarazko ekoizpenak, informazioa, jakintza, jolasak, entziklopediak, denbora pasa, harremanak, eskolak, kontzertuak, musika, irratia, telebista... horrek guztiak lekua du sarean. Lekua egin egin du, kostata. Softwarea garatu eta euskalduntzen, edukiak sortu eta banatzen, jakintza hartu eta sozializatzen, denbora eman eta eskaintzen... inoiz ez bezalako tresna daukagu. Abiadura handiko tresna da. Eta batzuetan badirudi mendiak zeharkatuko dituzten zubiekin, baserrietako eremuak zapalduko dituzten hegazkin hegalariekin egiten dugula amets euskaldunok, aurrera doan herri honetan. Eta abiadura handiko beste tresna hau ezin hartuta sumatzen ditut asko eta asko. Agintariak bezala, aginduak ere. Nekeak jota. Kexati. Beldurri. Etsaituta.

Eta, bat-batean, urteetan deus egin ez dutenak bilakatzen zaizkizu sareko zaindari. Azkue fundazioa edo Loiolako Ignazioaren gerlariak. Euskara sarean josteko, txo! A ze zuloa

egin duen euskarak, holako sastreak izateko. 180.000 euro Azkue fundazioaren marketing kontuetarako... beraiek bere webgunean lehen astean jarritako datu bat, gerora gorde edo ezkutatu dutena. Bizkaiko diputazioaren eskutik, sarean euskaraz zer esateko baduten Euskaltzaindia, Deustuko Unibertsitatea eta EHU-UPVrekin batera. Bizkaiko euskararen erreferentziak sarean, bai horixe. Ez euskarazko AEK, gaueskola, Gabriel Aresti, Bilbo Zaharra, Kafe Antzoki, Labayru, euskara elkarten topagune, bertsozale eta bertsolariak, sareko proiektu anitz... Ez, unibertsitateak eta eskaeraren akademiak batu eta josi ditu Azkueren akademiak. Hori omen euskararen sarea gurean. Orratza ipurditik sartu baligute bezala. Pintxoak, Bilboko alkatea eta Bizkaiko diputatua Euskalduna jauregian, eta ogi birrinak batu gura dituen euskaltzale peto andana tartean, aupa, aupa, aupatu nazazue, hemen gaude, zuek ondo? gu ere bai. Euskara sarean, esango dizute gero.

Bien bitartean, ezelango xentimorik eskatu barik, euskarak izan duen entziklopedia handienetako batek 50.000 artikulua batu behar ditu aurki. 50.000 artikulua boluntario. Jakintzatik eta ikastetik eginak. Unibertsitateko irakasle, ikasle, eskolako kontserje edo informatikari zaletuk eginak. Kudeaketa irekian oinarritua, modu zabalean administratua. Munduan bezala, jakintzaren sozializazioaren eredu da wikipedia. Euskaraz ere bai: *eu.wikipedia.org*. Erraz esaten da 50.000. Errazago esaten da 0 euro. 0 zentimo. Ez dute ulertu. Zelan ulertuko dute ba? Abenduaren 13an bertan, BECen geundela. Maialen Lujanbiok bere agurra bota aurretik, wikipediak eguneratuak zituen Txapelketa Nagusiari buruzko informazioa eta Maialen Lujanbiorena berea. Txapeldun berria ageri zen entziklopedian. Argazki eta bertso libreekin hornitua ageri da orain. Guztiontzat. Euskaraz munduan, garen bezala. Agertu gura dugun moduan.

Euskararen sare horretan, gero eta bisibilitate gehiago irabazten ari dena euskal blogosfera da. Blogak duela bost sei urte sortzen hasi, une gozoak bizi, iraun eta tinko manten-

tzen den esparrua da. Sorkuntza, ideiak, iritziak, afizioak, informazioa uztartzen. Bat-batean, denbora errealean kontatuz gertakizun eta gertaera oro. Afiziotik gehiago ofiziotik baino. Euskarazko letra inprimatuak baino, euskarazko bit argitaratuak dira. Inoizko gehien. Eta balizko irakurle elektronikoa hor dago, egotekotan, sarean. Eta ez liburu elektronikoa ezin garestiagoak erosteko lerroan. Ez gaitezen tronpa. Irakurle elektronikoa, bulegoan, pantaila aurrean, etxean, sutondoan pantaila txikian euskaraz irakurtzen ari den hori da. Eta euskal blogosferak, bereziki, jaten ematen dio irakurle horri. Egunero, une oro. Eta euskaraz. Euskaratik. Horregatik bereziki poztu nintzen euskararen nazioarteko egunean hackin badakigu taldeko kideek *euskalblogosfera.org* agertu zutenean, euskaraz zer sortzen den erakusten duen agregatzaile libre eta euskaldun bat. Klik bakarrera gaude hor, gero eta gehiago. Begiratu bakarrean ikusiko dugu zertan ari den nor. Zein den gaia, zein puntua. Eta irakurleei horrelakoak eskaintzean dago afera, sortzen dena erakutsiz, gehiago sortzeko, elkar ezagutzeko. Eta blogosfera horretan, sortu da beste proiektu interesante bat ere: *zuzeu.com*. Norberak esateko daukana aukera ematen duen Interneteko albistei berezi bat, parte hartzailea, une oro adi-adi jarraitzen dituen albisteak bezala joerak eta tendentziak ere. Sareko proiektua, erredakzio digitalarekin, distribuitua, profesionala izateko sortua, sare handiarekin. Zu zeu. Interneten balio handiena duen hitzetik abiatua: ZU. Hitz ikaragarri garrantzitsu bilakatzen ari dena. Ondoan beste hitz batzuk ere izan ditzakeena. Gu, edo gurago baduzue, ni. Edo nik; nickdutnik ezagutu dugu ere, telebistan. Eta sarean. Edo bietan? Bai bietan ezagutzen eta ikusten ari gara ETB3ko saioa: *Nickdutnik*. Telebista saio bat, Interneteko aktualitatea, proiektuak, jendea, albisteak. Webtv bat. Txukuna, eredugarria, esperimentaziorako aproposa. Jendearekin elkarrizketa digitalean airtzen dena, aste osoan zehar, ez soilik emisio orduan. Sare sozialetan trebatzen ari dena, elkarrizketetan parte hartuz, iritzia emateko lekuak irekiz, esparru berri bat ikus-entzunez-

koen giroan. Euskaraz sortu eta ekoiztua. Beste hizkuntzei ere lekua egiten diena. Audientzia interesgarriak eskaintzen dizkiona euskarazko sareari. Eta telebistan. Aipagarria den ETBren hirugarren katean: ETB3.

## **Ez bat, ez bi; ETB3 aitzindari**

Euskara, jendea, kalea eta sarea. Euskara eta etxea. Euskara eta hiria. Euskara eta sorkuntza. Hori guztia batzeko asmoa ikusten diot euskarazko kanal tematiko kulturalari, etebehiruari, alegia. Gurean gehien ikusten dugun telebista da hori. Hamaika ezin ikusita, hirugarrenean geratu gara. Kultur edukiekin harrituta, saio ezberdinak, ikuspegi anitzagoak, euskaraz, zuzenean, elkarrizketa sakon eta luzeagoak. ETB3 euskalduna eskatu eta eskatu aritu garen telebista eredu izan daiteke. Batzuek eskuak buruan dituzte oraindik, gobernua aldatu eta telebista eta irratietako zuzendariak aldatu dituztelako. Gorabeherak gorabehera, erregeen diskurtso edo Ardanzarenak, Surio edo Zupiria, telebistaren funtzioak ez dira asko aldatu. *Mihiluzek* jarraitzen du mihia astintzen, *Goenkalen* korapiloa ez da askatzen, eta informatiboetan lehengo beste edo gehiago manipulatu da. Eta? Euskaldunok behar ditugu espazio propioak, loturak, harremanetarako guneak. Eta txikienarekin geratuta ere pozik egon behar dugulakoan. Alde horretatik, iruditzen zait euskarazko kultur espresioek inoizko leku gehien irabaziko dutela kanal berri honetan. Hasiera mantsoa izan du, aurrekontu aldetik mugatuena izango da, baina esperientziak erakutsi du zertarako eta zelan kudeatzen ari diren. Eta hor profesional onak ezagutu ditugu, ezagutzen ari gara. Bertso programak, literatura saioak, musika emanaldiak, artea, bidaiak, teknologia berriak, elkarrizketa sakonak... badago bide bat urratu beharrekoa. Telebistak eta sareak bat egiten duten lekuan, bai, mendeak eta segundoak gurutzatzen diren leku horretan, tokia du gure hizkuntzak eta kulturak. Sareari atxikia, sarean lan eginez. Eta ikusi ditugu esperientzia sano in-

teresgarriak urte amaiera honetan. Durangon Azoka telebista burutu zuten Goienako kamara eta errealizadoreek, ETB3ko langileekin batera, Hamaika telebistako kazetariak. Hiru proiektu ezberdin bat eginda, Durangon eta Gipuzkoa Kulturak lagunduta. Gora begira geundela kazetari euskaldunek kulturgintzako albiste berri eta interesanteak eskaini zizkiguten (euskarazko disko eta liburuak soil-soilik aipatuta gainera) azokan bertan, eta han ondoan ziren Ahotseneako irudiak ondo eta txukun errealizatuta sarean zabalduz *ahotsenea.net* blogetik. Bide berri bat lagunok. Agintariak eta kudeatzaile teknokratek ohituta ez gauzkatzen bide bat, aitzindaria izan daitekeena, berandu egin orduko. Eta hor zer ikasi asko eskainiko dugu. Finean, euskarak behar dituelako etxea (telebista, Internet), kalea (gizartea, eskola, kultura, mobilizazioak, prentsa, irratiak) eta jendea (hiztunak, bizitza, plaza, merkatua). Euskaratik eta euskaraz. Libre.¶





## XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

### **Kontseiluaren 10. urteurrena eta Adierazpena**

Iaz Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak hamar-kada bat (1998-2008) osatu zuen eta urteurrenak abagune egokiak izaten dira atzera begiratu eta balantzea egiteko; eta hasiera hartan, Hotel Costa Vasco Jardunaldietan jarritako helburuak bete diren eta zenbateraino bete diren aztertzeko. Ezaguna da bost estadio euskararen aldeko ekitaldi batekin betez hasi zen ziklo hura «Bai Euskarari» leloa aldarrikatuz abiatu zela, «XXI. mendeko Akordioa» deituaren bila. Eta balantzea egitean euskararen aldeko urrats garrantzitsu askorekin topo egiten dugula: Plan Estrategikoa, Bai Euskarari Ziurtagiria, Hizkuntza Eskubideen Behatokia, 1. Akordio Politikoa eta 2. Akordio Soziopolitikoa, nazioarteko proiektzioa, eta abar.

Abagune horretan *Adierazpen* bat jendarteratu zuen Kontseiluak eta aurrerantzean «Bai Euskarari» lelotik «Euskaraz Bai»rako urratsa egitea erabaki zuen, euskarak aldekotasuna ez ezik batez ere hizkuntza bera ezagutu eta erabiltzea behar zuela sinetsirik.

Adierazpena honela hasten da:

Euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza da eta bertan izan dezakeen garapenaren baitan bakarrik ziurta daiteke bere biziraupena. Euskarak etorkizuna behar duelako, iraungo duen hizkuntza eta euskal herritar guztien hizkuntza izatea nahi dugulako, ezinbestekoa da euskararen garapena ziurtatzea.

Zorionez, nahiz eta euskal jendartean osoki euskaraz bizitzeko aukerarik ez egon, gaur egun, neurri handi batean euskaraz bizi den jendarte zabala dago. Euskaingintza bilgune da euskaraz bizi den jendarte horrentzat. Hortaz, euskaraz bizi-

tzea da gure aukera. Aukera hori hartu dugunontzat euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortu nahi ditugu eta horretarako ari gara lanean euskalgintzan. Horregatik ere hizkuntzarentzat esparruak garatu eta zabaldu nahi ditugu; geure bizitza euskaraz normaltasunez egin ahal izateko.

XXI. mendearen hasieran euskarak bizi duen egoeraren aurrean, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko Batzar Nagusiak oinarrizko irakurketa hau egin du euskararen egungo egoeraz, eta honako bost puntuotan laburbildu du:

- Egindako lanari esker euskal herritarren euskararen aldeko jarrerak azken hamarkadetan bilakaera baikorra izan duela ukaezina da. Gehiengo zabalaren jarrera euskararen aldekoa da, euskararen zabalkundea eta normalizazioa lortzearen aldekoa. Baina euskararen garapena nahi baino mantsoago ari da gertatzen.
- Euskal Herriko biztanleen laurdena euskalduna da. Azken hamarkadetan egindako ahaleginak euskaldunen kopurua handitzea ekarri badu ere, handitze hori ez da izan euskararen normalizazioa bermatzeko adinakoa.
- Erabileran ere hazkundea gertatu den arren, egoera normalizatuak izango lukeen erabilera mailaren azpitik gaude oraindik.
- Euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ez dago bermatuta, eta nabarmenak dira egunero sortzen diren ezintasunak. Euskal Herriko hainbat eremutan, euskaraz bizitzeko aukera dagoenean, euskaldunak ahalegin gehigarria egin behar du hori lortzeko, ohiko funtzionamendua, lehenetsitakoa, erdaraz garatzen delako.
- Abagune honetan, euskalgintzak elkarlan-jarduerara aberasgarria eraiki du. Elkarlan-giro horren emaitza oparoa da euskarari emandako bultzada, ehunka gizarte-eragileren ekarpena eta instituzioengan lortutako eragite-lana.

Aurreratutakoa kontuan izan eta normalizaziora iristeko bidea falta dela gogoan hartuta, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak oinarrizko ildo hauek jarraituko ditu etorkizunera begira:

1. Euskararen berreskurapen-prozesua azkartzea ezinbestekoa da. Hau da, egun Euskal Herrian euskara ez dakitenek ikastea, eta, bere erabilera esparru eta eremu berrie-

tan handitzea, ahalik eta eperik laburrenean. Ezagutza eta erabilera zabaltzeko aukera berriak sortzen jarraitu behar dugu.

2. Funtzio sozial guztiak euskaraz garatzeko aukera lehenbailehen lortzea ezinbestekoa da, horrela lor baitaiteke euskararen normalizazioan urrats benetakoak egitea.
3. Euskara lehentasuneko hizkuntza izatea lortu behar dugu, horrela ziurta baitaiteke euskaldunen eta biztanle guztien hizkuntza eskubideak bermatuta izatea.
4. Hori guztia egiteko lan politiko-instituzionala eta lan soziala bideratu behar dira, biak ere norabide berean. Erakunde instituzionalek, eragile politikoek, ekonomikoek eta sozialek, norbanakoek eta euskalgintzak norabide berean lan egitea ezinbestekoa da, guztion arteko lankidetzak ziurta baitezake euskararen geroa eta Euskal Herri euskalduna.

Bukatzeko, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua osatzen dugun eragileak euskararen eremu osoan euskaraz normaltasunez bizitzeko ari direla lanean aitortu ondoren, etorkizunerako, euskalgintzan ari garen erakunde eta lagunak lanerako ilusioaren eta grinaren jabe zirela berresten zuen. Eta ahalegin horretan batera jarduteko gonbita luzatzen zien jendarte-eragileei, erakundeei, eta gizarteari oro har, eta zorionak ematen zizkien 10 urte haietan euskara ikasi, erabili, zabaldu eta harren aldeko hautua egin duten jendarte-eragile guztiei eta pertsona guztiei.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak batzar berezia egin zuen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean 2009ko ekainaren 20an eta Kontseilua osatzen duten 45 bazkideen hainbat ordezkari bildu ziren bertan. Xabier Mendiguren Kontseiluaren idazkari nagusiak azaldu zenez, batzar haren bitartez gogoeta-prozesuaren lehen faseari amaiera eman zitzaion.

Bazkideek urte hauetan Kontseiluak egin duen ibilbidea berretsi zuten, lehendakari den Koldo Tellituk adierazi zenez. Kontseiluaren bilgune izaeraren garrantzia azpimarratu zen batzarrean; izan ere, Euskal Herri osoko euskalgintzaren bilgune da Kontseilua eta euskalgintzaren gehiengo

zabala biltzen du bere baitan. Horrek indar handia ematen dio Kontseiluaren jardunari ordezkatzeko duen jendarte-eremu zabalarengatik.

Hamar urte hauetako ibilbidearen balantzea egin zuen batzarrek eta, Tellituk adierazi zuenez,

euskararen normalizazioan aurrerapausoak eman ditugu eta ez nolana hikoak, gainera. Urte hauetan guztietan, euskararen normalizazioan eman diren urratsak bereziki euskalgintzak eta herri-mugimenduak egindako lanari esker izan dira. Kontseiluak ildo honetan lan eta ekarpen handia egin duela baloratzen dugu.

Ekarpen hori, proiektu desberdinak garatuz, bizitza-esparru desberdinetan eraginez (hala nola, lan-munduan, administrazioetan...) lortu dela aipatu zuen Tellituk. Egindakoa asko izanik ere, helburua ez dela erdietsi aipatu zuen Kontseiluaren lehendakariak: «eman diren aurrerapausoak ez dira aski izan». Ondorioz, egungo egoera kezka ikusten duela gaineratu zuen Kontseiluak.

Orain arte egindako lanaz eta egoeraz egindako balantzeaz gain, batzarra aurrera begira ere jarri zen. Kontseiluaren helburu nagusia euskararen normalizazioa, berreuskalduntze osoa ematea izango da. Hori erabaki dute Kontseilua osatzen duten bazkideek egindako gogoetaren bitartez. Helburua erdiesteko, egun bizi dugun egoeratik egoera horretara heltzeko (euskararen normalizaziora), Kontseiluak bere buruari egin beharra ere zehaztu zion: «beharrezkoa dugun aldaketa hori emateko, Kontseiluak aldaketa eragin behar du. Prozesu hori eragitea dagokio Kontseiluari, aldaketa eragitea izango da bere egin beharra», azaldu zuen Koldo Tellituk.

Hori nola egin nahi duen Kontseiluak ere aurreratu zuen Kontseiluaren lehendakariak eta horrela azaldu zuen:

Egoera konkretu honetan eta honi modu eraginkorrean erantzuteko asmoz diseinatuko ditu Kontseiluak eman behar dituen aldaketak, horretara bere jarduerara egokituz. Izan ere, Kontseilua gune dinamikoa da eta egoerak eta garaiek eskatzen dutenaren arabera moldatu behar du eman nahi duen urrats eraginkorra gauzatzeko.

## Udalen Hizkuntza Politika: Kontseilua eta UEMA

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren lana esparru desberdinetan zabaltzen da; eremu soziala, politikoa... Bere zereginetako bat administrazioen hizkuntza-politika hobetzeko eragitea da. Ildo honetan, Kontseiluaren lanak bi zutabe izan ditu; batetik, marko juridikoa hobetzeko udal ordenantza eredugarriak sortzea. Eta bestetik, udalerrien hizkuntza-politika hobetzeko tokiko erakundeen hizkuntza-politikaren ebaluazioa egitea.

Bigarren zeregin horri begira, 2005ean Kontseiluak udalerrien hizkuntza-politika aztertzeke metodologikoki zorrotz diseinatutako ebaluazio-tresna sortu zuen. Ahalik eta azterketa egokiena eta adostuena izan zedin, ehunka laguni ekarpenak egiteko aukera eman zitzaion. Aditu askoren ekarpenak jaso ditugu: soziolinguistenak, udaletako zein beste administrazio batzuetako teknikarienak, besteak beste.

Esan bezala, 2005 urtean Kontseiluak udalen hizkuntza-politikaren ebaluazioa abiatu zuen. Orduan, Euskal Herriko 66 herritan egin zen ebaluazio hori. Ondoren, lan horri jarraipena eman zaio eta lehenengo ebaluazio hori jada 100 herritan aplikatu du Kontseiluak. Oraingoan, gainera, hasierako ebaluazioa hobetu du Kontseiluak eta neurketa-sistema egokitu du, emaitzak hobe islatzeko 0-10 eskala batean.

Kontseiluak, abiatutako lan horri jarraipena emateko asmoa du eta, 2011n, bigarren ebaluazioari ekingo dio. Ziklo politiko bakoitzean hizkuntza-politikak aztertzeke asmoa du Kontseiluak. Horrela, garai bakoitzean gauzatzen den hizkuntza-politika ezagutzeko aukera izango da eta baita haren eboluzioa ere. Azterketaren bitartez, udalek aplikatzen dituzten hizkuntza-politiketan dauden hutsuneak detektatu ahal izango dira. Hutsune horiek agerian geratuko dira. Udaletako arduradunek hizkuntza-politika egokiak gauzatzeko hutsune horiek gainditzea beharrezkoa izango da.

Kontseiluaren espiritua betiere elkarlanean aritzea izan da: administrazio guztiekin zein bestelako eragile sozial, ekono-

miko eta politikoeekin. Horrexegatik ere, dinamika honen baitan, hizkuntza-politika hobetzeko udalerrietako erakundeekin elkarlana lortzen saiatzen ari da. Hor kokatzen dira berriki aurkeztu genituen 25 udalekin sinaturiko hitzarmenak eta ekainean UEMArekin sinatutako hitzarmen berezia.

Hitzarmen horren bidez ebaluazioa UEMAko herri gehiagotan aplikatu da, betiere UEMAko udalerrien hizkuntza-politika besteekin ere aldaratua izan ahal izateko. Emaidza orokorrekin batera, UEMAko udalerrien hizkuntza-politikaren emaitza azpimarratu nahi dugu. Izan ere, emaitza horiek argi uzten dute UEMAko herrietan aplikatzen den hizkuntza-politika, oro har, egokia dela.

Ekimen honen inguruan informazioa jaso ahal izateko, Kontseiluaren webgunean sarrera berezi bat dago ([www.kontseilua.org](http://www.kontseilua.org)). Hor kontsulta daitezke herri bakoitzaren emaitzak edo herrien arteko alderaketak egin. Webgune honetan, bestetik, udalerrien hizkuntza-politikaren inguruan bestelako informazioa ere eskainiko da.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, 2009ko irailaren 26an, lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen hainbat udalekin. Donostiako Miramar Jauregian egindako ekitaldian bildutako udaletako ordezkariekin hizkuntza-politika hobetzea helburua duen hitzarmena sinatu zuen Kontseiluak.

Ekitaldian, Aretxabaleta, Bergara, Deba, Elorrio, Legazpi, Leitza, Lezo, Ordizia, Pasaia, Segura, Urretxu eta Villabonako udaletako ordezkariak izan ziren. Bestetik, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak ere bat egin zuen Kontseiluak egindako lankidetzaren proposamenarekin eta UEMAko kide diren herrietako ordezkari batzuk ere aipatu ekitaldian izan ziren: Aduna, Ajangiz, Aramaio, Aulesti, Bera, Etxalar eta Usurbilgo udaletako ordezkariak, hain zuzen ere. UEMAk ekainean egindako urteko batzarrean, hizkuntza-politika hobetzeko helburu Kontseiluarekin hitzarmena sinatzearen alde egin zuen eta baita sinatu ere. Oraingoan, berriz, UEMAREN barruan dauden herrietako batzuek hitzarmen hori berretsi egin nahi izan dute.

Kontseiluaren eginkizuna, sortu zenetik, Euskal Herrian maila pertsonal, sozial eta ofizialean euskararen normalizazioa edo berreskurapen osoa lortzea dela aipatu zuen Kontseiluaren idazkari nagusiak. Bestetik, helburu hori erdiesteko, honako egiteko edo funtzioak bere gain hartu zituen:

Euskararen inguruan gogoeta eragitea, ikuspuntu sozialeko plangintza orokorra bideratzea, euskalgintzaren berrikuntza eta indartzea bultzatzea, euskalgintzaren gogoetak eta mezuak gizarteratzea, gizarteko eragile erabakigileen aurrean eragin soziala bideratzea. Ildo horretan eta helburu hori lortzeko zenbait urrats egin dira jadanik, besteak beste, Bai Euskarari Akordioa sinatzea, Euskararen Normalizaziorako Plan Estrategikoa abian jartzea eta enpresen eta erakundeen artean Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzea.

Kontseiluaren lan-ildoetako bat udalen hizkuntza-politikan eragitea da. Ildo horretan aritu da lanean azken urteotan eta hainbat ekarpen egin ditu. Besteak beste: udalen hizkuntza-politika neurgailu bat sortu eta 100 herritan hizkuntza-politika ebaluatu du, Akordio Soziopolitikoa osatzen duten alderdi eta sindikatuekin adosturik, *Euskararen Ordenantza Eredugarriak* arau-markoaren proposamena sortu du.

Orain sinatu den hitzarmenaren helburua herrietan hizkuntza-politika egokia gauzatzea da. Helburu hori komuna da bai Kontseiluarentzat eta baita hitzarmena sinatu duten udalarentzat ere. Hizkuntza-politikaren egokitasuna aztertze-ko, Kontseiluak 2005. urtean abiatutako udalen hizkuntza-politikaren neurketa izango du tresnetako bat. Neurketa horren bitartez detektatzen diren hutsuneak konpontze-ko konpromisoa hartu dute udalek. Datorren urtean bigarren ebaluazioa egingo da. Bigarren neurketa egin ondoren, hizkuntza-politikaren bilakaera aztertu ahal izango da.

Kontseiluaren idazkari nagusiak hitzarmen horren garrantzia azpimarratu zuen esanez aipaturiko hitzarmenaren funtza elkarlana dela.

Ezin dugu ahaztu, herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa izanik, udalak herri batean euskararen normali-

zazioan duen garrantzia handia. Oso garrantzitsua da gure ustez administrazioetako arduradun politikoen eta euskalgintzaren eragile sozialen arteko elkarlana sustatzea.

Hitzarmena sinatu zuten udalek beren herrietako hizkuntza-politika hobetzeko zuten borondatea adierazi zuten. Hitzarmen honen bitartez udalek Kontseiluaren dinamikari babesa ematen zioten eta ebaluazioetan detektatutako hutsuneei konponbidea emateko konpromisoa hartu zuten. Kontseiluak, bere aldetik, eskura dituen bitartekoak jarriko ditu lan honetan.

Dagoeneko 20 udalek baino gehiagok sinatu dute Kontseiluarekin hitzarmena eta beste batzuetan ere bidean dago. UEMari aipamen berezia egin nahi izan zion idazkari nagusiak. Hitzarmena gero eta herri gehiagotara zabaltzeko asmoa ere azaldu zuen Kontseiluaren ordezkariak.¶





## XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

### Zain

Atzera begiratu eta amaitzen ari den urte honi itxarongelaren itxura hartzen diodala esango nuke. Mediku kontsulta baten itxarongelarena zehatzago izanda, zein espezialitatekoa den garbi ez badaukat ere.

Adibidez, krisi ekonomikoaren kinka honetan, onkologoaren kontsultarako zain gaudela iruditzen zait: tumorea daukagula ziurra da; ebakuntza ere egin digute, koxkor alu hori erauzteko, eta orain, biopsia egin dutela-eta, diagnosiarren zain gaude: onbera (Woody Allenek film batean zioen bezala, adin batetik aurrera esan diezazuketen hitzik gozoe-na) edo gaiztoa. Alegia, atzeraldi ekonomikoak denok jo gaitu, aldez edo moldez; gaur egun, berriz, suspertze-zantzuak sumatzen direla ari zaizkigu esaten, ahulak oraindik baina esperantzatsuak, analisten hitzetan; hala ere, ez daki-gu animoak ematearren esaten duten edo hala dirudielako zinez, eta halako itxura izan arren inork ezin du ziurtatu suspertze hori benetan gauzatuko den, noiz izango den, zenbaterainokoa izango den. Sistema ekonomikoa aldatu egin beharko litzatekeela aldarrikatzen zen krisiaren hasieran (kapitalismoaren heriotza iragarritz, sutsuenek, eta finantza-sisteman kontrolak areagotu beharra eskatuz, epele-nek); gaur egun, berriz, jendeak nola edo hala bere lanpos-tuari eutsi nahi diola esango nuke, eta hortik aurrera, zerbe-za bat hartuz, edozertaz hitz egin: iraultzaren beharraz, jaurларitza berriaz, balizko su-etenaz...

Jaurларitza berriaren aurreko jarrerari ere itxarongelaren itxura hartzen zaio; kasu honetan, baina, dentistarena izan-

go litzateke kontsulta; inork ez du hilko denik pentsatzen, baina gehientsuenek dute mina emango dieten beldurra. Gehientsuenek esatean ez naiz gizarte osoaz ari, «euskaldun jendeaz» baizik (Ruperren kantuan, Mikel Laboa hildakoan negarrez zegoen hartaz). Minaren zenbatekoa erlatibo da noski: badira edozein aldaketari egundoko garrantzia eman eta eskandalizatzen direnak, baina egia da orain arte jarraipena izan dela nagusi euskarari eta euskal kulturari zegozkion ia kontu guztietan. Gehiago egin beharko litzatekeela uste dutenentzat beti izango da gutxitxo, noski, baina asumituta dago: bolada batean behintzat, atzerapausorik ematen ez bada, gaitz erdi. Hala ere, gobernua hasi besterik ez da egin, eta udaletxe nahiz diputazioetara ere oraingo formula zabaldu daiteke aurki; beraz ulertzekoa da euskaltzale jendea erne egotea, eta beldur izatea ere bai, Euskal Autonomia Erkidegoan ez ezik, baita Nafarroa eta Iparraldean ere, hango elkarteentzako dirulaguntzak zertan geldituko diren.

Zain gaude, halaber, ezker abertzaleak egin nahi duen aldaketa estrategikoa zertan gauzatuko den. Kasu honetan, obstetrizia sailaren atarian gaudela esan liteke, erditzea nola amaituko den zain. Su-eten berri bat jaioko ote da? Normalizazio-prozesu bat koxkortuko ote da horren ostean, illegalizazioen fasea gainditzeko modua ekarriko duena? Ezkerren eta autodeterminazioaren aldeko sentsibilitate guztiak edo gehienak batuko lituzkeen hauteskunde-marka bat sortuko ote da gero hortik, beste alderdi batzuekin lehiatu ez ezik, haiekin akordioetara iristeko modua izango duena eta, gobernutik ez bada oposizio serio batetik, aginteguneetan eragitekoa? Bortxa politikoaren ondorio makurrak amaituko ote dira berauek sufritzen dituzten guztientzat? Maternidadekoa ez da jaio oraindik eta gu esnezalearen ipuinarekin honezkero. Tira, egunen batean jendearen ametsak gauzatuko diren esperantzari eutsi behar, zain gauden bitartean.

## Hiru, bi, bat...

Zain gauden bitartean, aspaldi ikasi genuen, mundua ez dago geldirik, eta nik hurbilen dudan liburugintzaren sektorea ere ez. Urte literarioaren errepasso azkar bat eginda, krisiak krisi, gure egile inportanteenek lanean segitzen dute, eta horren erakusgarri ditugu Lertxundiren *Eskarmentuaren paperak* edo Jimenezen *Stock 13* (memorialismoaren aroa iritsi ote da gure letretara? Urtetan ofizioan jardundako inoiz baino jende gehiago daukagu, eta normala litzateke alde horretatik, baita poztekoa ere), Epaltzaren *Izan bainintzen Nafarroako errege*, Irigoienen *Haragiaren gauak eta egunak*, Bordaren *Ezer gabe hobe*, Elorriagaren *Londres kartozkoa da*, Igerabideren *Elurra sutan*, Jaioren *Musika airean* (nobelistetara mugatzearren, saiakera, kronika eta poesian ere beste mordoxka bat aipa genezake eta).

Izen ezagunen emaitzen ondoan, eta hasiberriak geroko utzita, azpimarratzekoa iruditzen zait bigarren liburua atara duten idazleen sorta eta lan horien kalitatea; lehen lanaren kasuan, beti dago arriskua «liburua, arbola eta umea» leloa beteta, sorkuntzarekikoak beteta eta agortuta geratzeko, baina beren kasuan hala ez dela erakustera etorri dira Katixa Agirrerren *Habitat*, Mikel Peruarenaren *Ez obeditu inori*, Irati Jimenezen *Nora ez dakizun hori*, Beñat Sarasolaren *Alea*, Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa*, Xabi Bordaren *Gulliverren lokarriak*...

Estreinaldia izan dutenen artean, berriz, denak aipatzea ere zailtxo eta, irakurri ditudanen artean, Fermin Etxegoienen *Autokarabana* iruditu zait gogoangarriena. Hasiberria ere ez da Etxegoien: urte asko daramatza komunikabideetan gidogintzan, iritzi-emaile ere nabarmendu da, telebistaren aitzakiaz huntaz eta hartaz jardunean, eta saiakera labur bat kale-ratu zuen orain baino lehen: *Neurona eta zeurona*. Oraingo eleberri hau harantzago doa, neurrian eta anbizioan, baina betiko Etxegoien zorrotz, gogoetalarri, zirikatzailea aurkezten digu, *cool*-a batetik baina bere zauriak ere erakutsiz bestetik.

## Iritsi ote da itzulpenen garaia?

Haruki Murakami, Paul Auster, Henning Mankell, Donna Leon, Paolo Giordano, Anna Gavalda... horra Durangoko Azokaren bezperetan Erein eta Alberdania argitaletxeek euskaratuta eskainiko dizkiguten autoreetako batzuk (nazioarteko literatura jarraitzen ez dutenentzako argibidea: une honetan munduan eta hizkuntza guztietan gehien saltzen duten idazleetako batzuk dira goiko horiek, fikzio kalitatezkoa baina aldi berean irakurterraza egiten dutenak).

Beste argitaletxe batzuk ere aspaldidanik aritu dira langintza horretan, Igela batik bat aspaldian, baina oraingo oldarraldi honek benetako apustuaren itxura hartzen du. Euskal irakurleak uzkur samar jokatu du orain artean itzulpenekin, dela ohitura faltaz, dela errezeloz, dela hizkuntza bera zail samarra gertatzen zaiolako, salbuespenak salbuespen. Aldaketa garaia ote dator horretan ere? Seinale ona litzateke, alde guztietatik begiratuta.

## Liburu elektronikoa

Beste aldaketa bat, dudarik gabe iritsi dena, liburu elektronikoa da. Bereiz dezagun: batetik tresna bera dugu, eReader deitzen dena hainbat lekutan, guk i-rakurgailua esan diezaiokeguna (e-rakurgailua bestela?). Bestetik, traste horretan irakurriko den liburua bera, eBook ohi deritzana, aurreko gure erabakiari segituz hemen i-rakurgaia deitu behariko geniokeena. I-rakurgailuak merkatuan daude duela urte batzuetatik mundu anglosaxoian, eta pixkanaka zabalduz doaz Mendebalde osoan. Teknologia aurreratua eta aurrekontu handiak dituzten konpainien arteko kontua da gaur-gaurkoz aparatu horiena, eta datozen urteetan lehia gogorra aurreikus liteke, nor nagusituko.

Argitaletxeak ere, pixkanaka, beren edukiak gailu horietarako egokitzen ari dira. Orain arte egile-eskubideetatik kanpoko obra klasikoak eskaini izan dira, baina une honetan

asko eta asko hasita daude beren nobedadeak, paperean plazaratzeaz aparte, digitalki ere saltzen. Baita euskal argitale-  
txeak ere.

Etorkizunean zer izango den, inork ere ez daki. Trepeta hauek zabalduz joango ote dira, paperezko liburuari lekua jateraino? Bien arteko bizikidetzeta lasaia izango da? Formatu desberdinetako i-rakurgailuen artean zein nagusituko da? Ala beste teknologiaren bat azalduko da laster (eskuko telefonoi lotua, adibidez), oraingo tresna hauek zaharkiturik utziko dituen? Askok dira galderak, erantzunak baino gehiago, baina gauza batez ziur egon gintezke: euskal kulturarentzat hobe dela saltsa horretan egotea kanpoan geratzea baino.

## **Musika, zinema...**

Liburu elektronikoak zabaltzen duen beste zalantza bat: gaur egun kopiak galarazteko sistemaz horniturik egon arren, zenbat denbora beharko dute hacker-ek defentsa horiek gainditzeko? Eta zenbateraino heda daiteke gero kopia piratak egiteko eta banatzeko ohitura?

CDen merkatu beltzak, batetik, eta sarean dohainik jaitsi-tako musikak, bestetik, pikutara bidali dute diskoetxeen industria, mundu osoan. Baina ez dute pikutara bidali musika: zuzeneko kontzertua ez baitago pirateatzerik. Euskal musikariek ez dute dagoeneko ia dirurik ateratzen disko-salmentatik (grabatzeagatik ere ordaindu egin beharko dute gero eta gehiagok, dela autoprodukzioan dela diskoetxe-  
ren batekin lanean), baina horrek ez dio hesirik jarri sorkuntzari, zorionez, eta aurtan bertan lan guztiz ederrak kaleratu dira: Ruper, Anari, Urdangarin, Muguruza, Bide Er-tzean, Berri Txarrak... Horiek gogora datozkidanak, beste asko ere izango baitira.

Idazleekin, baina, eta barkatu neure alorrera itzultzea, ez dago zuzeneko emanaldirik. Zer gertatuko litzateke baldin eta argitaletxeen sektorea pikutara joango balitz? Seguru asko ezer ez: literaturaren funtsezko elementuak bi aktore di-

ra: idazlea eta irakurlea, eta bien artean testua. Bitartekari guztiak (inprimatzaile, argitaletxe, agente, kritikari, irakasle, kazetari...) gorabehera historikoez ekarritako lagungarri edo bizkarroiak dira, momentuko zirkunstantziak aldatuz gero desagertu daitezkeenak. Biharko egunean informatikari baten laguntza aski izango ote du idazleak bere irakurleei testuak helarazteko? Baina gutxieneko diru-irabazirik bermatuko al dio inork? Eta, gaia apur bat aldatu eta zabaldu-ta, zer gertatuko zaio zinemaren negozioari ordenagailuetako kopiak ugaltu ahala? Euskal ikus-entzunezkoak (aurten Elortegiren *Zorion perfektua* izan dugu, ez perfektua baina bai gogoan hartzekoa) ba al du aurrera egiteko aukerarik ETBren magaletik kanpo?

Dena dela, zientzia fikzioan edo prospektiba txoroan ari naiz, eta hemen 2009. urtearen errebasoa egiteko eskatu didatenez, hobe izango dut bere horretan uztea.

## 90 urte

Aurreko urte batean, 20, 25, 30 betetzen zituzten hainbat kultur talde eta enpresa gogorarazi genituen. Aurten, eta tarte hau amaitzeko, gure kulturaren bi erakunde dekanook aipatu nahi nituzke: *Argia* astekaria, prentsa idatziak gaur egun bizi duen itsaso gaiztoan igeri egiten asmatu duena, eta Euskaltzaindia, urteurrena ospatzeko *Erlea* literatur al-dizkaria oparitu diguna. Zorionak!¶



LAURA MINTEGI

## Garai berriak, arazo zaharrak

2009ko martxoko hauteskunderen ostean, maiatzaren 5etik hain zuzen, oso-osorik sozialista den Eusko Jaurlaritza dago EAeko agintaritzan. Ezin esan sozialistek Lakua aurretik zapaldu ez dutenik, baina EAJren interesekoak ez ziren sailetan zeuden, jeltzaleek beraiantzat gordetzen baitzituzten sail kutunenak: Ogasuna eta Barne Saila, alegia. Kultura Saila eta, batez ere, Hezkuntza Saila maiz utzi dituzte gobernu-kideen eskuetan. Xabier Arzalluzek behin eta berriz esaten zuen bezala, estatu bat eraikitzeko bi gauza dira ezinbestekoak: dirua (Ogasuna) eta diru hori gordetzeko indarra (Ertzaintza). Eta halaxe egin da autogobernuaren hasiera-hasieratik: autonomia espainiarren artean ez dago autonomiarik Jaurlaritzak beste eskuduntzarik daukanik diruari eta poliziarri dagokiela, ezta Kataluniak ere: katalanek ez dute Kontzertu Ekonomikorik eta Mossos d'Esquadra jostailuzko polizia da Ertzaintzarekin alderatuta.

EAJ Jaurlaritzan egon den artean, beraz, bi sail horiei eutsi die nola edo hala (eta egun, Jaurlaritza galduta, Aldundietan gotortu dira). Gainontzeko sailak, ordea, negoziatu zitezkeen. Edo utzi zitezkeen, besterik gabe. Jeltzaleek ez zuten funtsezko ikusten euren eskuetan gordetzea ideologiaren transmisiorako oinarrizkoak diren arloak (hezkuntza eta kultura). Beraz, ulertezina eman badezake ere, sail horietako buruak jeltzaleak izan dira bakar-bakarrik gobernu osoa jeltzaleena izan den garaietan. Baina kideekin gobernatu dutenean, kideen eskuetan utzi dituzte Kultura edo Hezkuntza; edo sail biak.

Hezkuntzaren kasua da deigarriena. Jose Antonio Agirre-  
ren 1936ko gobernuan ez zegoen Hezkuntza Sailik (Justizia  
eta Kultura Sailean Leizaola egon zen). Ramon Rubialen le-  
hen Euskal Kontseiluan Hezkuntza sailburua Karlos Santa-  
maria (EAJ) izan zen eta Kultura sailburua Jose Antonio  
Maturana (PSE). Bigarren Kontseiluan, Garaikoetxea buru  
zela, Santamariak segitu zuen hezkuntzan eta Angel Olartek  
(EAJ) hartu zuen kulturaren ardura.

Eusko Jaurlaritzan 1980an berrezarri zenean, eta Garaikoe-  
txea lehendakari izendatu zutenean, hezkuntza eta kultura  
EAJren eskuetan egon zen (Pedro Miguel Etxenike eta Ra-  
mon Labaien hurrenez hurren), baina baita gobernu osoa ere,  
sailburu guzti-guztiak EAJkoak zirelako, Garaikoetxea bar-  
ne. Eta gauza bera gertatu zen Garaikoetxearen hurrengo le-  
galdian: hezkuntza eta kultura jeltzaleena zen (Juan Urrutia  
eta Joseba Arregi hurrenez hurren), eta gobernu osoa zen ko-  
lorebakarra. Ardanzen gobernuan, berdin; Juan Txurruka  
eta Luis M<sup>a</sup> Bandres izan ziren hezkuntza eta kultura sailbu-  
ruak, biak EAJkoak, eta gainontzeko sailburu guztiak ere bai.

Hortik aurrera, gobernu bikoia edo hirukoa izan zenetik  
aurrera, jeltzaleek argi adierazi zituzten euren lehentasunak  
eta ahuleziak. Bereziki deigarria da Hezkuntza Sailarekiko  
utzikeria, jeltzaleek ez baitute adierazi interes handirik hu-  
ra kudeatzeko. Txurruka izan zen EAJko azken sailburu jelt-  
zalea, 1987an izan ere. Hurrengo 22 urteetako sailburu  
guztiak koalizio-gobernuko beste alderdietako kideak izan  
dira: Recalde (PSE), Buesa (PSE), Oliveri (EA), Intxaurreaga  
(EA), Iztueta (EA) eta Campos (EA).

Orain Celaa eta Urgell andreak Jaurlaritzan egoteak ez  
gaitu sobera izutu behar. Edo bai. Baliteke sozialistak hobe-  
to ohartzea, euren aurrekariak baino, hezkuntzaren eta kul-  
turaren garrantziaz. Agian sailburu hauek ikusiko dute na-  
ztoa egiteko ez dela nahikoa makina-erreminta munduko  
merkatuetan kokatzea, eta gure kultura ez dela esportatzen  
Miguel Ríosek *Haika mutil* abesten duelako (hori egin de-  
zan 700.000 euro ordainduta).



Agian orain sozialistek martxan jarriko dute Etxepare Institutua, larrosa eta ukabilaren logopean. Agian. Hasteko, Lopezen Jaurlaritzak begi-keinuak egin dizkie idazle batzuei, haien ondoan epel eta gozo egon daitezkeela ulertaraziz. Bi adibide xume, boteprontoan: Kirmen Uriberen poesia irakurri zuen Lopezek kargua hartzean, eta, geroago, Espainiako Saria jaso zuen egunean zoriondu zuen, hain zuen ere Ondarroako Ertzaintzaren komisaldegia atentatuaren ostean berrinauguratzen ari zen egunean bertan. Bigarren irudia izan da Luisa Etxenike Euskadi Saria jasotzen ikustea. Kasualitatea? Ez diogu kenduko meriturik Etxenikeri, langile fina da-eta; baina sumatu egiten da aireak beste alde batetik jotzen duela aspaldion, eta bandera batzuk beste batzuk baino sendoago astintzen dituela, garaiotako haizeak nondik jo.

## Kontseiluak 12 urte

Politikaz eta kulturaz ari garela, galdetu beharko genioke gure buruari ea zenbaterainoko garrantzia duen erakundearen koloreak euskalgintzaren egunerokotasunean; ea gobernu jeltzalea edukitzeak onura handiagoa ekartzen dion euskalgintzari gobernu sozialistak baino.

Euskararen Unibertsoaren inguruan garatu zen hausnarketak erakutsi zigun, batetik, nor bere lanari eusteko ez dela inoren zain egon behar, eta dirua beharrezkoa dela, bai, baina dirua ez dela jaten, elikagai bihurtu behar dela aurretik.

Bestetik, Unibertsoaren eskarmentuak erakutsi zigun ezinezkoa dela euskararen gaineko plangintza orokorrik egitea kontuan hartu gabe mugimenduak aldi berean eta alderantzizko noranzkoan eraiki behar direla: behetik gora egin behar da indarra, herrikideek erakundeei exijitu behar baitiete baliabideak jar ditzatela helburuen mesedetan; eta goitik behera ere bultzatu beharra dago, administrazioak bermatu behar baitu erakunde guztietan plangintzak diseinatuko di-

rela elebitasunaren bidean, eta nork bere plangintza egin ondoren, dirua eman eta jarraipena burutu beharko luke, plangintzak gauzatzen direla bermatzeko.

Athletic Clubak, adibide bat ipintzearren, ez du bere burua euskaldunduko zuzendaritzak plangintza bat ezartzen ez badu, helburuak eta epeak zehatz-mehatz finkatuta; baina, goitik beherako plangintza ez da nahikoa, eta zuzendaritzako kideek hamaika eta bi eginda ere, kluba ez litzateke euskaldunduko bertako kideek ez balute nahi. Hor dago koska, mugimendu paraleloa eta aldi berekoa behar duela izan, eta dinamika horretan Kontseilua giltzarri da. Kontseilua akuilua izan da, eta da, noranzko bikoitz horretan. Eta gerokoan ere segitu behar izango du eragile izaten, erakundeetan edonor dagoela ere.

## **Erdigunea eta periferia**

Hamabi urte joan dira, bai, Unibertsoaren filosofiatik Kontseilua sortu zenetik, eta ematen du, nonbait, ahaztu egin zaigula zein zen orduko aldarrikapena: euskaldunon erdigunea euskaraz jarduten duen komunitatea dela, euskalgintza ez dela beste unibertso baten satelitea eta ez diogula munduari periferiatik begiratu behar. Norberak erabakitzen du non kokatzen duen bere burua, hurkoaren ingurunean edo bere-berezko gunean. Eta munduan nola jokatu, ez da espazio kontua, ezta tamaina arazoa ere; begirada kontua da, munduari begiratzen diogunean nondik ari garen erabakitzea.

Alde horretatik, tristea da esatea berriz ere gure burua periferian kokatu dugula; permititu dugu alboko eremutik erabaki dezatela zein den euskaldunen erreferentea. Luze eta zabal hitz egin da Kirmen Uriberi emandako sariaz. Saria jaso duen liburua epaitzeko asmorik gabe, esan behar dut Italian eman izan baliote legez jaso dudala Espainiako Sari Nazionala berari (edo beste edozeini) ematea: Italian ez dute saritzen euskaraz idatzitako liburu guztietatik onena,

baizik eta ezagutzen dituztenetatik (itzulpen gutxiei eta editoreren baten kemenari esker) gehien gustatu zaiena. Puntu. Baina Italian (edo Reykjavic-en) euskal liburu bati eman dako sariak ez luke gure rankinga hankaz goratu beharko, euren parametroak ez direlako euskal sisteman ditugun parametro berak. Sari Nazional deiturikoari ematen diodan garrantzia, beraz, atzerriko erakunde bati eman dakiokoen berbera da: erlatiboa, eta ez naiz ari lanaren kalitateaz, baizik eta sariaren balioaz.

## **Erlea aldizkaria**

Ezin uka ongietorrikerik beroena eman behar zaiola euskal literaturaz jarduten duen edozein argitalpeni, baina *Erlea* aldizkariaren arduraduna izango banintz kezkatuta egongo nintzateke. Harrera hotza baino hotzagoa jaso du idazleen eta irakurleen artean. Eta kritikarien aldetik irakurri dudan aipamen bakarra (gehiagorik egon al da?) egiatan zorrotza izan da:

Ez dakit zer den auzi honetan tristeena: galdutako aukera, Euskaltzaindiaren irudiari egindako kaltea, kontua bera, euskalgintzaren apatia edo honek guztiak dakarren etsipena.

Amaia Markuletak dioenez, literaturgintzan dagoen hutsunea nabarmena da, eta dauden ekimen apurrak ez nahikoak dira zaleen gosea asetzeko. Baina emaitzak ez dira izan espero zitezkeenak:

Aitortu behar zaio Euskaltzaindiari (EHUri ez bezala) azken urteotan guztion ahotan zebilen hutsune hori bete nahi izana. Bernardo Atxagaren izendapena norabide horretan urrats inportantea izan zen eta esango nuke guztiok begi onez ikusi genuela izendapena. Begi onez ikusi genuen ere literatur aldizkari bat martxan jartzeko egitasmoa. Hain zen larria premia!

Azkenean, asmo horren emaitza esku artera heldu zaigularik, uste dut dezepzio, etsipen, baita haserre puntu batez ere hartua izan dela «Erlea».

Aldizkariak apatia eragin duela aipatzen da artikuluan. Zaleen aldetik ez dago apatiarik beste hainbat ekimenetan, aurrekontu txikiaz eta adore handiaz burutzen direnak: *Maiatz* aldizkariaren inguruan sortzen diren ekimenak, Eako Poesia Egunak, Larrabetzuko Eskola, Beterriko Liburua eta 111 Akademia, irakurzaleen txokoak, EIEren solasaldi programa... *Erlea* aldizkariak, ordea, ez du bereganatu zaleen interesa, aldez aurretik begirunea (Markuletak zioen moduan) eta baliabideak eduki arren. Zerk egin du huts? Susmoa dut erantzunak bilatuz gero, ondorio interesgarriak aterako dituztela.

Markuletaren artikulua amaiera erabatekoa da. Ezer gutxi gehitu dakioke: «Bistan da euskal literatura eta euskal irakurleria umezurtz jarraitzen dutela. Eta, hala ere, hobe umezurtz sasiko baino». Erletxean hausnarketa egin behar-ko dute, alajaina!

### ***Egin eta Egunkaria, ahuleziaren erakusgarri***

Azken lerroak *Egin eta Egunkariari* eskaini nahi nizkioke, mina, min etsia, inpotentziari darion mina sentiarazten digute eta. Abendu honetan bi mugarri ditugu, egunkari horiei dagozkiela. Batetik, bi urte dira *Egineko* zuzendari eta zuzendariordea, Jabier Salutregi eta Teresa Toda, kartzelaratu zituztela. Bestetik, abendu honetan hasi da *Egunkariako* bost kideen aurkako epaiketa.

Azken bost, zazpi, hamar urte hauetan erakutsi dugunez, Madrileko buruzagiak ez dira ari kazetari batzuk epaitzen eta zigortzen, baizik eta kolektibo oso baten ikusmoldea epaitzen eta zigortzen den. Periferia izan nahi ez izatea zigortzen da; erdigunea aldarrikatzeari ematen zaio zartakoa.

Eta arduratzekoa da. Arduratzekoa da ikustea ez dugula inolako babesik erasoen aurrean. Epaiketa horiek ahuleziaren isla dira, begiratzeko modu baten debekua.¶



FITO ROGRIGUEZ

## Ferraria erosi zuen idazlea

*The Monk Who Sold His Ferrari* liburuaren xarma ez dagokio soilik bere idazlearen abizenari, bere proposamenari baizik. Helburu zehatzak eduki, horretarako epeak ipini eta, berdin poeta edo fraide izan, arrakasta lortzeko bidean zaudete. Bitartean, lagungarri izan daitekeen eskuari heldu.

Amaia Markuleta itzultzaileak *Garan* argitaraturiko «Euskaltzaindia, 'Erlea', Atxaga, Pamiela» izeneko artikuluan (2009-11-11) Euskararen Akademiak kaleratutako literatur aldizkariak euskalgintzaren apatia eta hark zekarren etsipena salatu nahi izan zuen, baina, foro digitaletan behintzat, polemika berehala piztu zuen (ikus Sustatu.com...).

Honela zioen Amaiak:

EIEk zein elkartetik kanpo dauden idazle, argitaletxe, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskaltzaindia, ez dira gai izan gutxieneko errespetua eta onespena bereganatuko zuen inolako proiekturik martxan jartzeko.

Ez dakit EIEk kaleratu ohi duen *Hegatsi* buruz Markuletak zer deritzon, baina, iritzi pertsonalak gorabehera, *Hegatsek* hamabost urtetan argitaratutako hogeita hamabost aleek errespetua behintzat merezi dutelakoan nago.

Eta, jakina, Amaia Markuletari berari bere salaketa egiteko arrazoia aitortu behar bazaio ere,

Gure Akademiaren aldizkari literarioaren ardura argitaletxe bateko akziodun bati uztea eta honek aldizkariaren ardura bere editore, zuzentzaile, banatzaile, inprimatzaile eta itzultzaileari (eta barka honek pertsonalegia ematen badu, ez baita hori asmoa; baina aipatzea merezi duela uste dut: emaztea-

ri) uztea salagarria zela uste nuen. Euskal musikarien artean Kepa Junkerari emandako dirulaguntzaren aurrean eman zenaren antzeko erantzunen bat sortuko zela uste nuen. Bistan da ezetz. Ustel usaina dago gure letren errepublika —edo oligarkia?— txikian.

ezin esan berak leporatutakoak oihartzunik izan duenik.

Kirmen Uribek metatutako sariak (Ramon Rubial, Espainiako Literatur Nazionala...) hizpide izan dira bai sarean bai eta paperean ere. 2009-11-01eko *Berrian*, «Hirudia» izeneko atalean, Iratxe Retolaza literatur kritikariak idatzitako zutabea «Kezkatzen nau *Bilbao-New York-Bilbao* kultur eredu bihurtzeak» ondorioztatzen zen bukaera gisa. Aburu horretara iristeko, berriz, argumentuak ez ziren nolana-hi-koak:

Kezkatzen nau euskal kritikagintzak diskurtso kritiko propioa sortzeko duen ahuleziak, eta kanpoko instituzio eta eragile literarioek euskal liburuen gaineko diskurtsoak sortzeko duten indarrak. Badakit kulturen arteko hartu-emana ezinbestekoa dela, baina euskal literaturan harreman hori desorekatua dela iruditzen zait, eta desoreka hori handituz doala.

Kezkatzen nau *Bilbao-New York-Bilbao* nobelan irudikatzen den pentsamoldeak eta mundu ikuskerak, haren ikuspegi onberak eta globalizatzailak.

[...] mundu ikuskera globalizatzaille eta tradizionala da nagusi: familiaren instituzio tradizionalari oso lotua (aitatasunez aitatasun kontatua), geografia politikoak berdintzen dituen (ez da hierarkiarik herri eta herritarren artean, ez botere-harremanik), nazioartean ezagun egin diren artista euskaldunen eskutik egiten du bidea pertsonaia idazleak (nolabait, kulturaren nazioartekotze horren aldarria eginez).

Kezkatzen nau, bide horretatik, *Bilbao-New York-Bilbao* nobelan irudikatzen den euskal kulturaren eta jendartearen irudiak: heldugabea, txikia, onbera eta xaloa. Ezbairik gabe, kanpo begirada batek egoki jasoko duena, kultura bitxi eta berexi bezala irudikatua den neurrian, exotiko. Susmoa dut irudi horren mesederako idatzi ohi direla hainbat lan literario (oharkabea bada ere), eta ez kulturak bizi gaitzan, edo kulturak egin gaitzan.

Bistan da, beraz, euskal literaturan, adierazi nahi denaren kontra, eztabaidak egon badaudela, eta hori, nire ustetan, gure osasunaren seinale ere badela.

Bestalde, polemikaz gain, kultur eraikuntzak bere bideari ekinez jarraitzen dionez, aurten idazle katalan, galego eta euskaldunak elkartu gara Arantzazun. Duela hogeita sei urtetik hona sortutako usadioari segida emateko, «Literatura txikiak, erronka handiak» lelopean eginiko bilkurari hasiera emateko honakoa bota nuen EIEko lehendakari gisa:

Honatx Bitoriano Gandiagaren berbak:

Baina zenbaitek  
euskaldun nahi du  
ta harenak dira  
larriak.  
Iraun nahi eta  
ezin jarraitu  
ihes dagio  
biziak.  
Agonia honen  
laborriz dauzkat  
ixurbatuta  
erraiak.

Arantzazun elkaturiko idazle galego nahiz katalanei abegi egin nahi diegu geure letraz, pozaz bezainbesteko kezkaz, euskaraz idazten dugunok.

Arantzen artekoa da gure jarduna baina Arantzazun izurrik ez.

Aitzitik, Arantzazuko elorria gogoan, haren haziaren indar lasaia ahaztu ezinik, bide ertzetik zabaldu nahi genuke gure «errai ixurbatuen» iragazki bare den mintzo bizi hau, geure mintzaira jazarriak eta ezetsiak idazleonek bilkura honetan ozenki azaleratuz.

Elorriaren moduan, era trinko bezain apalean, munduari gure txikitasunaren ederra eskainiz... beti ere.

Betiereko itzuleraz kanpo bidea aurkitu nahi baitugu, guk, idazle galego, katalan eta euskaldunok.

Hizkuntza txikiak ez baitira, berez, txikiak, beste bortitza-go batek txikitzen ez dituen bitartean, eta gureak txikituak izan dira... eta ari dira txikitzen oraindik ere.

Elorri txikia, aldiz, landare handiaren aldean itsusia ez den bezala, halaxe maite ditugu guk ere, beren txikian, gure hizkuntza ederrak, ederrak baitira, ezin ederragoak, geure mamiaren mami, eta gainera, baliagarriak, zorrotzak, zehatzak, munduari so egiteko dugun lanabesik egokiena... beti ere.

Betirako ez baita izango iraganaren ondarea, ondare hura gurea bada ere.

Ondare bizia baita gurea, ez hiltzen utz daitekeena, beti hortxe iraungo duelakoan.

Elorriaren patua betiko txikitasunaren txikizioari aurre egitea bai baita.

Eta iraun... beti ere.

Elorriaren erronka, handia bezain saihestezina, irautea baita.

Apal, trinko eta gertu.

Basati baina hurbil.

Arantzaz beteriko bide bazterretan beti...

Baina txikitu ezingo duten bide ederretan barna dirauena.

Urte honetako Galeuscak, berriz, glamour handirik gabe bada ere, bere lana bete du eta, erabakitakoen artean, honakoak azpimarratuko nituzke nik kultur bilana egiterakoan:

1. Galeusca Federazioaren garapenean egin beharreko egokitzapenak aztertu, eta egitura organizatzailea indartzeko asmotan, zuzendaritzari laguntzea beste helbururik izango ez duten hiru bokal izendatuko direla zehaztu da. Federazioari partaide den elkarte bakoitzeko bokal bat egongo da, eta ondorengo izango da beren eginkizuna:

a) Galeusca Federazioaren berariazko eginkizunetan sakontzea, eta urteroko osoko batzarra antolatzea. Batzar honetan urtean urteko ekintzen balantze komuna egingo da, eta Federazioaren gestio txostenean jasoko da.

b) Galeusca Federazioan biltzen diren hiru kultura nazionalen garapenean, positibo edo negatiboki eragiten duten ekimenen defentsa edota salaketa publikoa ziurtatzea.

c) Federazioak koordinatzen dituen elkarteetako kideen interes profesionalak aintzat hartuko dituen ekintza komuna garatzea, beti ere elkarte bakoitzaren ekintza planaren barruan.

2. Jabetza intelektual eta eskubide profesionalen defentsan jarraitzea ondorengo aspektuetan:



a) Elkarteen eta editore katalanen artean hitzartutako kontratu tipoak positiboki baloratuko dira, eta bere zabal-kundea eta etorkizuneko erabilera gomendatuko dira.

b) Jabetza Intelektualaren Legearen berrikusketa aztertzen duen azpibatzerde parlamentarioaren ekintzetan batera eragingo da.

c) Federazio gisa, eta European Writers' Council-en bidez, jabetza intelektualaren inguruko legedi eta direktiba euro-peoaren eztabaidetan parte hartzea proposatuko da, batez ere esparru digital, liburu elektronikoa, eta euskarri berrien inguruan.

Honekin batera, Galeusca Federazioko partaideok, adierazpen askatasunaren defentsa aldarrikatu, eta hastekotan den *Euskaldunon Egunkariaren* aurkako epaiketan inputatuak direnei gure elkartasun osoa adierazteaz gain, kasua artxibatzeke eskatzen dugu.

Hori guztia urriaren 12an agerrarazteak, Hispanitatearen egun horri muzin eginez, izan zuen bere garrantzia, hedabideetan behar bezalako oihartzunik eduki ez arren.

Ildo beretik omendu nahi izan dugu Joan Mari Torrealдай azaroaren 25ean Donostian. Euskal Idazleen Elkarte, Euskal Editoreen Elkarte, Euskal Interpretari, Zuzentzaile eta Itzultzaileen Elkarte, Galtzagorri Elkarte eta Ilustratzaileen Elkarte baturik, Euskal Liburuaren Gaua antolatu genuen bigarren urtez, sektorea trinkotu nahian eta, era berean, publikoki batera agertzeko. Ekimen horretan ez dugu saririk ematen, baina, iaz Olariagaren lanari gorazarrea egin izan genion moduan, aurten Torrealдайaren nabarmendu nahi izan dugu. Antolatzaileen izenean, honako hitzok erabili nituen zoriontzeko:

*Saririk ez!*

Euskal liburuaren gauean ez dugu saririk ematen.

Thomas Bernhardek bezala, hark sariak gorroto baitzitu. Ez literatur sariak bere orokorrean soilik, berari emandako sariak baizik. Eta, bide batez, horrekin batera, sari haietan parte hartu izandako guztiak.

Aspalditxo itzuli nuen horri buruzko haren kontakizun asaldagarri bat (*Wittgenstein-en iloba* eleberrian izkiriaturik

utzi zuena...) eta ezin izan nion barreari eutsi, euskaldun guztion ezinbesteko patua den betiereko itzulpenean niharduen bitartean. Bernharden irakurketetan sakondu ahala, ordea, sariari zion herra hura anekdota hutsa ez zela ohar-tzen hasi nintzen (Julius Campe, Grillparzer edota Austria-ko Literatur Sari Nazionala eskuratu zituelarik, antzeko jar-rerra erakutsi zuen beti...). Heerlengo idazleak gaizki ikusten zuen literatur lanak saritu beharra eta, okerrago oraindik, berari ematea... baina sariak jasotzera, joan, beti joan ohi zen. Horregatik, sariak mespretxatzeaz gain, sari-emaileak gorrotatzeaz aparte (Firnberg edo Piffel-Percevic ministroak izan arren...), bere buruarekin ere ez zegoen batere konfor-me eta sekulakoak eta bost botatzen zituen sari-emanaldie-tarako antolatu ohi zituzten ekitaldietan.

Ez dakit Joanmari Torrealdaik gaurko gau honetan zer esango ote digun, bizitzan zehar euskal letren alde egin duen lana azaldu eta aztertzerakoan, Liburuaren Gauean urtero eman ohi dugun ohorezko aintzatespenaren aurtengo aipa-mena-edo berari egokitu zaiola-eta, baina argi gera bedi, othoi, gurea ez dela saria, badaezpada ere...

Ez eta Joanmari Torrealdai Thomas Bernhard ere, jakina.

Austriarrak, idazle handia izanik ere, lehen adierazi dudak bezala, bere aberkideak gorroto baitzituen, eta beraiekin ba-tera, beraien kultur arduradunak oro. Bere burua ere ez zuen, horratik, begirada ilun hartatik batere babesten; gordin asko erakusten du haren literaturak higuin horren aztarna.

Guk, ordea, maite dugu Joanmari. Eta estimatzen dugu Joanmariren lana.

Eta, atrebentziarekin, berak ere euskaldunok eta euskal kultura zinez eta benetan maite dituela, maite gaituela, esa-tera ausartuko naiz, batere erratzeko beldurrik gabe.

Ez soilik gure hizkuntza zaintzeko bidean euskaltzain osoa izatea onartu berri duelako.

Ez bakarrik, guk aitortu baino lehen, euskal PEN klubak horixe bera adierazi zuelako Joanmariri euskal idazlearen lu-ma emanaz...

Baizik eta, zehazki eta literalki, bere bizitza osoa eskaini diolako euskal kulturari eta beronen ikerkuntzari, ordaine-tan, sarri, izendatzerik ere ez dagoen hamaika jazarpen pai-ratu behar izan dituen arren, *Euskaldunon Egunkari*ako zu-zendaritzari egin nahi zaion auziarena izanik azkenaurre-koa...

Fede txarreko juzkuetan juje zuzenik ezin da aurkitu, eta ez dugu, beraz, fede handiegirik berau eta beronen lagunak juzkatuko dituenarengan, baina, Euskal Herrian, edo hobeto esanda: Espainian, honelako jendea zigortu egiten baldin badute, zer demontre egin dezakegu buruan garun apur bat eta bihotzean justizia-zantzurik ñimiñoena bada ere dugu-nok? Bada, saritu, edo sari-antzekotu behintzat. Kontuz, horri bai: amodio-adierazpenak ere (edo amodio-adierazpenak batez ere) debeku diren Herrialde Miresgarrian bizi baikara. Ausardia ia-epikoa behar baita gure artean gauzarik xumeenak esateko ere (marka da gero)... Beraz, Joanmari eta euskal kultura zintzo demonio zabaltzen eta hedatzen ibili zareten, zabiltzaten eta ibiliko zareten *Euskaldunon Egunkariako* lagunok:

Maite zaituztegu!

Fito Rdz.

Beste urte bat pasatu eta ezin esan, kultur arloan behinik behin, aurreko arazoak konpondu direnik... Aitzitik, aipatu-takoaz gain, Praileaitz I kobazuloaren inguruak lehen bezain gaizki babestuta segitzen du, orain Euskal Gobernuan daudenak duela urtebete «babesteko dekretua» aldatzearen alde bazeuden ere... baina horri buruz iaz idatzi nuen eta...¶



ALLANDE SOKARROS

## **Euskaraz bai... baina euskara noiz arte?**

Joan den azaroaren 5ean, *Xiberoa* Herri Alkargoaren hautetsi biltzarrak —35 udalerriren zinegotzi ordezkariak biltzen dituen egitura da— aho batez onartu zuen *Euskaraz bai* dinamikan partaidetzea eta honek bultzatzen duen ziurtagiriaz jabetzea. Okerrean ez banago behintzat, 2009. urte hau azken txanparen ematera doala, Ipar Euskal Herrian eratuak dauden hamar bat Herri Elkargoetatik lehena da urrats garrantzitsu hori egin duena. *Euskaraz bai* dinamika-rekin bat eginda, beraz, *Xiberoa* Herri Alkargoak esanahi politiko nabaria duen ekimenean partaidetzea ebatzi du. Hortaz, bere egunoroko jardunetan euskarari gero eta leku handiagoa emateko konpromisoa hartu du, urte batean zehar egin diren edo ez direnak begiztatuak izango direlarik ziurtagiria atxikitze edo galtzearen epaian.

## **Kontzientzia ez dutenekin lan egin beharra**

*Xiberoa* Herri Alkargoak, Frantziako administrazio zentralizatuaren menpeko diren kolektibitate publiko orok bezala, eskuduntza nahiko mugatuak eta diru-bide arras gutxizkoak dauzka. Hori argi izan behar da gogoan, hautetsi egiturek euskararen alde gutxi egiten dutela, ahapeka edo ozenki, entzutea ohikoa delarik. Kolektibitate publiko baten, eskuko dauzkan diru sar-irteera aski murriztuz horiekin, hainbat arlotan ekin behar du, eta euskara jardun horietatik bat besterik ez da... diru-sartzeen ikuspegi hotz batetik begiraturaz gero. Abertzalea eta euskaltzalea naizenetik, ondo

dakit, haatik, gure euskal izaeraren oinarri-oinarrizko ezau-garia denez gero, euskarak ez lukeela alderatu behar herri edo eskualde baten edozein ibilera arlorekin —izan dadin hondakinen kudeaketa, izan dadin gizarte zerbitzuen antolakuntza edo izan dadin beste edozerekin—.

Gogoan argi daukat hori... baina abertzale kontzientziari zor diodala ere jakin badakit. Hortaz, euskarari nola edo hala atxikia izanagatik, abertzaletasunaren kontzientzia politikoa —eta honen barruan alde handiak daude ere— ez duen hautetsi bati ezin zaio eskatu gure hizkuntzaren «gizarte normalizazioa» deitzen zaion hori beste eginbehar ororen gainetik ezar dezan. Euskal militantziatik hautetsi arduretara —ardura txiki-txikiak, baina— bidea egitean, lehendabiziki konturatzen garen zer bait da hori. Abertzaleek —gehienek behintzat bai— gogoan argi daukate euskal gizartea anitza dela, baina hautetsi egituretan sartuz gero laster ohartzen gara erakunde horien arau eta mugen barne ibiltzeaz beste aukerarik ez dagoela. Norbaitek erranen du hori dela *realpolitikera* makurtzea... baina beste biderik ba al da? Gogoe-ta hau urrunago eramanda, nire iritzia da abertzaleak ezin duela berari egokia iruditzen zaiona gizarte osoari inposatu, eta, ordea, euskal kontzientzia maila hori ez duenaren konbentzitzeko ahaleginak egitea daukala lehendabiziko zeregina. Ez da lan makala ez, baina nik neuk bizi dudan esperientzia xumetik ateratzen hasia naizen ondorioztatzea da aniztasun politiko horretatik emaitza baliozkoak datozela, horietatik lehendabizikoa delarik bata bestea hobeto ezagutzearena eta elkarrekin lan egiten ikastearena. Angelismoa dela ematen du beharbada, baina errealitatea ere badela lekuko nago.

## **Botere publikoek bultzatu eta proposatu...**

*Xiberao* Herri Alkargoa, beraz, *Euskaraz bai* dinamika obratzeko ahaleginetan ibiliko da. Erabaki hori hartu aurretik, baina, gure hizkuntzaren sustatze bidean urrats batzuk

bere kabuz eginak zeuzkan. 2005. urtean aho batez onartutako *Eüskararen libürü xurian* zehaztutako ardatzak gauzatzearekin bat, 'Eüskara batzordea' eratu du, horrek 2009. urteko diru sar-irteeretan 34.000 euro eskuko zeuzkalarik. Gutxi oso gutxi ere dagoela erran daiteke eta ni neu ere ados nago horrekin. Hargatik, kontuan hartu behar da diru sartzeta eta inbertitze horien barne ez dauden euskararen sustapenerako beste ekintzarik burutu duela Herri Alkargoak. Horien artean aipa nezake Basabürüko ikastolari eraikin berria hornitzea —obratze hau, baina, Frantziako hezkuntza legeak debeku egiten baitu, ezin da ofizialki Herri Alkargoarena bezala aurkeztu!... Aipa nezake ere Maulen eta Alozen eraturako haurtzaindegi berrietan elebitasuna arautzat jartzea... elebitasunaren zepoak nabariak baldin badira ere frantsesa oso nagusi dagoen gizarte antolaketa batean. Aipa nezake oraino Herri Alkargoko barne eta kanpo komunikazioan ahalak oro euskaraz ere agertzea, jokabide horren muga ez delarik batere politikoa... bai ordea euskaraz egiteko edo ezartzeko giza baliabideak —euskaraz idazten edo itzulpenak egiten dakitenak gutxi izanda— oso murrizak izatearena.

Euskararen sustatzeko eta bultzatzeko nahikunde politikoari aurrea hartzeko edo erantzuna emateko xedeetan, *Xi-beroa* Herri Alkargoak ekimen berezi bat abian jarri du, hau ere 2005ean onartutako *Eüskararen libürü xuriako* egitasmoetan agertzen zelarik. Ekimen hori da itzulpengintzako zerbitzu bat, hots, ofizioko itzultzaile sare bat antolatzea, helburua delarik kalitatezko euskarazko itzulpenak eskaini ahal izatea. Ni neu arduratzen naiz euskaratzaile horien trebatzeaz... hor ere gogoan argi daukadalarik benetako normalizazioa litzatekeela idatziak euskaraz zuzenean eginikoak izan daitezen eta ez frantsesetik itzulitakoak. Alabaina, euskararen ofizialtasunik izango ez den bitartean, erdipurdiko neurrietara mugatuta egongo gara... hori lortu ondoan ere egoera diglosikoa egongo delarik, luzaz seguru asko, indarrean.

## ... herritarrek eskaintzari muzin!

Euskara zerbitzu hori eraketa eta trebakuntza bidean delarik, egitura publiko gisa jokatzea gogoan izan dugu. Hala, azken urteotan Zuberoako herriko festa egitarau eta kartel ia guztiak —Muskildi eta Aterei izango dira salbuespen bakarrak!— erdara hutsean zeudela oharturik eta egoera tamalgarri honi buelta eman nahian, itzulpen taldeak eskutitzak helarazi dizkie festa batzorde, elkarte eta jai antolatzaile guzti-guztiei. Herri Alkargoaren gutun-azala, paper izenburuduna eta ‘Euskara eta Kùltùra’ batzordeko presidentearen izenpetzea zeramatzan korrespondentzia horretan proposatuta zegoen jai edo beste kultura antolaketetako egitarau eta kartelak euskaraz ezartzeaz arduratzea edo horretarako laguntza eskaintzea. Eta hori guztia dohainik egingo zela zehaztuta zegoen, argi eta garbi... Ildo beretik, Zuberoako saltoki handienei proposatu zaie —beti ere Herri Alkargoaren Euskara batzordearen eskutik— euren seinaletika gure hizkuntzan ere ezartzea, beraientzat diru gastatze pikorik ere ez zela izango azpimarratuta. Eskutitz horiek bidali dira, ez behin, ez birritan, hiruzpalau aldiz baizik... eta interesaturik izango zelako erantzun bakar bat ere ez da Herri Alkargora etorri!

Ondo neurtu beharko genuke egoera honen esanahi guztiz kezagarria. Antzina, euskararen alde ezer ez zutela egiten salatuta ziren egitura publiko horietatik batek euskararen bultzatzeko ekimen bat planteatzen du eta herritarrei doako proposamen baten baliatzeko aukera ematen. Eta herritarren aldetik ez da baiezko erantzun bakar bat ere bueltatzen! Zin-zinez badago hor zertan gogoetatzerik eta arranguratzerik. Herritarren artean euskararen axola hain da ahuldua, non ez duten eskaintza bati ere ihardesteko indarririk egiten? Ala uste al dute egitura publikoek dutela lehentasunez arduratu behar euskarari bizi-esparruak paratzeaz eta gauzatzeaz? Nola bizi daiteke euskara, herritarrek beraiek ez badute berezko esku-hartzerik obratzen?

Galde minbera hauei ez diet orainokoan erantzunik antzematen. Gertatzen ari dena larria dela ohartuta nago, baina arazoari nondik heldu behar zaion ez dakit behin-behinean. Gogoeta hau mutur-muturreraino eramane beharko banu, hauxe izango litzateke gogora etorriko zaidan galdera itzela. Egitura publikoen eta kargudunengandik euskararen aldeko giroa inoiz baino «hobea» dirudien une hauetan... ez al da euskara bere azken arnasetan sartua, herritarren ezaxolak horren nabaria dirudielarik? Euskara karrikan, idatzietan edo beste hainbat esparru publikotan ikusteak ihardukitzerik ez eragiteak ez al du esan nahi, azken batean, jendeari bost axola zaiola... gure hizkuntza bizirik egotea ala berearena egitea?

## Pastoral ugari... euskaldun gutxi

Idazlan hau kezka eta neke artean aurreratzen ari nintzela, honako mezua helarazi zidan, hedabideetako beste ordezkariari bezala, Mixel Etxekopar Gotaine-Irabarneko seme eta musikalaria-kantari ezagunak:

Ehün urte eginen dü 2063. urtean ‘Zantxo Azkarra’, Etxahun Iruriren pastorala sortü zela Gotaine Irabarnen. Geroztik, bi pastoral eman dügü herrian: ‘Pette Beretter’, 1973. urtean, Etxahun Irurik hortürrik, eta ‘Eüskaldünak Iraültzan’, 1993. urtean, Jean Louis Davantek izkiribatürrik.

*Beraz 2063. urtea Gotaine Irabarneko herriak etxeke nahi lüke, bere pastoralaren emaiteko.*

Geia ez dügü oraidanik agertzen ahal, bena hura salatü gabe erran dezagün emazte famatü baten bizia kontatüko düala. Emazte hori 2013an Gotainen sortüko da eta eüskaldün handi horren ixtoria harrigarria pastoral gisa goraiapatüko dügü, zor deiokegün ohore güziarekin.

Iragarri honek ez du —agian!— nehor sinestean harrapatuko... argi baita Etxekoparren broma bat dela. Alabaina, umorearen gibelean zerbaiten salaketa ere bada eta hau da pastoralak azken hogeita hamar urte hauetan bizi duen



lehia zorrotzaren ustezko gehiegikeriak. Izan ere, urtero pastoral bat badelarik —batzuetan gertatu izan da ere bi izatea—, jakin behar da egutegia 2016 arte finkatuta dagoela gaur egun! Datorren urtean Barkoxek hartuko duelarik lekukoa, hurrengoetan tartekatuko dira Larraine, Arrokiaga, Sohüta, Zalgize-Iruri, Garindaine, Atharratze. Idatzi izan dut —*Berria* egunkarian edo beste nonbait— pastoralak *urrezko aroa* bizi duela eta hori egia da. Nire iritzian poztekoa da Zuberoak horrelako suharra eta atxikimendua erakuts diezaion pastoralari. Luzaz egin gabe egongo balitz, hori bai kezkatzekoa izango litzatekeela... Beraz, ez nator bat Mixel Etxekoparren bromaren atzean hauteman daitekeen kritikarekin. Pastoralak arrakasta handia gozatzen du Zuberoan, XXI. mende honetan oraino eta horretaz kexu izatekorik ez litzatekeela izan behar iruditzen zait. Ez nau ez pastoralak lerro-lerro eta urtero egoteak kexatzen... bai aldiz, pastoraletan euskarari egiten zaion zorteak eta pastoralak ez duela euskararen sendotzeko balio ohartzeak. Pastoraletan arizale ugari bada orain —sobera beharbada, baina nola ezetza eman oholtzara igo nahi duen herritarrari?—, eta horietan denek euskaraz ez jakitea, tamalez baina, Zuberoako gizartearen isla da nonbait. Baina, euskaraz dakitenak eta aski ondo ematen dutenak gutxiengo handian izatea... hori bai benetan larria dela! Guztiz kezagarria ere —erdaldunak nagusi direlako, hain zuzen— pastoraletako mustrikak (trebatze saioak)... frantsesez egin daitezten!... Bide horretatik, nora goaz? Nola ulertzen eta azaltzen ahal dugu euskal kulturaren altxor handienetatik bat erdararen menpeko eta baldintzapeko bilaka dadin?

Galdera asko eta asko *Jakinen* kultur balantzerako nire aurtengo ekarpen honetan. Eta erantzun baikorrik emateko ikuspegi gutxi, oso gutxi. Urteak daramatzat erraten eta errepikatzen Zuberoan —eta Ipar Euskal Herri osoan, oro har— euskara hiltzorian dagoela, desagertzeko arrisku gorrian dela. Hortaz, aldi honetako nire azken galdera izango da: zergatik balio du 3.500-4.000 lagun etor daitezten gaur

egun pastoral bat ikustera... biharko batean arizale bakan batzuk soilik izango badira euskaraz hitz egiteko gai? Jada erran izan dudan bezala, *trajeria* izen zaharragoa ere darman pastoralak ez luke bilakatu behar euskararen tragedia.¶



ANDRES URRUTIA

## **Euskal kultura 2009. urtean: ez lotsa, ez etsi**

Leon Leon apaiz eta euskal idazle trebeak horixe idatzi zuen *Jesu-Kristoren Imitazionea* deiturikoaren itzulpenean: *ez badiozute ere ginarrria berehalakoan atzematen, ez lotsa, ez etsi: emeki emeki aldeko hitzek eginen dautzuezte argi.*

Tenore berean ikusi dut nire burua ere, urteroko lerro hauek idaztean, gero eta zailago egiten zaidalako euskal kulturaren baitan sumatzen ditudanak ulertzea eta barruratztea.

Izan ere, bi mila eta bederatzigarren urtea krisi ekonomikoaren urtea izan da. Tropelka, egunero, bateko eta besteko xehetasunak eman zaizkigu komunikabideetatik, orain arte poz eta ugari zen hori ilun eta hits bihurtu arte.

Itxura denez, gure ahalen gaintetik bizi izan gara, eta orain datozkigu beherapena eta frogaldia. Diruz eskas, zergez eskasago, gure patriketan nabarmentzen dugu gabezia hori, eta arin aldarrikatzen dugu konpondu beharra. Konponketa bilatzeko orduan, aldiz, badakigu gauzak nola lerratzen diren.

Diru gutxiago izanda, guztion diruak banatu behar direnean, badatoz murrizketak, kulturaren ildotik eginak, gizar-teak beste premia are premiatsuagoak baititu.

Ez diet nik arrazoirik kenduko halakoak esaten dituztenei, jakin baitakit baliabideak urri eta motz gertatzen direnean, aurretiaz bete behar direla lehen mailako beharrianak.

Bete edo ase, gero eta nekezago egingo zaigu horiek guztiak erabat estaltzea. Are gaitzago, gainera, kultura alboratzen badugu eta luxuzko zerbait balitz legez hartzen badugu.

Kulturaz idazten dudan bezainbatean, jar diezaiola lerro hauen irakurleak kultura deituriko horri euskal izenlaguna aurretiaz, eta jardun dezagun bitzuok euskal kulturaz, horretan ere, kaltetua eta azpiratua geratzeko arriskuan ikusten baitut hura, krisiaren doinu beltzaren aitzakiarekin.

Natorren berriro Leon Leonen *Imitazionea* izeneko horretara. Hor dira, iragarle batek esanak bezalaxe, hurrengoak: *On dugu noizetik noizerat, atsegabe eta nahigabe zombaiten jasaitea, gizona bere-baitaratzen baitute ardura, gogoratzen diotelakotz bidekari bat dela eta lur huntako zeretarik ez dela igurikatze deus.*

Ez dakit lur honetako zeretarik deus igurikatzen zuen egi-leak. Nik, ordea, espero dut krisiaren zirimolak euskal kulturaren eta euskalgintzaren baliabideak gizar-tean dagozkien mailan gordetzea, uste izanik, aldi berean, luxuzko zerbait baino, behar-beharrezko den osagaia dugula. Horrek ematen digu, gure eguneroko bizimoduan, nortasuna ez ezik, izatea ere bai.

Orobat, berebiziko ahaleginak egin behar dira, baliabide urri horiek gero eta hobeto kudea daitezten, guztion artean eta guztion onerako.

Ez naiz horretan larritzen, ezta harritzen ere, Leon Leonen hitzak nireganatzen ditudanean. Lotsarik ez dugu izan behar gure euskalduntasuna aldarrikatzeko. Etsi ez dugu egin behar gure kulturari euskarriak eta eustazpiak eskaintzeko, krisiaren krisiaz, gurea betiko krisian egoten baita, arian-arian lanarekin eta ahaleginekin konpondu behar izan duguna.

Diru gutxiago izan dugu; gutxiago izango da bi mila eta hamargarren urtean; diruak, hala ere, ezin du konbentzimendua erosi, eta euskalgintzaren konbentzimendua dugunok, bistan da, hitz gozoak baino, egintza esanguratsuak behar ditugu, horiek argia ekarriko digutelako, egun ulergaitz egiten zaizkigun egoera eta egitateetatik hainbaten aurrean.

## Laurogeita hamar urte, ehunka partaide

Laurogeita hamar urte bete ditu Euskaltzaindiak bi mila eta bederatzigarren urtean. Joanak joan, euskararen urak behin baino gehiagotan joan dira Euskararen Akademiaren zubipetik.

Akademia, funtsean, horixe da, gizarte euskaldunaren eta kulturaren arteko zubi antzekoa, zinez euskarazko kulturaren kezka duena, nonahi eta noiznahi.

Kezka horrekin jaio zen, edo, hobe esanda, sortu zuten, duela ia mende osoa, orduko haiek. Kezka berberarekin jarraitzen du egun ere, artean gerrak, iraultzak, demokrazia, errepublika, monarkia, frankismoa... ezagutu dituela. Horietan guztietan erakutsi du bere burua Akademiak, eta jakin izan du bereari eusten, alegia, euskararen eta euskal kulturaren arrangurari erantzuna ematen.

Helburuak ere halakoxeak jarri zizkioten: euskara ikertu; euskara jagon. Halaxe erakutsi zuten ordukoek euskararen eitea, XX. mende hasieran. Nago ez ote garen antzeko kinkan egun ere, euskara ikertzeko parada eta aukera ugariak ditugunean, hizkuntzarena jagoteko lana eta erabilera eskuetatik doazkigun bitartean.

Helburuetarako goiburua ere jarri zioten sortzaileek: *ekin eta jarrai*. Goiburu bera erabili dute Joanmari Torrealdaik eta Imanol Muruak Euskaltzaindiaren egungo irudia, egungo zereginak, hitz gutxitan esanda, egungo erreportajea egiteko, erakundearen biziari eta arimari dagokiena, eta, historiari muzin egin gabe, harago doana, hurrengo urteetarako egitasmo osoa baita hori sakontzea.

Egitasmoak ditu Euskaltzaindiak, eta, ororen gainetik, bere lana gizarteak hartu eta bere egin dezan. Egitasmoak ditu Euskararen Akademiak lan egiteko XXI. mende hasieran, garai honek eskatzen duenaren arabera, baliabide egoki eta eguneratuak eskuan dituela.

Badakit batzuen ustez gizartetik oso aparte ikusi edo ikusarazi nahi dela Euskaltzaindia. Beharbada, haren zereginak

beste nonbait edo norbaitek egin ditzakeelakoan. Gurean, ordea, konpromisoa eta engaiamendua ezin argiago daude: baliabideak egoki kudeatzea, euskararen arloan akademiari dagozkionetan ikerketa-lana bultzatu eta lan hori artez gizarteratzea, eta, *last but not least*, harremanetarako zina, euskalgintzan ari direnekin batera aurrera joateko, euskararen eta euskal kulturaren aitzinamenduan.

Norbaitek idatzi zuen *Imitazionea* deiturikoan, eta Leon Leonek esku finez itzuli, honako hau: *Liburu Sainduetan egia behar da bilhatu, ez hizkuntzaren ederra. Liburu Sainduak heien egileen gogo berarekin behar dira irakurri. Hetan mintzaiaren gochotasuna baino gehiago gure ona behar dugu bilhatu... Ez beha erraileari, beha erranari.*

Nik ere, laurogeita hamar urte geroago, gauza bera esan diezaioket euskal gizarteari: ez begiratzeko horrenbeste emaitzari, pertsonari, ezpada erakundeari, eta, so egiteko, bereziki, euskararen aldeko mezua eman eta ematen duen erakunde horri.

Kausituko du edonork, ziur nago, zer hartu probetxuzko, eta zer kritikatu ugari. Dena den, erakundearen zereginetan aurkituko ditu ehunka izen, Euskaltzaindiaren zereginetan gailendu direnak, eta, guztien biltzaile, erakunde bakarra, hizkuntza bat eta bera den modukoa, Euskal Herri osoan zehar zabalduta, etorkizunari irekia eta euskalgintzaren partaideekin ildo berriak jorratu nahi dituen euskararen ibilbidean.

Horren erakusgarri *Erlea* aldizkaria eta *Kalendrera*. Lehen, Bernardo Atxaga euskaltzain osoaren ekarpena. Bigarrena, Xabier Kintana euskaltzain osoak eginiko argitalpena, Leizarraga protestantearen testutik ekarria. Bitzuo erakusten dute zerbait desberdin, zerbait diferente, bi-biok nahi dutelako erakutsi Euskaltzaindiaren presentzia, egun, beste modu batean gauzatu behar dela euskalgintzan. Erresistentzia-aldietan nahiz demokraziaren garaietan, Euskararen Akademia dugu bilgune eta batzar-toki, guztion artean garatu beharko duguna.

## **Adiskideari ohore: Juanjo Zearreta joan zaigu**

Kostata idazten ditut lerro hauek, kosta egiten du-eta aspaldiko adiskideari «beti arte» esatea, zure aldamenean izan duzunean urte luzeetan.

Badakit askok aurpegiatuko didatela, bi mila eta bedera-tzigarren urteko kronika hau egitean, gauza anitz alboratu ditudala. Baliteke. Hala izatean, zernahi gisaz, inork ez luke hartu beharko minik edo herrarik, nire barrukoa hustu al-dera egiten baitut testu hau.

Agur-testua, adio-testua. Agur, Juanjo Zearretarengan agurtzen baititut bera eta belaunaldi oso bat, egun eskura ditugun azpiegitura kulturaletatik hainbat eraiki zituztenak, lan isil eta onuragarrian. Hala egin zuten, inori lanaren fak-tura kobratu gabe. Hala egin zuten, bestalde, sinesten zute-lako posible zela euskararentzat etorkizun hobea, egitura-tua eta errotua, duintasunez eta eragingarritasunez. Sarritan ematen du ahaztu egin dugula hori, eta, euskararen funtzio-nario egin garen neurrian, «profesionalizatu» egin garen neurrian, orduko hura kareletik bota behar dugu, ezer ez balitz bezalaxe.

Agur egitearekin batera, adioa ere ematen diot adiskidea-ri, gehiago ez dudalako izango nire aldamenean, gehiago ez duelako bere barnean izango Euskaltzaindiak, halako eragi-le prestu eta duina, euskalgintzaren mundua erro-errotik ezagutzen zuena, urte askoren eskarmentua zeukalako.

Herri-gizona joan zaigu. Ohore eta omena berari, eta lana guri, harenari eutsi diezaiozun.

## **Amaitu beharrean**

Uste dut norbaitek, dagoeneko, bere buruari galdetuko diola ea aurtan zergatik ez dudan Akarregi deitu lerro hauek idazteko.

Egia esan, laguntzaile aparta izan dut urteetan, honelako kronika laburrak ontzeko orduan. Aurtan, hala ere, ez dut

gogo handirik izan berarekin hitz aspertu bat izateko euskal kulturari buruz. Ikusi nuen azkenekoz Arratzun eta Foruan, biotan egon baitzen adi-adi Lakarra eta Torreal dai euskaltzain oso sartu berrien hitzei, euren sarrera-hitzaldiak zirela eta.

Etsita ikusi nuen Arratzun; are etsituago Foruan, bi leku horietako eliz atarian berarekin egoteko aukera izan bainuen, labur bada ere.

Foruan, bestalde, etsituta ez eze, kezkatuta ere, gerogarrenean etorriko zen epaiketa ez-bidezkoaren kausaz. Joanmari Torreal dai eta *Egunkaria* kazetaren beste eragileak ikusten zituen Akarregik arduratuta, inola ere merezi ez zuten epaiketa baten zain. Epaiketa hori, zer esanik ez, justizia ize-neko baten bidetik dator.

Ikusi beharko da justizia deituriko horrek, itsu omen denak, zer egiten duen euskalgintzaren arazo horretan. Artean, zalantzarik ez, badirudi epaiketa horretara deituak, aldez aurretik eta epealdi luze honetan, epaituak eta zigortuak izan direla.

Horrexegatik, ez dut Akarregi deitu. Jakin badakit, lege-kontuetan aditua bada ere, euskal kulturari zaleago dela eta horrelakoek ez diotela ekartzen sufrimendua besterik.

Dagoela. Datorren urtean, agian, beste behin ere deituko dut, eta bion artean azalduko dugu izan behar ez zena eta izan zena, hain zuzen ere, epaiketa horren kronika latza. ¶





## EGUZKI URTEAGA

### **Euskararen aldeko legea eta euskalgintzaren mobilizazioa. Baikortasunetik ezkortasunera**

2008ko maiatzaren 7an suertatu zen legebiltzarraren bilkuran, Christine Albanel-ek, Frantziako Kultura ministroak, jakinarazi zuen gobernuak lurralde hizkuntzen aldeko lege bat proposatuko zuela 2009an. Zenbait aste beranduago, europar itunei egokitzeko frantses konstituzioaren erreforma aprobetxatuz, legebiltzarkideek lurralde hizkuntzak bertan sartzea erabaki zuten. 75-1. artikulua zioen: «lurralde hizkuntzak frantses ondarearen parte dira». Iragarpen eta batez ere bozka horrek euskararen ezagupen ofizialaren bidean urrats berri bezain garrantzitsua suposatzen zuen.

2009ko martxoaren 9an, Euskal Konfederazioko lehendakariari egindako erantzun batean, Christine Albanel-en kabinete zuzendariak, Brueilly jaunak alegia, lurralde eskualdeen ezagupenaren aldeko lege berri bat osatzearen konpromisoa baieztatu zuen, baita bere modalitateak zehaztu ere. Eskutitz horretan zioen:

Ministroak baieztatzen dizu gobernuak, ezagupen hori gauzatzeko, nazioaren hizkuntza ondareari itxura bat emango dion erreferentzia kokapen bat finkatzeko asmoa daukela. [...] Horrela, 2008ko maiatzaren 7an, gobernuaren izenean lurralde hizkuntzei buruzko lege egitasmoak, irakaskuntza, komunikabideak, kultura eta zerbitzu publikoak ukituko ditu eta, aurtan bertan, oraindik finkatua ez den egun batean aurkeztua izango da bi legebiltzarren aurrean (kongresuaren eta senatuaren aitzinean).

Eta urrutiago zehazten zuen:

lege egitasmo horren inguruan hausnarketa bat irekiko da eta ekarpen guztiak, bai lurralde hizkuntzak sustatzen dituzten elkarteak, bai tokiko administrazio publikoak, arreta handiz aztertuko eta erabiliak izango dira. Egingo dituzten analisi eta ekarpen eraikitzaileei esker, aukera eskainiko dute eztabaida eta hausnarketa elikatzeke, lurralde eskualdeen babes eta sustapenerako beharrezkoak eta egokiak zaizkion erabakiak hartuz.

Ministroak begi onez ikusten zuen, ukituak dauden eragile guztien parte-hartzearekin, demokrazia kultural bat eraikitzeke urratsak eman izana. Segurtatzen zion, Estatuak, hizkuntza politika boluntarista bat osatuz eta alor horretan legedi propioaz hornituz, batasunari fabore egin nahi diola, ez uniformitatean, aniztasunean baizik.

Aitzitik, geroztik frantses gobernuaren jarrera ez da hain baikorra izan. 2009ko irailaren 25ean, lurralde hizkuntzei buruz Baionako Fakultatean antolatu zen kolokioan, lurralde hizkuntzen ezagupenari buruzko lege egitasmoa idazteko ardura duen North jaunaren hitzak ez ziren aproposenak izan. Izan ere, azken horrek jakinarazi zuen, kalitate txarreko grabaketa baten bidez, ezin zitekeela lege egitasmoaz mintzatu, beste azalpenik eman gabe. Are gehiago, ukatu egin zuen frantses gobernuak inongo konpromisorik hartu zuenik. Euskalgintzako ordezkariak urriaren erditsuan Baionako suprefetarekin ukandako bileran jarrera aldaketa horren baieztapena eduki zuten, Estatuaren ordezkariak esan baitzien ez zela gobernuaren asmoetan sartzen lurralde hizkuntzen ezagupenaren inguruan lege egitasmorik aurkeztea. Ministerioak dio frantses konstituzioan egindako aldaketak nahikoa berme eskaintzen duela.

## **Euskalgintzaren erreakzioa**

Egoera horren aurrean, euskalgintza osatzen duten eragileek mobilizatzea erabaki dute, are eta gehiago jakitean euskararen egoerak larria izaten jarraitzen duela Ipar Euskal Herrian. Izan ere, berrikitan plazaratu diren bi txostenek

euskararen egoera kezkarria agerian uzten dute: 2006an egindako IV. Inkesta Soziolinguistikoak eta Unescok urte hasieran argitaratu duen *Arriskuan diren munduko hizkuntzen atlasa* delakoak. Euskalgintzako ordezkarien arabera, euskara berpizteko, bi baldintza betetzea ezinbestekoa da:

- Batetik, euskal herritarren atxikimendua. Azken inkesta soziolinguistikoak atxikimendu horren froga ugari ematen ditu: 1) %93k uste du euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela etorkizunean, 2) %82rentzako Ipar Euskal Herrian bi hizkuntza egoteak ez du arazorik planteatzen, 3) %83k euskararekiko interesa erakusten du, 4) %51k begi onez ikusten du administrazioan sartu ahal izateko euskara menperatu behar izana, eta 5) %56k garrantzitsutzat jotzen du haurrek euskara eskolan ikastea.

- Bestetik, euskararen ofizialtasuna. Frantses konstituzioan lurralde hizkuntzen aipamena egotea aurrerapauso ukaezina bada, ez da nahikoa euskarari behar duen lege geriza eskaintzeko, ezta ere hizkuntza politika handinahi eta boluntarista bat osatzeko eta ondoren gauzatzeko. Izan ere, Euskararen Erakunde Publikoaren eskumenak eta aurrekontuak mugatuak izateaz gain, irakaskuntzari, komunikabideei eta zerbitzu publiko anitzei loturiko politikak Estatuak zehazten jarraitzen ditu, lurralde administrazioen erabaki ahalmenak urriak izanik.

Hori jakinda, Euskal Konfederazioak eta Kontseiluak ezinbestekotzat jotzen dute euskararen aldeko hizkuntza politika sendo bat martxan jartzea, alor nagusiak ukituz: belaunaldi berriak erabat euskaldunduko dituen hezkuntza sistema bat sortzea, administrazioa euskalduntzea, alor sozioekonomikoa euskalduntzea, helduen euskalduntzea estrategikotzat jotzea, hedabideetan kuotak ezartzea, unibertsitatean eta lanbide heziketan euskarari sagaratuak zaizkion aurrekontuak emendatzea. Helburu horiek lortzeko, euskalgintzak Euskal Kulturaren Sustengurako Herrienarteko Elkargoari mozio bat helarazi dio eta, azken horrek, bere 2009ko martxoaren 9ko bilkuran, aho batez onartu du. Mozio horren bi-

tartez, sindikatu horrek frantses gobernuari eskatzen dio konstituzioaren 2. artikulua alda eta dagokion legedia onar dezan. Era berean, Frantziako beste herriekin eta legebiltzar-kideekin bildu da legearen premia azpimarratzeko eta bere edukia ahal bezain ausarta izan dadin.

## Deiadar

Euskararen ofizialtasuna eta hizkuntza politika ausart bezain eraginkor bat lortzeko, euskalgintzak Deiadar berri bat martxan jarri du. Iragarri den legeari dagokionez, Deiadarraren sustatzaileek diote

aukera paregabe hori baliatu behar dela euskararen beharrak zein diren oroitarazi eta goraki aldarrikatzeko. Lege horrek ez du gaur egun egiten diren gauza apurretara mugatu beharko: lege-koadroak zabala izan beharko du eta hizkuntza politika eraginkor bati atea ireki beharko dizkio.

Testuinguru horretan, are eta gehiago lege egitasmoa bertan behera erortzeko arriskua dagoelarik, «garaia da mobilizatu eta indarrak batzeko, deiadarra jotzeko».

Kari horretara, deiadarraren sustatzaileek bilkura publikoak antolatu dituzte Ipar Euskal Herriko bederatzi herrietan irailaren 29, 30 eta urriaren 1ean. Maule, Hazparne, Hendai, Donapaleu, Angelu, Senpere, Donibane Garazi, Donibane Lohizune eta Kanbo dira aukeratutako herriak. Bilkuraren horietan, mobilizazioaren zergatia eta garrantzia azpimarratzeaz gain, informazio lana segurtatzeko ardura edukiko duten tokian tokiko lan taldeak osatu dira; azken urratsa, 2009ko urriaren 24an Baionan suertatu den manifestaldia izan delarik.

Deiadarrek hainbat eragileren babesa jaso du, hala nola Kontseiluarena irailaren 16an Bilbon antolatu duen prentsaurreko batean. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak hasieratik babestu du Deiadar ekimena. Xabier Mendiguren idazkari nagusiak azpimarratu du «zeregin handia»

dagoela Ipar Euskal Herrian euskarari dagokionez, eta, horregatik, euskaltzaleei manifestaziora joateko eskatu die. Izan ere, «euskararen etorkizuna denon eginkizuna da. Etorkizuneko euskararen geroa dago jokoan».

Baina, Kontseilua ez da izan Deiadarri babeska eskaini dion erakunde bakarra. Hain zuzen ere, hainbat udalek beraien sostengua adierazi diote. Horien artean, honakoak aipa daitezke:

- Irailaren 24an bildurik, Lehuntzeko herriko batzordeak euskararen aldeko mozioa onartu du.
- Urriaren 1ean, Aiziritzeko herriko etxea euskararen legezko ezagupenaren alde posizionatu da.
- Urriaren 4an, Deiadarrek Mendiondeko udalaren babeska jaso du.

Azkaine, Izura, Bastida, Maule ala Baigorriko udalek antzeko jarrera hartu dute. Guztira 20 herri baino gehiagok izenpetu dute. Hala ere, bi alderdi azpimarragarriak dira: batetik, izenpetzaile gehienak, guztiak ez esateagatik, herri txikiak direla, ez baitago BABeko hiririk ezta ere Donibane Lohizune ala Hendaia bezalako udalik; eta, bestetik, herri gehienak Lapurdi barnealdean zein Behe Nafarroa eta Zuberoan daudela. Beste modu batera esanda, udalherri horiek Ipar Euskal Herriko biztanlerian zati txiki bat besterik ez dute ordezkatzeko, nahiz eta Ipar Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoa aldarrikapen horren alde egon.

## **Deiadarren aurrekariak**

Dena den, Deiadarra hainbat ekimenen jarraipenean kokatzen da. Izan ere, lehen Deiadarra 1989an antolatu zen euskal kulturaren eskubideen aldeko babes handia lortuz. Horren ondorioz, Frantziako Hezkuntza ministerioak eta Seaskak (ikastolen federazioak) hitzarmen iraunkorra izenpetu zuten baita Euskal Kultura Sustengatzeko Herri Elkargoaren sorrera sustatu ere. Hortik gutxira, EHEk *Bide seinaleak euskaraz* kanpaina martxan jarri zuen eta Euskal Kultur

Erakundeak ateak ireki zituen, kulturgintzaren ezagupen ofizial baten adierazle izanik. 1992an, bigarren Deiadarra martxan jarri zen, baina, nahiz eta mobilizazioa arraskatsua izan, *Euskal Herria prospektiba 2010* sustatuz, frantses konstituzioaren 2. artikulua moldaketak perspektibak ilundu zituen. Izan ere, artikulua idazketa berriaren arabera: «frantsesa da errepublikaren hizkuntza».

1994an, Deiadar kolektiboak Euskararen Jardunaldiak antolatu zituen, non *Euskararen agiria: berehala 40 neurri eta gomendio* dokumentua plazaratu zen. Alde batetik, hainbat garapen eta ondoren hautetsien kontseiluen sorrera eta euskarazko bide-seinaleen agerpena eragin bazituzten, besteak beste, Toubon ministroak uko egin zion Frantziak hizkuntza gutxituen Eurokarta izenpetzeari. Baina, Ipar Euskal Herriko herritarren haserrea baretzeko eta irrikari erantzuteko, botere publikoek ETB Iparraldean ofizialki jasotzeko ituna izenpetu zuten eta Euskaltzaindiari interes publikoko ezagupena aitortu zioten.

Hala ere, egoera horrek euskalgintzaren sakabanaketa agerian utzi zuen. Eraginkorragoa izan nahiz, Euskal Konfederazioa sortu zen *Euskararen agiria* oinarritzat hartuz. Une berean, Garapen Kontseiluak lehenik *Lurraldea* dokumentua eta *Euskal Herriaren garapen eta antolaera eskema* osatu eta ondoren onartu zituen, jakinik bakoitzak euskarari sagaratutako atal bat zeukala. 1998an, Deiadar mobilizazio zabala izan zen ofizialtasuna eta hizkuntza antolaketa eskemaren gauzapea aldarrikatzeko, *Bete hitza, euskarari lege geriza* lelopean. Eta bi urte beranduago mobilizazioa are garrantzitsuagoa izan zen, botere publikoen erreakzioa eraginez, Euskal Herriko Hitzarmen Berezia adostu baitzen, hizkuntza atalak hamar ekintza zituelarik. Horietariko bat Hizkuntza Kontseilua sortzea izan zen.

Une berean, euskalgintzak *Bai euskarari* akordioa sinarazi zuen, eta Euskal Konfederazioak udalerriei hitzarmen bat adostea proposatu zien euskara beraien herrietan susta zezaten. 2002 eta 2003an, Batera plataformaren mobilizazioa-

ren ondorioz, Hizkuntza Kontseilua eta Hizkuntza Politikarako Obragintza Publikoa, Euskararen Erakunde Publikoan bilakaraztea erabaki zuten. Erakunde berriak Euskal Konfederazioak udalekin hasitako lanaren jarraipena hartu zuen, baita Euskal Herriko Hitzarmen bereziaren segida hartuko zuen hizkuntza egitasmoa zehaztea ere.

Beraz, ukaezina bada azken 25 urteetan lan asko egin dela eta aurrerapenak lortu direla, ezin daiteke euskararen babesa eta sustapena euskalgintzaren bolondresgoaren eta politikarien nahikeriaren gainean soilik oinarritu. Horrez gain, legeak bermeak eskaintzea ezinbestekoa da, nahiz eta legeak ez duen dena egiten eta eragile publiko zein pribatuen konpromisoa ezinbestekoa den.¶



## IÑAKI ZABALETA URKIOLA

### Zentsura eta erretorika

«Exijitu egiten dugu, inork ez dezala bere borondatearen aurka bere burua isilarazi, eta ez fede-gizonek ez ordezkari politikoez ez dezatela inoiz inor, artista edo herritarra, isilarazteko tentaldirik izan», esan zuen Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak Arantzazuko kriptan, Nestor Basterretxearen horma-irudi berrituak inauguratzean, 2009ko azaroaren 8an.

Arantzazukoa egun handia izan zen euskal kulturarentzat, eta Basterretxeak esan zuen modura, «haurdunaldia luzea izan da, baina erditzea ongi atera da, eta ederra izan da». 1953an ekin zion margolan horien sorkuntzari, baina elizaren dotrina eta filosofiarekin «zintzoa» zen fraideren batek ezabatu egin zituen lehen marrazkiak. Isilpean, gauetz, zentsura egin zuen, kristautasunaren balioen eta estetikaren izenean seguruenik, frantziskotarren hierarkiak eta Vatikanok Basterretxeari eta Oteizari debekua jarri zieten arrazoi berengatik. Gaur egun, hainbat politikari eta kultura-arduradunek zentsura egiten dutenean, 'demokraziaren' izenean egiten dute, gizartearen antolaketa-era hori erlijio hieratiko, interesdun eta formala bihurtuz; edo bestela, giza balio eta eskubideen babesaren izenean zulatzen dute adierazpen askatasuna. Ez Espainian bakarrik, ez nazioartean soilik, Euskal Herrian ere praktika handia du zentsurak: 1981ean, Bilboko alkate jeltzale Jon Castañares-ek liburuak erre zituen. Eta ondoren, zentsura eta autozentsura eguneroko kontua da hemen.

Urteak harkaitzetan behera joan ziren, fraide berriak etorri, eta Basterretxeak 1983an bukatu zituen margoak. Baina



Arantzazuren historia preziatuak artelan horri amaiera hobea ematea merezi zuen; baina Arantzazukoek XXI. mendera indar eta espiritu berrituz sartu nahi zuten; eta lortu egin zuten 2009ko igande horretan, lehen 'Arantzazu Egunean'. Badirudi Arantzazu berriz ere topagune garrantzitsua bihurtuko dela euskaldun eta erdaldunentzat, fededun eta fedegabekoentzat, gizakia erdian jartzen duen pertsona ororentzat, gogoeta egin nahi dutenentzat; eta Arantzazuko Adiskideak elkarteak laguntza handia eskain dezake.

Euria, hotza, haizea, kazkabarra, ia erausia izan genuen hara joandakook, eta Bermeoko artistak iradoki zuen Jainkoa margo-irudiekin haserre egon zitekeela. Agian, gehituko nuke Jainkoa ez dela arte berri eta berritzailearen zalea, gehiengo demokratiko, sozial eta politikoak onartzen duen artearena baizik; arduradun instituzional edo erlijiosoek onesten dutenarena. «Galtzaileekin elkartzeko joera gogorra daukat. Agintarekin konektatzen ahalegintzea baino, nirea guztiz kontrakoa da», aitortu zuen Nestor Basterretxeak (*Euskonews & Media* 76, 2000). Hori da, nire ustez, egiazko sortzailearen espiritua, boteredunengandik urrun izatea (baina ez oso urrun). Horretan bat samar etorriko ziren Oteiza eta Basterretxea, ez Txillida (I. Zabaleta, *Euskaldunon Egunkaria*, 1992ko otsaila; baina bestelako iritziz, R. Saizarbitoria, *Jakin* 69, 1992).

Basterretxea sortzaile oparo eta diziplina askotarikoa izan da. Eskulturan egindako artelanak aipagarriak dira, baina beti iruditu zait «metalean margotutako pinturak direla», gorputz xaflatuak, sakontasun mugatukoak; Donostiako Anoe-tan dagoen *Bakearen usoa*, adibiderako. Artista honek zinemarako egindako pelikulak eta dokumentalak, euskal gizartearen kontzientzia eta kultura suspertzeko eragile garrantzitsuak izan ziren bere garaian, eta hor erakutsi zuen botere politikotik zeukan urruntasuna. Baina, artearen inguruko nire uste mugatuan, margolaritzan dauka bere dohainik baliotsuena, sorkuntza-harrobirik propioena, eta beharbada Arantzazuko kriptako irudietan bere artearen maila gorenera iritsi da Basterretxea.

EITBko langileek, 2009ko udazkeneko programazioa aurkezteko irailaren 25ean argazki dotorean agertu zirenek, ez zuten PSEren Eusko Jaurlaritzako agintariengandiko urruntasuna adierazi nahi; ez zuten inolako arazorik izan PSE-PPren diskurtso sinboliko berriarekin. Beraiek ez dira artistak, profesionalak baizik, karrera profesionalean gora joan edo daudenean mantendu nahi dutenak. Hau ez da salaketa, ez gaitzespena, argazki baten atzean zegoen mezuaren azterketa baizik.

Eguraldiaren mapan Euskal Herriaren irudia lausotzea eta inguruko probintzien profilekin nahastea izan zen diskurtso sinboliko berriaren lehen sintoma, ordura arteko jokabide euskal abertzalea baztertuz. Hurrengo pausoak kazetaritzaren jardueran ari dira sumatzen: albiste espainiar gehiago eta lerro informatibo espainiarzaleagoa, besteak beste. Dena legearen bidetik egina.

Beraz, irailaren 25eko argazki hartan, Alberto Surio EITBko zuzendari nagusiaren bizkarra eta kargua babesten zuten langile haiek, honen diskurtso sinboliko eta ideologiko espainiarzalea (zentzu denotatibo eta periodistikoan definituz deitura hori) ere babesten zuten, onespina ematen zioten... profesionalak baitira, ez artistak. Oharra: berariaz ez dut idatzi «euskaltzalea», euskal abertzaleak eta espainiarzaleak antzera izan baitaitezke euskaltzale, nahi badute behintzat.

Langile horiek argudia dezakete udazkeneko programazioa aurkezteko soilik egin zela argazki hura, eta biharamuneko hedabideek zioten modura, «kazetaritza bultzatzea, kalitatezko ekoizpen propioa, gazteei eskainitako euskara programazioa eta kiroltik onena eskaintzea» zela EITBko egoitzaren aurreko eskaileretan egindako elkarretaratzearen arrazoa. Baina, denotazio horren atzean aipatutako konnotazio eta diskurtsoa zeuden, azpiko esanahi indartsua, jende askok sentitua.

Kamiseta urdinak eskuetan, beteranoak eta gazteak zeuden argazkian, arduradun izendatu berriak, fikzio-lanetako aktoreak, aurkezleak, informazio orokorreko eta kiroleko ka-

zetariak... deituak izan eta agertzeko erabakia hartu zutenak guztiak. Baina ez zeuden denak; arrazoi desberdinak argudiatuz, ez agertzeko erabakia hartu zutenak ez zeuden bertan, eta azken hauek PSE-PPren diskurtso sinboliko, ideologiko eta informatiboa Euskal Irrati Telebistako edukietara eramango duen zuzendaritzari ez zioten aterperik eman... ez eta gaitzetsi, isilik egon baizik.

Kazetaritzaren nazioarteko ikerkuntzak dioenez, nahiko arrunt eta ezaguna da hedabideetako kazetariak, tamaina batean, enpresaren lerro editorial eta periodistikoarekin bat egitea, hori bereganatzea, beren eguneroko albistegintzaren ezaugarriak horretara doitzea, behar den autokontrola etikoki onargarria den neurriraino eginez. Lanbide eta bizibidearen segurtasuna arrazoi handia da.

Has gaitzen berriro: inork inor ez isilarazi. Blanca Urgellen hitzei berrespena eman zien Patxi Lopez lehendakariak Euskararen Egunean, abenduaren 3an Loiolan irakurritako adierazpen instituzionalean: «euskara eta libertatea elkarrekin lotu nahi ditugu; euskarazko kultura demokratikoa, tolerantia eta aurreiritzi gabekoa bultzatu nahi dugu; euskara ez da ideologia konkretu baten ondare» (agiriaren zatiak dira).

Adosgarri bezain mingarri izan zitzaizkigun Kultura sailburuaren hitzak Arantzazun bildutako frankori; berdin, Patxi Lopezen adierazpena. *Euskaldunon Egunkaria*, *Egin*, *Egin Irratia*, *Kale Gorria* hedabideen itxiarazpena bultzatu eta txalotu zuten alderdi politiko espainiarren ordezkari hauen-gandik hitz horiek entzutea sarkasmoa dirudi; euskal herri-tar askoren eskubide zibil eta politiko funtsezkoenak (hautagai eta hautatua izatekoa, besteak beste) mozten eta legez oskoltzen dituztenen mezua zinikotzat jo liteke. Alabaina, seguru nago bai Blanca Urgell sailburua eta bai Patxi Lopez lehendakaria zinez eta zintzoki mintzatu zirela; beren ustean, beren mezua ez zela erretorika hutsa izan; ez dutela zentsuran sinesten; baina egin, egiten dutela «besteek», beti besteek.

Bide batez, noiz izango da Patxi Lopez lehendakaria euskaraz txukun samar hitz egiteko gai? Ibarretxek lortu zuen

maila egokian mintzatzeko? Euskara ikasten modu iraunkorren jarraitzen al du? Eusko Jaurlaritzako lehendakari den neurrian zenbat urte gehiagoz baztertuko ditu/gaitu euskaldunak? Benetan eskertuko genuke agintaldia amaitu baino lehenago euskaraz mintzatzzen entzutea. Izan ere, derrigorrezko baldintza izan beharko luke lehendakariak euskaraz «modu minimoki egoki» batean hitz egiteko gai izatea. Ez al du, bada, Espainiakoak gaztelaniaz jakin behar?¶

G A I A K



**89**

**ELENA BELOKI**

**JEAN PIERRE MASSIAS**

Euskal Herriko lurralde gatazka:  
europar aukera zehazteko bidean

# Euskal Herriko lurralde gatazka: europar aukera zehazteko bidean

**ELENA BELOKI**  
**JEAN PIERRE MASSIAS**

Zientzia Politikoetan lizentziaduna  
Zuzenbide Publikoan doktorea eta  
Clermont Ferrandeko Unibertsitateko irakaslea

Europar Batasunaren onurez hitz egitean, mezu eta informazio kontraesankorrak gurutzatu ohi dira. Batetik, estatuen arteko integrazio ekonomikoaren bultzatzaile eta, aldi berean, estatuen lurralde osotasunaren bermatzaile gisa ageri da. Bestetik, ordea, ikusten ari gara nola esku hartu duen noizbait, estatu horietan barne gatazkak gertatu direnean, konponketa bilatzeko asmoz.

Izan ere, estatu-partaideek osatutako gainegitura bat da EB, baina aktore aktibo ere bihurtu da; naturala eta pribilegiatua, gainera, segurtasun arloan emaniko urratsek erakutsi dutenez. Bere izaera dela eta, EBk ahalmena dauka estatuen logikari gailentzeko, eta espazio propioa lan lezake gatazkan inplikaturiko aldeetatik at.

Kontraesan horiek dira, hain zuzen ere, EB ikerketa subjektu interesgarri bihurtzen dutena, batik bat, kasu honetan, Europako nazio gatazketan eragiteko eduki lezakeen auke-ragatik. Aurreko artikulu batean (ik. Zabalo eta Massias: «Euskal Herriko lurralde gatazka luzea. Europako aukera», *Jakin* 172), Euskal Herriko lurralde gatazka zertan zetzan

azaltzen saiatu ginen; eta orain, hari hura jarraituz, gatazka horren konponketarako EBk eskaintzen dituen aukerak aztertu nahi dira.

Horretarako, Europa mailan eratu diren hiru gainegitura aurkeztuko ditugu lehenik, estatuez gain estaturik gabeko herriek dituzten aukerak aztertzeko. Ondoren, Europaren aukeraren konplexutasunean sakonduko dugu. Eta azkenik, praktikak zein adibide eskaintzen digun ikusiko dugu, gatazka mota desberdinak dituzten Zipre eta Irlanda aztertuz.

## Estaturik gabeko herrientzako tokia Europako erakundeetan

Europako hiru erakunde nabarmenduko ditugu hemen: ESLA (Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundea), EK (Europako Kontseilua), eta ezagunena den EB (Europar Batasuna). Hiru garai desberdinetan sortuak, egitura eta helburu desberdinak dituzte, noski; eta hortaz, herri eta gutxiengoaren tratamenduari dagokionez ere, ikuspegi desberdinak garatu dituzte.

## Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundea (ESLA)

Helsinki azken Aktako VIII. Printzipioa 1975eko abuztuaren 1ean onartu zen, izenburu honekin: «Eskubide berdintasuna eta herriek euren burua xedatzeko duten eskubidea». Atal horretan ageri denez,

herri guztiak dute, beti, nahi dutenean eta nahi duten moduan, beren barne eta kanpo izaera politikoa askatasun osoz erabakitze eskubidea, kanpoko esku-hartzerik gabe, eta beren garapen politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalari egoki deritzoten moduan segitzeko eskubidea.

Saio hartan parte hartu zuten estatuak berretsi egin zuten herriek eskubide berdintasunaz gozatzeko eta beren burua xedatzeko eskubidea dutela, eta eskubide horiek errespetatu

tzearen eta benetan burutzearen garrantzi unibertuala nabarmendu zuten.

Ordutik hona ESLAk (egia esan, izen hau 1994an hartu zuen) berretsi egin du aurreko baieztapena, eta Helsinkiko Dokumentuak (1992) adierazten duenez,

herrien barne eta kanpo estatus politikoa erabakitzeke nahiek demokrazia hedatzen lagundu dute, eta estatu subiranoak agertzearekin batera gauzatu dira arestian.

Europako Ekialdean eta Sobiet Batasunetik sortutako estatu berriak onartzeko arauari buruz, bestalde, 1991ko abenduaren 16an Bruselan eginiko Adierazpenean zera esaten da,

[Europar] Komunitateak eta estatu kideek berretsi egin dituzte Helsinkiko Azken Aktako eta Parisko Gutuneko Printzipioak, batez ere autodeterminazio printzipioari dagokionez. Halaber, Estatu berri horiek onartzeko borondatea agertzen dute nazioarteko praktikan onetsitako arauetan oinarrituz eta kasu bakoitzeko errealitate politikoa kontuan hartuz, baldin eta estatu horiek, eskualdean gertatutako aldaketa historikoen ondoren, oinarri demokratikoarekin eratzten badira, dagozkien nazioarteko betebeharrak onartu badituzte eta fede onez prozesu baketsu eta negoziatu batean aritzeko hitza eman badute.

Aitzitik, nazioarteko komunitateak lurralde osotasuna eta sortu berri diren estatuen batasun politikoa errespetatzea bermatzen du, sesesio saio baten ondorioz sortutako entitate politikoak —haien burua entitate politiko aldarrikatu dutenak— arbuizatzeko bide bat baita. Horixe da Europako Ekialdeko eta Sobiet Batasuneko estatu berriak onartzeko arauari buruzko Adierazpenaren mamia. Adierazpen horretaz baliatuta, Jugoslaviako Bakerako Konferentziako Arbitraje Batzordeak behin eta berriz ezeztatu du autodeterminazioa eta independentzia eskubidea eta gutxiengo nazionalen arteko edozein harreman.

Gainera, Kopenhageko Dokumentuak —ESLako Giza Dimentsioaren Konferentziari buruzkoa, 1990eko ekainaren 29koa— ikuspegi indibidualista eta pertsonala ematen dio gutxiengoaren eskubideari, 32. paragrafoan haxe adie-



razten baitu: «Gutxiengo nazional bateko kide izatea hautu pertsonala da, berdintasun eta ez-bazterkeria baldintzetan gauzatua, aukera hori burutzeak ezin baitu inolako desabantailarik sortu». Zentzu berean, Konbentzioko 3. artikuluan (gutxiengo nazionalak babesteko markoan) zera adierazten da, «gutxiengo nazional bateko kide den orok eskubidea du hala tratatua izan nahi duen edo ez askatasunez aukeratzeko...». Komunitate etniko, erlijioso eta linguistikoak osatzen dituzten taldeen autodeterminazio eskubidearen izaera kolektiboari ezezkoa ematearren, Jugoslaviako Bake-rako Konferentziako Arbitraje Batzordeak nabarmendu du autodeterminazio eskubidea betez —giza eskubideen oinarri babeslea, gizakiaren eskubideei buruzko 1966ko bi nazioarteko hitzarmenetako lehen artikuluan ageri denez—, gizaki bakoitzak, hautu propioa eginez, komunitate etniko, erlijioso edo linguistiko bateko kide izatea aldarrika dezakeela. Eskubide hori betez, eta zenbait egoeratan, estatuek herritartasuna aukeratzeko eskubidea aplikatu behar diete gutxiengo eta talde etnikoetako partaideei.

Kopenhageko Bilerako Dokumentuak giza dimentsioan integratzen du gutxiengoaren eskubidea. Estatu parte-hartzailerek onartu egiten dute gutxiengo nazionalen dagozkien auziak zuzenbide estatuan oinarritutako marko politiko demokratiko batean soilik konpon daitezkeela zuzentasunez, sistema judizial independente eraginkor batez, marko horrek baizik ez baitu bermatuko giza eskubideak erabat errespetatuko direla. Gutxiengoaren eskubideak blindatzeko xedez, berariazko mekanismo batzuk prestatu dira; bereziki, alerta edo ekintza azkar prozedura bat.

## Europako Kontseilua (EK)

Giza Eskubideen Europako Konbentzioak aldarrikatutako eskubideak babesteaz arduratzen diren organoek aztertzen dituzte gutxiengoaren eskubideei buruzko auziak, 1961. urteaz geroztik. Adibide gisa, Austriak Italiaren aurkako sa-

laketa jarri zuen, Austriaren iritziz, Italiako jurisdikzioek epaiketa bidegabe eta diskriminatzailea egin zutelako Alto Adige (Hego Tiroleko) gutxiengoko kide ziren gazte batzuen kontra, aduanetako funtzionario italiarrekin izandako liskar baten kasuan. Badira ere Belgikako irakaskuntzako hizkuntzaren araudiari buruzko auzi batzuk. Giza eskubideen Europako Auzitegiaren iritziz, hizkuntza-eskubideak onartzea bezalako printzipioak ez dira, berez, demokraziaren oinarritzko printzipioen aurkakoak (Giza eskubideen Europar Auzitegia, *Yazar eta beste Turkiaren kontra*, 2004ko apirilaren 9ko Epaia, § 57).

Ugari dira herrien eta gutxiengoaren eskubideak ordezkatzeko edo aldarrikatzeko dituzten alderdi politikoen jardueren gaineko debekak eta murrizketak. Auzitegiak halako kasuen gaineko iritzia azaldu du, batez ere Turkiaren edo Bulgariaren kasuetan, aldarrikapen autonomista edo sezesionistei dagokienez. Auzitegiak hauxe nabarmentzen du bereziki:

Lagun talde batek herrialde bateko lurraldeko eskualde baten autonomia nahi izateak edo, areago, haren sezesioa eskatzeko —oinarritzko konstituzio edo lurralde aldaketak eskatuz— ez du zertan haien elkarretaratzeak debekatzea justifikatu. Diskurtsoetan eta manifestazioetan lurralde aldaketak eskatzea ez da automatikoki herrialdearen lurralde osotasunaren eta segurtasun nazionalaren aurkako mehatxua.

Elkarretaratzearen eskubidea eta, honen bidez, ikusmoldeak adierazteko eskubidea gizarte demokratikoetako funtsezko balioen artean daude. Demokraziaren muina arazoak elkarritzeko eta eztabaida irekien bitartez konpontzeko gaitasuna da. Adierazteko ikusmolde edota esaera batzuk aginte arduradunen begien aurrean asaldagarri eta onartezinak izanik ere, plazaratutako eskariak horren legez kontrakoak agerturik ere, elkarretaratze eta adierazpen eskubideak galaraz ditzaketan neurri prebentibo erradikalek, indarkeriara bultzatzearen edo demokraziaren oinarritzko legeak ukatzearen kasuetan izan ezik, kaltetu egiten dute demokrazia eta, sarritan, galbidean ezartzen.

Zuzenbidearen gailentasunean oinarritutako gizarte demokratiko batean, ezarritako ordena auzitan jartzen duten ideia politikoei aukera eskaini behar zaie biltzeko askatasu-

naren bidez zein legezko beste bide batzuen bidez argi eta garbi hitz egiteko, baldin eta ideia horiek gauzatzea bide baketsuen bidez defendatzen bada (Giza eskubideen Europako Auzitegia, *Stankov eta Unie Ilinden erakunde mazedoniarra Bulgariaren kontra*, 2001eko urriaren 2ko Epaia, § 97).

«Auzitegiak onartu egiten du [...] autodeterminazio eskubidea bezalako printzipioak ez direla, berez, demokraziaren funtsezko oinarrien aurkakoak». Halaber, auzitegiak hauxe nabarmentzen du:

Uste bada aipatutako printzipio horien defentsa hutsa, alderdi politiko baten aldetik, terrorismo ekintzak sostengatzean oinarritzen dela, murriztu egingo lirateke printzipio horiei dagozkien auziak eztabaida demokratiko baten eremuan tratatzeko aukerak, eta mugimendu armatuei printzipio horien defentsa monopolizatzeo aukera emango litzaieke. Eta horrek talka egingo luke 11. artikulua espirituarekin eta artikulua horren oinarrian dauden printzipio demokratikoekin (ikus, besteren artean, *Vogt Alemaniaren kontra*, 1995eko irailaren 26ko Epaia, A saila, 323. zenbakia, 25. orrialdea, § 52, eta *Turkiako Alderdi Komunista Bateratua eta beste*, 1998ko urtarrilaren 30eko Epaia, 27. orrialdea, § 57).

Auzitegiaren iritziz, halako proiektu politiko bat Estatuaren oraingo printzipio eta egiturekin bateragarria ez izateak [...] ez du arau demokratikoen aurkari bihurtzen. Demokraziaren mamia proiektu politiko desberdinak proposatzea eta eztabaidatzea da, baita oraingo Estatuaren eraketa modua auzitan jartzen dutenak ere, baldin eta demokraziari berari erasotzen ez badiote (Giza eskubideen Europako Auzitegia, *Turkiako Alderdi Sozialista (STP) eta beste Turkiaren kontra*, 2003ko azaroaren 12ko Epaia, § 43).

Arlo arauemaileari dagokionez, Eskualdeko edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Karta 1992ko ekainaren 25ean onartu zuen Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak, eta 1998ko martxoaren 1ean jarri zen indarrean.

Europako Kontseiluko estatu eta gobernuburuek epe laburrean esparru-hitzarmen bat idazteko, estatu ez-kideei irekitzea eskatu zioten Batzordeari, «Estatu sinatzaileek gutxiengo nazionalen babesa bermatzeko zein printzipio errespetatuko zituzten zehazteko». Protokolo bat idazteko lanak hasteko ere eskatu zioten, «Giza eskubideen Europar

Hitzarmena kultura eremuan osatuko zuena, gizabanakoaren eskubideak bermatuko dituzten xedapenen bidez; zehazki, gutxiengo nazionalak kide direnentzat».

Arlo horretan, 1994ko azaroaren 10ean, Ministro Kontseiluak gutxiengo nazionalak babesteko esparru-hitzarmena onartu zuen (eta 1998ko otsailaren 1ean jarri zen indarrean —STE, 157. zk.—; testu honek ez du «gutxiengo nazional» nozioaren definiziorik, ezinezkoa baita estatuen arteko definizio komun bat lortzea). Esparru-hitzarmen horrek gutxiengo nazionalen eta bertako kideen babesaren eskubideen nazioarteko babesaren osatzen duen zati bat dela nabarmentzen du bereziki, eta adierazten du gutxiengo nazional bateko kide orok hala tratatua izateko edo ez izateko askatasunez erabakitze eskubidea daukala, eta haren hauetak ezin izango duela ezein kalterik ondorioztatu.

Europako Kontseiluak, gainera, erakunde honekin bat egiteko baldintzak baliatu ditu, Kontseiluan sartu nahi zuten estatu berriei giza eskubideak eta gutxiengoak errespetatzea inposatzeko, Europar Batasunean sartzeko lehen urrats gisa.

Deszentralizazioaren aldeko europar mugimendua 1985eko urriaren 15ean onartutako Lekuko Autonomiaren Europako Kartan oinarritzen da batez ere, baita lekuko kolektibitatei emandako eskuduntza handituetan ere, mugaz gaindikoak barne. Mugimendu horrek nolabaiteko lotura dauka gutxiengoaren eskubideekin. Hori nabarmena da, batez ere estatuak animatzen dituen zenbait administrazio lokal eta autonomok lurralde oinarria edo beste administrazio eredu deszentralizatu edo lokal batzuk baliatuz gutxiengoaren babesaren kontuetan lortu dituzten emaitza positiboak kontuan hartzerak.

## Europar Batasuna (EB)

Europar Batasunak eta haren estatu kideek Europako Ekialdean eta Sobiet Batasunean sortutako estatu berriak onartzeko ildo nagusien Deklarazioa onartu zuten 1991ko

abenduaren 16an. Deklarazio horren bidez, Ekialdeko estatu berriak onartzeko baldintza gisa, gutxiengoak babesteko betebeharra jarri zuten. Horrela, areagotu egin zuten Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeetako egonkortasun politikoaren aldeko interesa.

Beste alde batetik, gutxiengo nazionalak errespetatzea ezinbesteko baldintza da Europar Batasunean sartzeko. Koppenhagen 1993ko ekainaren 21ean eta 22an eginiko goi bilan adierazi zuten Europar Batasunak, hedatzean, demokrazia, zuzenbidearen lehentasuna, giza eskubideak eta gutxiengoenganako begirunea eta babes bermatu behar zituela erakunde egonkorretan oinarritzeko.

1995eko Europako Egonkortasun Hitzarmenak estatuen lurralde osotasuna errespetatzeko aldarrikatu zuen batez ere. Gutxiengoenganako errespetua alde biko oinarrian finkatutako mugen bortxaezintasuna berrestearen ordain gisa ulertzen zuen. Hitzarmenaren helburua Europaren egonkortasuna sendotzen laguntzea da, gutxiengoen eta mugen gaitan sor litezkeen gatazkak saihestuz. Helburua beharrezkoa da nazioartean bakea eta segurtasuna bermatzeko. Halaber, balio demokratikoak eta giza eskubideetan eginiko aurrerapausoak finkatu nahi ditu, gutxiengo nazionaleri dagozkienak barne, atzeraezinak izan daitezten. Hitzarmena aplikatzeko ardura ESLaren esku utzi zuten.

Komunitateak eten klausulak sartu ditu hirugarren estatuekin hitzartutako elkarte edo merkataritzarako lehentasun akordioetan, oinarritzko eskubide eta askatasunak —batez ere gutxiengoen eskubideak— errespetatzen ez diren kasuetarako. Zenbait erakundek estatus berezia izan dezakete Batasunaren aurrean. Adibidez, Numeako akordioek (1998ko maiatzaren 5ekoak) Kaledonia Berriak Europar Batasunean ordezkariak izateko aukera aurreikusten dute.

Azkenik, Europarako Konstituzioa ezartzen duen Hitzarmenean eta Lisboako Hitzarmenean, apenas egiten zaie herriari aipamenik. Herritarrak eta estatu kideak soilik dira Europar Batasuneko aktore. Alde nabarmena dago oinarritzko

eskubideen Kartako hitzaurrearekin, horren arabera zera esaten baita: «Europako herriek, beraien artean gero eta batasun handiagoa ezarrita, balio komunetan oinarritutako etorkizun baketsua partekatzea erabaki dute».

## Europar Batasunaren aukera bere lurralde gatazken aurrean

Europar Batasunak barne gatazketan esku hartzeko duen gaitasunak konplexutasun bikoitza du. Batetik, konplexutasuna, Europar Batasunak gaitasun juridikoak dituelako estatu kideen subiranotasunari eragiten dioten eremu bereziki zailtan esku hartzeko; bestetik, konplexutasun politikoa, EB prozesu horietan parte hartzera edo parte ez hartzera bultzatzen duten ebaluaketen pertzepzioei dagokienez. Hala eta guztiz ere, konplexutasun horrek ez du zertan funtsezko errealitate bati konturik ez egin: Europar Batasuna aktore natural eta pribilegiatua da —eta izan behar da— barne gatazkek konpontzeko. Bere posizioa dela eta, logika estatal hutsak gainditzeko eta, ondorioz, solaskide pribilegiatu gisa agertzeko gai da, protagonista guztiei oinarritzko balio jakin batzuk errespetarazteko konponbide politikak bilatzeko tenorean.

Bere eremuaren barruan diren gatazken konponbide bake-tsua lortzeko prozesuan parte hartu ahal izateko Europar Batasuneko erakundeek duten gaitasunak hasierako paradoxa batekin egiten du topo: Europar Batasunaren logika europar espazioan estatuen arteko gatazken egiturazko murrizketa proposatzea bada ere, estatuen arteko dimentsioa hain maila apalean garatua da, non Batasunak, egun, ahalmenik gabea baitirudien arlo horretan. Hiru paradoxak baldintzatzen dituzte, nonbait, Europar Batasunaren esku-hartze gaitasunak:

### Paradoxa geografikoa (geopolitikoa)

Lehen paradoxa hau Europar Batasuneko lurraldean gertatzen diren barne gatazkei dagokie. Hori dela eta, kanpoan

utziko ditugu gainerako liskar armatuak. Hala eta guztiz ere —eta, itxura denez, erreparo hau Europar Batasuna be-  
ra bezalako nazioarteko erakundeen eta erlazioen logika  
hutsean kokatzen da—, badira *erdi mailako* egoera anitz.  
Gatazken sailkapen geografiko hau uste baino egokiagoa  
da, ondorio garrantzitsuak eragingo baititu Europar Bata-  
sunak konponbidea bilatzeko erabiliko dituen baliabideei  
dagokienez.

Marko horren arabera, lau alditan banatutako sailkapena  
egin daiteke:

- *Benetan Europar Batasunaz kanpokoak diren gatazkak.*  
Europar Batasuneko kideak ez diren, Batasunean sartzeko  
izapideak hasi ez dituzten, eta geografikoki lurralde europa-  
rretik urrun dauden estatuen arteko gatazkak dira. Urrunta-  
sun horrek ez du eragozten EBk atzerri eta segurtasun poli-  
tikaren eremuan esku hartzerik. Zentzu horretan, Irakeko  
gatazka aipa dezakegu.

- *Auzotasun onaren politikaren eremuko barne gatazkak.*  
Gatazka hauetako protagonistak Europar Batasuneko kideak  
ez diren estatuak dira —lehen ataleko gatazken sailkapen  
irizpideak dituzte—, baina haien kokapen geografikoak edo  
EBrekin dituzten harremanek Europako auzotasun politi-  
katik kanpo jartzen dituzte. Europar Batasunak egin berri  
dituen hedapenetan garatutako politikak Batasuneko mu-  
gak egonkortzeko xedea du. Zentzu horretan, Moldavia,  
Ukraina, Maroko, Tunisia, Jordania, Israel eta Palestinako  
Agintea lehen «auzokoak» izan dira EBrekin ekintza akor-  
dioak ituntzen. Ekintza plan horiek estatu bakoitzarekin be-  
rriaz negoziatutako akordioak dira, eta haien helburua de-  
mokrazia, afera publikoen kudeaketa ona, zuzenbide esta-  
tua eta oinarrizko eskubideak sendotzea da. Ildo berean,  
parte hartzen dute «elkarrizketa eta lankidetzak sakontzeko  
terrorismoaren aurkako eta suntsipen handiko armak ugalt-  
zearen aurkako borrokaren eremuan, eta eskualdeko gataz-  
kak konpontzeko aferetan». Aipatutako ekintza planak, be-  
raz, Batasunak gatazkak konpontzeko duen politikaren ka-

tegoria espezifiko bat dira, eta EBren eta gatazkek eragin diezaieketen eskualdeen arteko hurbiltasun maila handia agertzen dute —baita estatu horiek juridikoki muga komunitarioetatik kanpo baldin badaude ere—.

- «*Erdi mailako*» gatazkak edo zatikako barne gatazkak. Hirugarren gatazka kategoria honek EBko kideak izan ez, baina Batasunean sartzeko prozesua hasi duten estatuak biltzen ditu. Hipotesi hori hainbat egoeratan gauzatzen da. Lehen egoeran, gatazka soil-soilik estatu hautagai baten barruan gertatzen da —edo hautagaia izan litekeen estatu baten barruan, Serbia auzi kosovoarrean bezala—. Baina estatu kide baten eta estatu hautagai baten arteko gatazka izan daiteke (Zipreren eta Turkiaren arteko gatazka). EBren esku-hartzea ez dago, orduan, kanpo politikaren esparruan, «Kopenhageko irizpideen» aplikazioan baizik. Gatazken konponbidearen eremu espezifikoa zinez hartzen da kontuan Kopenhageko irizpideetan, haietan oinarrituta inposatzen baita «zuzenbide estatua, demokrazia, giza eskubideak eta gutxiengoak errespetatzea eta babestea bermatuko dituzten erakunde egonkorak ezarri beharra». Maila horretan, eta aurreko esperientziak ikusita, bi jarrera mota bereiz ditzakegu Europar Batasunaren aldetik. Jarrera horiek Batasunean sartzea baldintzatzen dute; izan ere, eragindako estatu hautagaiak EBn sartu nahi lukeen garaiaren aurretik egonkortze garai bat aurreikusten dute eta horrek, *a priori*, gatazkak murriztea ahalbidetzen du.

- *Azkenik*, «*benetako*» barne gatazkak. Gatazka hauek Europar Batasunaren barruko estatueta kokatzen dira, eta batzuetan EBn sartzearen ondoren sortu dira, baita sartu aurretik ere. Zenbait kasutan, 1993ko Kopenhageko irizpideak indarrean sartu aurreko egoerak izan daitezke. Ohikoena gatazka hauek zenbait estatu kideri eragitea da, baina esan gabe doa inplikazio maila egoeren arabera aldatzen dela. Paradoxikoki, eta estatu horiek EBko kideak izan arren, Batasuna juridikoki babesgabeago dago eta politikoki zuhurragoa da gatazka horietan inplikatzeke. Nolanahi ere, erre-



serba eta zailtasunak gorabehera, arreta berezia jarriko diegu gatazka mota horiei.

Gatazkaren kokagune geografikotik harago —eta EBko mugei dagokienez duen kokapenetik harago—, egokia dirudi gatazkaren naturari, haren garapenari eta haren adierazpen moduei buruzko elementu batzuk argitzeak.

### Paradoxa materiala

Barne gatazkei dagokienez, hiru egoera bereiz daitezke. Lehendabiziko unean, gatazkak tentsio politiko handiak sor ditzake eta arriskuan jar dezake oinarrizko eskubideen babesa, krisi hori inolako lurralde aldarrikapen zehatzetan oinarrituta egon gabe. Lehen kategoria hori marjinalizat joenezake eta zailtzat objektiboki atzemateko garaian. Europar Batasunean alarma piztu da, hala ere, zenbait barne egoera ernegagarriren ondorioz —Austrian eskuin muturreko gobernu bat aukeratu izanaren ondorioz gertatu zirenak bezalakoak—, eta horrela neurri espezifiko batzuk hartzea proposatu izan da. Baina, egoera horretatik harago, «lurralde auziari» lotutako gatazkak dira garrantzitsuenak.

Lehenengo gatazka bi estatuk lurralde bera errebindikatzen dutenean gerta daiteke. Beste gatazka mota bat estatu baten barruan lurralde batek independentzia aldarrikatzen duenean gertatzen da. Hala ere, argi dezagun azken kategoria horrek (euskal gatazkaren kasua) zenbait estaturi edo lurralde entitateri eragin diezaiekeela, zuzenean edo zeharka. Kasu horretan, oso arazo latzaren aurrean gaude, estatu kide baten subiranotasunari baitagokio zuzenean eta, gainera, barne afera bat baita EBren barrualdean bertan.

Hala eta guztiz ere, eta EBko barne gatazken lehen sailkapenetik harago, gero eta egokiagoa dirudi azken tipologia bat lantzeak, nazioarteko segurtasun politikei buruzko nazioarteko diskurtsoen eboluzio berrienei erreparatuta. Tipologia horrek adierazpen modalitateen arabera sailkatuko lituzke gatazkak —eta bereziki barne gatazkak—. Izan ere,

protagonistek erabilitako bortizkeria mailak eta baliatutako metodoak terrorismotzat jotzeak biziki eragingo baitiete EBn europar erakundeen esku-hartzearen gaitasunari eta zentzuari.

Elementu bakegile horiek gatazkak konpontzea dute helburu, oro har haien garapenarekin bateraezina den testuinguru batean kokaturik daudelako. Ezaugarri horiek gai honi buruz egindako hainbat analisitan ageri izan dira. Alabaina, politika komunitarioaren dimentsio berria zalantzan jartzen ari da elementu bakegile horiek.

Egia esan, urte batzuetatik hona, EB tresna multzo bat garatzen ari da barne segurtasunean parte hartzeko asmoz. Hala ere, tresna edo neurri horien aplikazioak zalantzan jar dezake EBren baketzeko gaitasuna, batez ere haren barne gatazkei dagokienez. Testuinguru horretan, komenigarria da politika europarrak terrorismoaren kontrako borrokan izan dituen ondorioak aipatzea. Politika komunitarioaren dimentsio horrek 70eko urteetan du sorburua, eta garapen zinez handia izan du 2002. urtetik aurrera.

2001eko irailaren 11ko erasoen ondoren, Europar Batasunak terrorismoaren aurkako borroka areagotzea erabaki zuen. Ikuspuntu horretatik, Batasunak esparru-ebazpen bat onartu zuen eta haren bidez ordenamenduak hurbiltzera eta terrorismoko arau-hausteei buruzko gutxieneko arauak ezartzera bultzatu zituen estatu kideak. Arau-hauste terroristar horiek zehaztu eta gero, estatu kideek haien legeria nazionalean aurreikusi behar zituzten zigorrak azaltzen zituen testuak. Horretarako, 2002ko ekainaren 13ko Kontseiluaren esparru-ebazpenaren testuan oinarritu zen EB. Testuak «giza duintasunaren, askatasunaren eta elkartasunaren, giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetuaren balio unibertsalak» aipatzen ditu, eta «demokraziaren printzipioa eta zuzenbide estatuaren printzipioak, estatu kideentzat printzipio komunak direnak». Hortik abiatuta, terrorismoa «printzipio horien bortxaketa larrienetako bat» dela erabaki zuen EBk.

Fenomeno terroristari buruzko ikuspuntu berri hori Europak nozio horri buruz egiten duen definizioan eta aplikatu beharreko zigorrorei buruz estatu kideei zuzendutako hainbat betebeharretan oinarritu da, eta indartu egin da euroa-gindua hartuz eta erakunde terroristen zerrenda bat sortuz —geroztik aldizka berraztertzen dena eta 47 erakundek osatzen dutena—. Neurri sorta horrek terrorismoaren kontrako politika europar paralelo eta estatuenaren osagarria garatzea ahalbidetzen du eta, aldi berean, jarrera anbiguoan kokatzen du, oro har, Europar Batasuna. Hala, eta zenbait eskumenek eta haren orientazio nagusiak EB ikuspuntu «aztoratzaile» batean kokatzen duten arren, Batasuna gatazkako aktore jarreran dago, eta estatuen sostengatzaile. Maila horretan, gatazkaren adierazpen eta gauzatze modua jarrera europarraren elementu erabakigarri bihurtzen dira. Garapen hori —oinarrizkoa, Europar Batasunaren iragane-ko jarrera kontuan hartuta, bereziki krisi irlandarrean— ezin argiagoa da, eta EBk euskal gatazkan esku hartzeko oinarri gisa balio lezake.

Terrorismoaren kontrako borrokaren arazoa adierazgarria da oso. Erakunde komunitarioek politika nazionalen berezitasunekin bateragarriak diren irizpideak segituz definitzen dituzte mugimendu terroristak. Mugimendu horien kontra borrokatzeko zuzendutako eta indartutako eskumenen eta tresnen garapena ez al da oztopo EBren barne gatazkak konpontzeko? Gatazketan elementu «aztoratzailea» izateko duen gaitasunak ez al lioke argi utzi beharko Europar Batasunari estrategia estatal huts eta ondorioz errepre-siboetatik aldentzeko beharra?

### Paradoxa «teknikoa»

Planteatzen den hirugarren kontua Europar Batasunak barne gatazka batean ari izan eta parte hartzeko eskura dituen baliabide juridikoei dagokie. Problematika konplexu horrek egoera anitz biltzen ditu (gatazkaren natura, lurraldeei lotuta-

ko erronkak, politika komunitarioan inplikazio maila), baina horren aurrean badago sailkapen binarioa proposatzeko aukera, gatazka identifikatu baten aurrean izan daitezkeen parte-hartze komunitarioen berezitasun mailan oinarrituta. Horrela, Europar Batasunaren parte-hartzeen eta ekintzen arteko bereizketa egin beharko dugu: espezifikoki gatazkak konpontzera zuzenduta egon ez arren, haien garapenean ondorio garrantzitsuak dituztenak; eta gatazka prozesuan zuzenean parte hartzeko helburua duten ekimen espezifikoak.

Hala ere, ohar batzuk egin behar ditugu. Lehenik eta behin, sailkapen binarioak ez du zertan funtsezko errealitate estrukturala ezkutatu: Europar Batasunak gatazkei aurre egiteko duen gaitasuna zuzen lotua da bere kokatze geografikoari. Izan ere, Batasunak neurri nola edo hala kontsekuenteak baldin baditu kanpo arazoetan —edo zatikako kanpo arazoetan— esku hartzeko, ez da horrela gertatzen barne gatazken kasuan. Gainera, lehen ohar horretatik ondorioztatzen diren benetako mugetatik harago, komeni da Europar Batasunaren eskumenen moldagarritasuna nabarmentzea, eskumen horiek, batzuetan, testu fundatzaileek argi eta garbi aurreikusten ez zituzten egoeretan parte hartzea ahalbide baitezakete. Azkenik, gaitasun hori gorabehera, nabarmendu behar da eskumen banaketak murriztu egin dezakeela Europar Batasunak barne gatazka batean parte hartzeko duen askatasun tartea. Batez ere, segurtasunaren eta terrorismoaren kontrako borrokaren arloan politika komunitarioek izan berri dituzten garapenen ondorioz.

Zuzenbide komunitarioak ez du ahalmen espezifikorik aurreikusten EBko erakundeek zuzenean parte har dezaten barne gatazkak murrizteko prozesuetan. Hala ere, izan badira esparru horretan jarduteko aukera ematen duten bide juridikoak. Politika komunitario batzuek, gatazkak konpontzera bereziki zuzenduta egon ez arren, kontuan hartzeko moduko ondorioak izan ditzakete barne gatazken garapenean, haien eraginari osotasunean erreparatzen badiogu. Horiexek ditugu gogoan.

Aipa dezagun, lehen-lehenik, Europar Batasunaren mugak bertan behera uzteko eta integrazio ekonomikoa eta lehia librea ezartzeko garatutako politika. Hori guztia espazio komun bat ezarriz eta estatuen rola arlo sinbolikotik eta juridikotik murriztuz egin du EBk. Politika horiek eragin baketzailea izango dute, estatuen barruko zenbait entitate ez-zentralen eta Batasuneko estatu kideen arteko tentsioa baretzen lagunduko dutelako. Ildo berean, atal honetan Europar Batasunaren erregio-politika ekar dezakegu gogora, aktore estatalen pisua berariaz murrizten duelako eta lekuan lekuko aktoreak «gaitu» egiten dituelako.

Hala eta guztiz ere, eskumen komunitarioen mugatze espezifikoko horrek, eta bereziki barne gatazkak murrizteko baliabide zehatzak mugatzeak, ez luke ikuspegi estuegia sortu behar Europar Batasunak mota horretako gatazkak konpontzeko prozesuetan parte hartzeko dituen benetako gaitasunei irizteko tenorean. Hain zuzen ere, zenbait analistaren ustez, parte-hartze komunitarioei buruzko balorazio bat egiteko komenigarriagoa da Batasunaren politiken benetako ekin-tzei erreparatzea eskuduntzen enuntziatuan oinarritzea baino. Nabarmendu behar da sailkapen hori Irlandako gatazka konpontzeko egindako lanetan eta Europar Batasunak gatazka hori konpontzeko jokatu duen rolean oinarritu dela.

Gatazka europartzea da Europar Batasunak gatazka konpontzeko prozesuan joka dezakeen rola ulertzeko beste osagai garrantzitsu bat, haren parte-hartzeko zuzeneko gaitasunaren gainetik. Kontzeptu horrek hauxe esan nahi du, Centre for European Policy Studies erakundearen arabera:

Europartzea, gatazka sezesionistak konpontzeko eremuan, europar erakundeek —batez ere Europar Batasunak— sustatutako eta gidatutako prozesu baten moduan ulertu behar da: prozesu horrek europar egituretan inplikaturako aldean nola baiteko integrazio maila bati lotzen dio gatazka gaititzea.

G. Kanov-ek eginiko analisiaren arabera, «europartze» ikuspegi horrek esan nahi du Europar Batasunak aldi berean aktore rola jokatzen duela, eta lan esparrua ere badela. Gataz-

karen aurreko aktore gisa, Europar Batasunak elkarren kontra ari diren aldeen estrategiari eragin diezaike epe motzean, negoziazioaren eta konpontzearen bidean konpromisoak hartzera behartzeko asmoz. Orduan, bi mekanismo garatu ohi dira normalean: baldintzapekotasuna eta gizartea heztea, prestatzea.

Baldintzapekotasuna protagonisten zenbait portaera Europar Batasunarenarekin erlazionatzean datza —bai mehatxatzeko, bai abantailak edo pizgarriak proposatzeko—. Era horretan, aktoreen jokamoldeari zuzenean eragiteko gaitasunagatik, Batasunak aurkakotasunak arautzeko beste modu bat egon daitekeela frogatuko du, eta horrela gizartea jokaera benetan aldatzera bidera daitekeela, gatazkako zuzeneko aktoreen gainetik. Hala ere, gatazken logikaren asaldatzeko gaitasuna ez da funtzio horretara mugatzen. Europar Batasunak konpontze eremu bat eskain dezake Europako erakundeen eredu instituzionalean oinarritutako eredu alternatibo instituzionalak sustatuz. Gatazkaren logikaren asaldatzeko gaitasunak posibilitate horrekin ere erlazionatua behar du.

Europar Batasuna: gatazkak ebazteko esparrua eta tresna. Zipre eta Irlandako gatazkei buruzko hausnarketak

EBren esku-hartzea bi gatazka arrunt diferentetan aztertuko dugu. Zipreko gatazka lehendabizi, EBko estatukide den Zipre eta hautagai den Turkiaren artekoa, *zaticako barne gatazkatzat* jo dezakeguna. Eta bestalde, Irlandako gatazka, *benetako barne gatazkatzat* jo dezakeguna, eta hurbilago zaiguna.

Beraien kokapen geografikoaz aparte, integrazio egitura-rikiko duten harremanari erreparatuko diogu. Zipreren kasuan, ekonomi integrazio bidea interesatzen zaigu, integrazioa gatazkaren soluziobidearekin usu uztartu delako. Eta Irlandaren kasuan, EBren erregio-politika gatazkaren ebazpenean funtsezko elementua izan delako.

Ikusiko denez, EBren esku-hartzea ez da zailtasunez libro, estatuen interesek EBren balio eta printzipioekin talka egiten dutelako, instituzio komunitarioek gailendu beharko luketen logika estatalista nekez erdietsiz. Horretan oinarritzen da, hain zuzen, EBren rol aztoratzailea, eta hauxe da duen erronketako bat. Bestea gatazken ebazpenean herritarren interesak bere dinamikan eta jardueran txertatzea izango litzateke.

Ikus dezagun, bada, baieztatzen ari garena modu xehatua-go batean.

### Zipreko gatazka: estatu interes eta printzipio komunitarioen arteko oreka zaila

Zipre kontinenteen arteko bidegurutzean dago. Stelios Stauridis-ek dioenez, «atzerritarrak ez dira mendeetan uhar-teak pairatu dituen arazo ororen erantzule, baina gaurko historia eta gatazka atzerritarren injerentzia latzaren isla da».

Zipreko oraingo gatazkaren abiapuntua 1974. urtea da. Turkiak, Makariosen kontrako kolpearen aitzakiaz, irlaren %37 inbaditu eta okupatu zuen, eta geroztik, greziar jatorriko herritarrak eta zipretar-turkiar komunitatekoak aurrez aurre jarri dituen gatazka bizi da Zipren. Gainera, 1984an, zipretar-turkiarrek Turkiak soilik aitortzen duen Zipreko Iparraldeko Turkiar Errepublika (TRNC) aldarrikatu zuten. Horren ondorioz, Zipre bitan banatuta dago ordutik: NBE-ko tropek zaintzen duten *Lerro Berdeak* bi komunitateak bereizten ditu eta irla okupatua da.

Ziprek (hegoaldekoak) EBn sartzeko eskaera egin zuen 1990ean, eta 1995ean Europar Kontseiluak onartu egin zuen negoziazioetan hastea, nahiz eta, aldi berean, Turkia Arantzel Batasunean sartzeko egitasmoa agertu. EBk onartu zuen Zipre ezin zela Turkiaren preso egon, eta estatu partaideek jarrrera bateratua adostu zuten Ziprerekiko. Sartzeko negoziazioak hiru urte geroago hasi ziren, 1998an, eta haien ondorioz turkiarrak eta zipretar-turkiarrak zipretar-greziarrekin bildu beharra zabaldu zen.

EBko instituzioek, Zipre eta Greziako gobernuek, eta baita hainbat akademikok ere uste izan zuten EBn sartzeko ibilbideak efektu katalizatzailea izango zuela Zipreko gatazkan. Jarrera hura oso nabarmena izan zen 1999 urte bitartean. Hala, urte horretako 2000 Agendan, adibidez, Batzordeak aurreikusten zuen EBk izan zezakeen esku-hartze positiboa irlak akordio justu eta iraunkorra erdiets zezan. Denaren, Greziaren presioak saihesteko, 1999ko urriko txostenean, Batzordeak bereiztu egin zituen Zipreko gatazkaren irtenbidea eta EBn sartzeko prozesua.

Turkiak, bestalde, irmo egin zuen prozesu horren kontra, eta uharteko alde turkiarra Turkiari anexionatzeko mehatxua egin zuen, baldin eta Zipre Batasunean sartzen bazen eta irlaren zatiketa konpontzen ez bazen. Europar Batasunak bi aldeak presionatu zituen irtenbidea aurkitzeko asmoz. Turkiak bere jarrera zertxobait aldatu zuen, nahiz eta Zipre ezagutu gabe segitu.

2002 eta 2004 urte bitartean, negoziazio zailei ekin zitzaien, NBEk sustaturik, eta garai hartako idazkari nagusia zen Kofi Annan-ek proposaturiko planean oinarrituta. Erresuma Batuak eta AEBek planari hainbat ekarpen egin zioten eskualdean zituzten interesak handiak zirelako. EBk, ordea, ez zuen formulazioan parte hartu, baina AEBek markatutako ildoari ekin zion. Indar erregionala izan nahi duen honentzat, benetan menpeko jarrera! EB oso kritikatu zuten Zipreko zenbait akademikok.

2004ko urtea erabakigarria izan zen Zipreko Errepublikako historia eta politikan. Urte horren erreferentzialitatea «europartze» eta lurralde gatazkaren eskutik heldu zen, eta hiru gertakizun eraginkorrek definitu zuten, hurrenez hurren. Apirilean, Annan Planaren gaitzespena; Maiatzaren lehenean, Zipreren sarrera EBn; eta hirugarrenik, abenduan, Turkia EBko kide bilakatzeko negoziazio prozesuaren hasiera (2005ean finkatu zuen).

Gertakizun horiek literatura akademikoak zabalkundeari buruz duen ikuspegi nagusia zalantzan jarri zuen. Zabal-



kundeak ez ditu, berez, bakea, egonkortasuna eta oparotasuna ekarri Mediterraneoko ekialdera. Are gehiago, EBren pertsuasio estrategiaren *soft power* eraginkortasunaren ahulezia agerian geratu zen, Zipreko gatazkari dagokionez behintzat.

Alabaina, aipaturiko 2004ko gertakizunek bigarren mailan gelditu den bestelako sekuentzia garrantzitsua azalarazi dute; hots, hainbat ikerlek (Diez, Constantinou, Papadakis...) *bi komunitateen arteko ekimenak* deitu dituztenak. EBk bultzatzen dituen proiektuek, izaera desberdinekoak izanda ere, elkarkidetzat sustatzea dute helburu. Ildo horretan, T. Diezek azpimarratzen duenez, ekimen horien bidez, estatuaren aurrez aurreko logika gailentzen du EBk, soluziobidearen aldeko dinamika positiboak lagunduz eta jendearen parte-hartzea bultzatuz. Gainera, C. Constantinouk eta beste zenbait ikerlek nabarmendu dutenez, ekimen horiekin jendartean barneraturik dauden usteak baliatu nahi dira, gehiago zabaltzeko asmoz. Dinamika txikiak agian, baina aipatu dugun EBren dimentsio aztoratzailearen alde ixila.

Annan Planaren gaitzespenaren ondoren, eta eszenatokirik zailena zuela, Zipreko Errepublika EBn sartu zen. Nazioarteko zuzenbidearen arabera, 1960an aldarrikatu zen Zipre estatu independentea, subjektu legitimo bakarra da. Ildo berean, 2003an Errepublikak sinatu zuen Atxikimendu Hitzarmenak uhartearen zatiezintasuna aitortzen zuen.

Uhartearen zatituta eta okupatua heldu zen EBra, eta horrela jarraitzen du. Zipretar-greziarren %75,83rentzat Annan Planak ez zuen irlaren lurralde batasuna bermatzen. Pentsaera horren arrazoiak bat baino gehiago dira: klausula konstituzionalak, Epaitegi Gorenaren osaketa, kanpoko indarren presentzia, jabego auziak, kolono ilegalen legitimazioa, desagertuak, eta abar. Baina agian arrazoi nagusia izan zen Planak konfederazioa proposatzen zuela irlaren egituraketa politikorako, eta askorentzat konfederazioak atea irekitzen zuela turkiarren okupazio eta legitimazioari. Planaren gaitzespena, Claire Palleyren iritziz, NBEren eta Annanen porrota

izan zen. Finean, Zipreko bi komunitateen arteko adostasunik gabeko inposizioa izan zen, eta oro har, nazioarteko komunitateak, EB barne, inposizio hori sostengatu zuen.

Europar Komunitateak egoera konplexu horri aurre egin behar izan dio, beraz. Ziprek EBko beste estatuek dituzten eskubide eta betebeharrak ditu, baina ondare komunitarioa agintean duen lurraldean soilik aplikatu daitezke, gainerako %37an turkiarrek agintzen baitute.

EBko instituzioek gatazkarik gabeko Zipre nahi zuten. Zipreko gatazka Batasunera eramateaz gain, instituzio komunitario eta estatukideen arteko talka eta kontraesanak pizten ditu, eta EBk egun definitzeke dituen politikak gehiago zehaztera behartzen du: Auzotasun Onaren Politika, Defentsa... Turkia EBko kide izango balitz, Europako mugak Iran, Irak eta Siria izango bailirateke, adibide bat ipintzearren. Gainera, Zipreko gatazka liskar gaia da NATOrekin, Turkiaren presioak direla medio, EB eta NATOren arteko lankidetzaren Mediterraneoan gelditurik baitago, ez ordea Afganistanen edo Kosovon, adibidez. Funtsean, Zipreko gatazka EBk Turkiarekiko duen jarrera argitzera behartzen du, eta bidenabar, Mediterraneoako ekialdean, jokatu nahi duen erregio indarraren rola birplanteatzera.

Testuinguru honetan, eta Zipre EBko kidea denez, Batasunak Turkia presionatzeko duen bidea Kopenhageko irizpideen aplikazioa da. Aplikazio horrek presio neurri eraginkorrak ematen dizkio, auzitan jar dezakeelako, azken batean, estatu bat EBn sartzea bera.

2006an, *Eurlings* izeneko txostenean, Zipreko intenbidearen prozeduraz eta Turkiak Kopenhageko irizpideak beteitzeko beharraz arreta deitu, eta mezu garbia igorri zuen. Turkiak erreformak geldotzeak eta Arantzel Batasunari dagozkion baldintzak ez betetzeak negoziazio prozesuan ondorioak izango zituen, negoziazio prozesuak berak ez baitu, berez, EBra eramaten eta prozesua irekia baita.

Txostenak eztabaida akademiko handia ekarri zuen, baina horrez gain, presio neurriak ere onartu ziren. Batzordeak,

2006an Turkiaren ondare komunitarioaren aplikazioari buruzko azterketa analitikoa deitzen duten horretan erreformak geldiarazten zituela adierazi zuen, Turkia betoa jartzen ari baitzen Zipreri hainbat erakunde eta itunetan. Elementu horiek guztiak Turkia EBn sartzeko negoziazio prozesua gelditzeko aski ziren arren, Batzordeak norabidez aldatzeko aukera eman zion Turkiari. Aldaketa, ordea, ez zen gertatu, eta Batzordeak negoziazioaren hainbat kapitulu izoztea gomendatu zuen, kontsentsuzko neurri gisa, batzuek neurri gogorragoak eskatzen zituzten eta. Era horretara, Ziprek eta Greziak jarritako betoa dela medio, negoziazioaren 35 kapituluetatik 8 izoztuta daude, Arantzel Batasunari dagozkienak, alegia.

Haatik, Zipre EBko estatukide denetik, lurralde gatazkaren erresoluziobideari dagokionez, Integrazio Egitura honen esku-hartze zehatzagoa lortu da. Horren froga dira aipatu ditugun Turkiaren kontrako presio neurriak; edota 2008ko irailetik EBk, NBErekin batera, sustatu duen Zipreko bi komunitateen arteko elkarrizketa prozesua. Prozesuak, gainera, Annan Planak biltzen ez zituen bi abantaila ditu: batetik, bi komunitateen arteko prozesua da, eta ez, ordea, atzerritar indarren artekoa. Eta, bestetik, irla federazioa izan behar duen inguruko adostasuna. Prozesuak aurrera jarraitzen du, nahiz eta diferentzia nabarmenak izan, batik bat harturiko adostasunen nolakotasun eta agendari dagokienez.

EBko instituzioek ulertu dute, beraz, Zipreko lurralde gatazkaren gakoa Turkiak Zipre aitortzean datzala. Hala eta guztiz ere, EBk Turkiarekin daraman negoziazio prozesua ez da geratu. Kontraesan eta zailtasunez gaindi, prozesua mantendu egingo da, nahiz eta 2008ko uztailean Europako Legebiltzarrak ebatzi zuen Nizako Ituna indarrean dagoen bitartean beste zabalkunderik burutzeko ahalbiderik ez dagoela. Arazoa da hautagaiak Kopenhageko irizpideak beteiko dituen jakitea, eta EBk estatuen interesen logika gailenduko duen. Bitartean, Zipreko gatazkak atzerritar interesen gatibu segituko du.

## Europako mugaz gaindiko lankidetza, Irlandako akordioaren gakoa

1973an Erresuma Batua Europar Erkidegoko kide egin zenean, ez zioten anglo-irlandar gatazka ebaztea eskatzen zuen berariazko baldintzarik jarri; gaur egun, ordea, EBk Kopenhageko irizpideak betetzea eskatzen die EBko kide izan nahi duten estatu batzuei. 70eko hamarkadako Europar Erkidegoa oso bestelakoa zen oraingo EBren aldean, eta «mugaz haraindiko anglo-irlandar gatazka» barne aferatzat jotzen zen; hots, ez zegokion erkidegoko politikari. Hala ere, gaia hasieratik izan zen erkidegoaren interesekoa, eta horren lekuko dugu 1984ko *Haagerup report* txostena, Europako Parlamentuko Konstituzio Gaietarako Batzordeko presidenteordea zen N.J. Haagerup daniarrak landua. Esan dezagun, bide batez, txosten horrek inspiratu zuela 1985eko azaroaren 15eko anglo-irlandar akordioa, Irlandako mugaren alde bietako garapen ekonomiko eta sozialerako oinarri komuna ezarri zuena, horretarako nazioarteko laguntza izateko aukera ere kontuan hartzen duena. Ildo horretan, eta gobernu bion eskariz, Europako Erkidegoak Irlandarako Nazioarteko Funtsa sortu zuen 1989an, urteko 15 milioi eurokoa. Funts horren helburua zera zen: «Garapen ekonomiko zein soziala sustatzea, eta Irlanda osoko nazionalisten eta unionisten arteko harremana, elkarrizketa eta adiskidetzeari garatzea». Hala ere, funts hori abian jartzeak hainbat ondorio ekarri zituen: diruak mugaren alde bietan gatazkak sortutako egoera ekonomiko larriari aurre egiteko balio izan zuen, baina, aldi berean, neurri horrek, 1995etik aurrera etorri zirenek bezala, alde bietako elite politikoen artean eta gizartean oro har «elkarrekiko onuraren» ideia zabaltzeko balio izan zuen, eta batez ere europar politikak zekartzan onurak onartzeko.

Haatik, neurririk ikusgarriena eskualde politika barruan *Peace* programa (bake eta adiskidetzarako programa) sortzea izan zen, europar egitura funtsak «gizarte baketsu eta

egonkorra lortzera bideratutako aurrerapenei laguntzeko eta eskualdean adiskidetzea sustatzeko». *Peace* programak hiru fase izan ditu: 1995-1999, 2000-2005 (2006ra arte luzatu zena) eta 2006ko abenduan onartutako azken fasea, 2007 eta 2013 bitarteko aldia hartzen duena. Laguntza programa horrek 708 milioi euroko aurrekontua izan du, eta horietatik %75 zuzenean EBtik datoz. Gainerakoa iturri estatal publiko eta pribatuetatik dator.

*Peace* programak baditu EBren esku-hartzearen egitura islatzen duten bi ezaugarri. Alde batetik, Erresuma Batuak eta Irlandako Errepublikak garatutako estatu eta estatuarteko politiken programa «lagungarria» da, bake prozesua indartzeko helburuarekin. Ildo horretan, interesgarria da gogortzea Europaren lehen esku-hartze finantzarioa 1985eko akordio anglo-irlandarra sinatu izanaren ondorioz gertatu zela, eta *Peace* programa 1998ko *Ostiral Santuko* akordioen inguruan hitzartu zela.

Beste alde batetik, eta orain bigarren ezaugarriari helduko diogu, programa egitura-funtsen garapenerako laguntzaren esparru espezifikoan gauzatzen da. Esparru horretan, ondo zehaztutako bost lehentasun ezarri ziren: sendotze ekonomikoa, tokiko erregenerazio eta garapen estrategiak, Ipar Irlanda mugaz gaineko lankidetzara irekitzea eta adiskidetze soziala. Hala, Europar Batasunaren ekimena bake prozesuaren eraikuntzan integraturik dago (*Peace building*), eta ez da bake prozesuari zuzenean laguntzeko zerbait (*Peace making*), hori estatuen esku geratzen baita. Hala eta guztiz ere, *Peace* programa, dauzkan mugak gorabehera, Batasunaren strategiaren —eta bitartekoen— osagarria da, eta Europak hasieran hartutako jarreraren zikloa ixten du; izan ere, hasiera batean, jarrera hori krisiari edo gatazkari buruzko iritzia ematean baitzetzan, gero konponbidean parte hartzeko. Bestalde, interesgarria izan liteke adieraztea *Peace* programaren espezifiktasun bat tentsioak laxatzea izan dela, eta estatuen eta EBren arteko lankidetzaren esparru hertsia tokiko kideek eta kide pribatuek osatutako sare bat eraikita gaindi-

tu dela. Sare horrek gatazkaren konponbidea gizartean sozializatzeko aukera eman du.

Azkenik, eta *Peace* programari dagokionez, batzuetan ahaztu egiten den baina oso garrantzitsua den kontu batean jarri nahi dugu arreta: irlandar gatazkaren ebazpenari EBk emandako sostengu zuzenaren legitimazio juridikoa.

Europar Batasunaren eragina bistakoa eta agerikoa izan da 1998ko Ostiral Santuko Hitzarmenean, bereziki markatzen duen bigarren mailan, *Strand two* delakoan, eta irlako Ipar/Hego Kontseiluaren sorrerari dagokionez<sup>1</sup>.

Eragin horren garrantzia Kontseiluan garatu beharreko komunitateko politiken benetako funtzioan datza. Hau da, orain arte, Europako erregio politikarako irizpideei jarraiki, komunitateko politikak dimentsio ekonomiko hutsak definitzen zituen, baina orain gainditu egiten da dimentsio hori, politikoagoa hartzeko. Horrek esan nahi du *gobernantza*, lurralde eta identitate ikusmolde berriak errazteko testuinguru gisa azaldu dela EB irlandar eta britainiar diskurtsoetan. Ildo horretan, erakunde berriaren eskumenetan islatzen diren mugaz gaineko alderdiak eta ipar-hego interes komunek indartu egiten dute eskualdeei buruzko europar diskurtsoa eta, aldi berean, gatazkan dabiltzan aldean arteko *win-win* konponbide eredua sortzen. Horrek kontzeptuen esparru berri bat sortzen lagundu du, non aktore biek, britainiarrek zein irlandarrek, beteta —ezen ez zapuztuta— ikusi baitzituzten euren lurralde helburuak. Alde batetik, britainiarrek beren lurraldearen osotasuna nabaritzen dute, eta, bestetik, irlandarrek irlaren lurraldetasuna bistaratu dute, funtsezko eskaera politikoa dena, eta baita irlandar subjektibotasun kolektiboaren gai zentrala.

Batzordeak berak Irlandako adibidea «esperientzia kalkulazintzat» jo duenez, ez dirudi EBk —kontuan hartuta Europan garatu duen eskualde politika eta mugaz gaineko lan-kidetza bultzatzeko ekimenak— beti kudeaketan eragiten duen hirugarren mailako aktore gisa jardun duenik kasu honetan. Aitzitik, aldeak bateraezintasun egoera batetik ba-

teragarritasun egoerara eraman ditu, eta konponbidean inplikatu da.

EBk erakutsi du badituela tresna berriak Europako lurralde gatazkei aurre egiteko; hor du, esate baterako, egitura funts berrien artean dagoen Lurralde Lankidetzarako Europar Taldea (AECT / COD 2004 / 01608) Europako estaturik gabeko nazioen lurralde eskaerak bideratzeko baliagarriak izan litezkeenak, eta horien artean Euskal Herriarenak. Baina horretaz hurrengo artikuluan jardun nahi dugu.¶

- 
1. Ostiral Santuko Hitzarmena hiru mailatako ereduan oinarritzen da, bakoitza dagozkion multigobernu instituzio politikoez horniturik: lehenengo mailan, Ipar Irlandako Batzarra; bigarrenean, Irlandako Ipar/Hego Kontseilua; eta hirugarrenean, Irletako Kontseilua. Era horretara, esan dezakegu, bere itxuran eta edukietan, Ostiral Santuko Hitzarmenak gainditu egin zuela Irlandako esparru estua, Hitzarmenak Irlandako gatazkarako konponbidea islatzeaz gain, aldi berean, hirugarren mailaren bidez, ahalbidetu egin baitzuen britainiar Estatuaren berdefinizioarako, eta ondoren ezagutu duen deszentralizazioarako, beharrezkoa zen tresna.